

Herririk Herri |7|

Txantxibiri kaleko urbanizazio lanak
laster hasiko dituzte Elorrión



Kultura |11|

Durangoko 45. Liburu eta Disko Azoka
iragarriko duen kartela aurkeztu dute

Berbaz |9|

'No lloréis, lo que tenéis que hacer es
no olvidarnos' liburuari buruz berbetan

Durango prest, San Fausto jaiak bete-betean bizitzeko

> Bihar 13:00etan irakurriko du Jon Sarobe
dantzariak pregoia, jaiiei hasiera emanez

> Zapaburu gazte konpartsa izango da
gaur txosnagunean pregoilari

Gehigarria



Izarren Distira: artista gazteen ezkutuko talentua erakusteko oholtza

Durangaldea • Gazteen artean euskararen erabilera bultzatzea eta ikuskizuna antolatzea helburu hartuta, talentu lehiaketa antolatu dute Durangaldeko Amankomunazgoak eta Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibarko udalek. Ekimenean 12 eta 18 urte bitarteko gazteek parte hartu dezakete. Gaia gazteek eurek aukeratuko dutela azaldu dute, San Agustinen asteon egindako aurkezpenean. Izena emateko epea urriaren 26ra artekoa da. Castingakegingo dituzte, eta finala Durangoko San Agustín kulturgunean jokatu dute, azaroaren 13an.

2



Kepa Aginako

•Durango

Tokiko Agenda 21eko ekintzak
txostenean jaso dituzte

3

•Berriz

Garita enpresan negoziatzen
dabilta, akordiora heltzeko

6

•Atxondo

Behin-behineko anbulategia,
urriaren 18tik aurrera zabalik

7

•Iurreta

Pediatria kontsulta berria bi
aste barru gertu izango da

7



KOART

Sukaldeak
Bainugelak
Horma-armairuak



Tel. / Faxe: 94 682 68 79

Eitua industrialdea, 9 - 6 behea • 48240 BERRIZ

HERRIRIK HERRI >

DURANGALDEA

Artista gazteentzat agertoki aproposa 'Izarren distira'-n

12 eta 18 urte bitartekoei bideratuta, euskararen erabilera eta ikuskizuna batzen ditu ekimenak

Durungaldeko Amankomunazgoko eta eskualdeko 10 herritako euskara batzordeek sustatuta, 12 eta 18 urte arteko gazteek euren ezkutuko talentua plazaratzeko aukera izango dute, azaroan, *Izarren distira* ekimenaren bidez. Bertsoa, umorea, dantza, bakarrikzeta... gaialibrea da, bakoitzak barruan baduela uste duen dohaiaren arabera. Hiru castingen ondoren, San Agustín kulturgunean jokatu dute finala, azaroaren 13an.

Amankomunazgoaz gainera, Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibarko udalek babestu dute ekimena; Hamaika telebista laguntzaile da. Helburua artista gazteen erakusleho izateaz gainera, euskara sustatzea da.

Izena emateko epea urriaren 26ra artekoa da eta www.izarren

distira.com webgunean egin daitezke eskakizunak. 12 eta 18 urte arteko gazteek parte hartu dezakete lehiaketan. Bakarka edo gehienez sei lagunekoko taldeak euskarara hutsean aurkeztu beharko dituzte bi eta hamar minutu arte-

Hiru casting egingo dituzte, eta finala azaroaren 13an izango da San Agustín kultur gunean

Castingak Elorrio, Durango eta Abadiño edo Berrizen egingo dituzte azaroaren hasieran

ko ikuskizunak. Epamahiak lanen originaltasuna, hizkuntzaren tratuera, neska-mutilen parte-hartzea eta talde-lana hartuko ditu kontuan aukeraketa egiteko.

Azaroaren 3an, 4an eta 5ean casting bana egingo dute Duran-



Durango San Agustín kulturgunean egingo dute finala, azaroaren 13an. Kepa Aginako

gon, Elorrio —Arriolan— eta Berrizko edo Abadiñoko kultur etxean. Izena ematen duten jatorriaren arabera erabakiko dute Berrizen edo Abadiñon egin. Lanen iraupenaren arabera, sei edo zortzi ikuskizun aukeratu-

dituzte azaroan 13an, 19:00etan, Nerea Aliasek San Agustín kulturgunean gidatuko duen finalerako. Irabazleak multiabentura ekintza edo ikasbidairako laguntza irabaziko du; bigarrenak laser partidak eta afaria lagunekin; hirugarre-

nak, berriz, euskarazko disko eta liburuetan gastatzeko bonoa. Gazteen zerbitzura interneteko Tuentin kontua ere sortu dute. ■ J.D.

> Bideoa ikusgai
www.anboto.org-en

Berrerabiltzeko poltsak banatuko dituzte dendetan

+Dendak elkarteak bultzatutako ekimenagaz, plastikoaren erabilera txikitu gura dute



Denda batzuetan berrerabiltzeko poltsak banatzen dabiltza.

Durango, Iurreta, Izurtza eta Abadiñoko 192 dendatan berrerabiltzeko poltsak doan banatuko dizkiete erosketak egitera doazen bezeroei datozen asteetan, plastikoaren erabilera txikitu eta ingurumenarekiko errespetua bultzatzeko +Dendak elkarteak martxan jarritako kanpainan. Eskualdeko dendetan 2.500 poltsa banatuko

Durango, Iurreta, Izurtza eta Abadiñoko dendetan banatuko dituzte berrerabiltzeko poltsak

dituzte +Dendak logotipoagaz. Herritarrak berrerabiltzeko poltsak erabiltzera ohitu daitezen gura dute ingurumenean plastiko gutxitzeak daukan garrantziaz konturatzeko.

+Dendak berbetan, "komertzioa indartu eta aktibitate komertzial jasagarria bultzatzeko lan egiten" dabiltza, "herri bakoitzaren eta bere inguruaren beharrianak kontuan hartuta". Dendariek +Dendak elkartearen bulegoan jaso ditzakete bezeroei banatzeko berrerabiltzeko poltsak. ■ J.G.

Herritarrak berrerabiltzeko poltsak erabiltzera ohitzea da ekimenaren asmoa

Emakumeen kontrako indarkeria gaitzesteko sariketa artistikoa

Lehiaketara adierazpen artistiko oro aurkeztu daiteke: poesia, musika, eskultura, argazkia...

Berdinsareak, berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako udalen sareak, *Adieraz Zaitetz. Beldur Barik!* izeneko sariketa antolatu du lehenengoz. Helburua modu batera edo bestera emakumeen aurkako indarkeria zuzenean edo zeharka gaitzesten duen adierazpen artistiko oro balioes- tea eta sustatzea da.

Lehiaketak adierazpen artistiko oro onartzen du, bitarteko edo teknikarik diskriminatu barik: pintura, musika, zinema, poesia, eskultura, dantza... Deialdian parte hartzeko interesa dutenek euren udalerriko udal- letxeko Berdintasun Sailean aurkeztu beharko dute proposame-

Berdinsarearen lehiaketa 16 eta 26 urte artekoei zuzenduta dago

na. Irabazleak 1.000 euroko saria eskuratuko du. Lehiaketa 16 eta 26 urte bitartekoei zuzenduta dago, eta bakarka zein taldeka aurkeztu daiteke, baina partaideetako batek, gutxienez, ema-

Abadiñoko Udalak diru-laguntzak emango ditu materiala erosteko

kumezkoa izan behar du. Lanak edozein hizkuntzatan aurkeztu daitezke, beti ere, euskarazko eta gaztelaniazko itzulpenekin.

Laguntzak Abadiñon

Abadiñoko Udalak proposamen artistikoak egiteko materiala erosteko diru-laguntzak emango ditu; gehienez, 200 euro bakoitzari. Eskabidea egiteko azken eguna urriaren 29a da, Udaleko Berdintasun Sailean, Mediatekan eta Errota kultur etxean. ■ J.D.

DURANGO

Iraunkortasunean gauzatutako ekintzak txostenean jasota

2011n amaituko den Tokiko Agenda 21ean egindako lanen balorazioa jaso dute txostenean

Tokiko Agenda 21aren barruan orain arte egindako lanen laburpena eta balorazioa jasotzen duen txostena aurkeztu du, asteen, Durangoko Udalak. Udalerakundeetan eskuragarri dago dagoeneko.

Aurkeztutako txostena “irakurterraza” da, eta helburu bi ditu; orain arte egindako lana jakinaraztea eta “herritarrei Tokiko Agenda 21ean parte hartzeko gonbita luzatzea”, Aitziber Irigoras Durangoko alkatearen esanetan.

Planak hiru eremuri eragiten die: ingurugiroari gehienbat, eta baita arlo sozialari eta ekonomikoari ere. Azpimarratu dutenez, “denbora gutxian ikaragarri hobetu da” airearen kalitatea. Ingurugiroari dagokionez, urtean zehar airearen kalitatea txarra den egun kopurua %98 jaitsi da, eta kutsa-

dura maila %50. Arlo sozialean dagoeneko martxan dauden inmigrazio eta eta berdintasun planak azpimarratu dituzte. Horrez gainera, eguneko zentroetan hirugarren adinekoek duten plaza kopuruak Euskal Autonomia Erkidegoko batez besteko kopurua “bibidertu” egiten du.

Zebrabideak egokituta

Irisgarritasunaren arloan, Durangoko zebrabideen %100 indarrean dauden araudietara egokituta egongo da aurtengo urtearen amaierarako. Hiru urtean milioi eta erdi euro inbertitu dituzte irisgarritasunean. Azkenik, bidegorrien sareari buruzkoak: orain urte gutxi 600 metro zeuden, gaur egun 10 kilometro daude eta bost urteren buruan bidegorrien sarea 18 kilometrorra helduko da. ■ J.D.



Bidegorrien sarea urte gutxian ia 10 kilometro hazi dela azpimarratu dute.

Hardware informatikoa ezagutzeko ikastaroa Maristak ikastetxean

Asteon Amboto Hardware Labs taldeak eskaini die ikastaroa informatika eta elektronika ikasleei



Martitzenean eta eguaztenean eman zuten ikastaroa.

Aste honetako martitzenean eta eguaztenean Gigabyte Overlocking School ikastaroa egin dute Maristak ikastetxean, Amboto Hardware Labs taldearen eskutik. Klase teorikoa eta praktikoa bateratuz, ordenagailuen osagai ukigarriak —hardwarea— ezagutzeko eta euren funtzioa hobeto ulertzeko aukera eskaini dute.

Martitzenean arlo teorikoa jorratu zuten. Josu Barandallak PC bat egituratzen duten osagaien gainean jardun zuen. Ondoren, ikasleak harrituta utzi zituen overlocking (ordenagailuaren errendimendua hobetzeko aurrerapenak) erakustaldia egin zuten. Hain zuzen, ordenagailu moderno bat muntatu eta nitrogeno likidoagaz

Ordenagailua nitrogeno likidoagaz hoztu zuten; ikasleak ordenagailua lanean ikusi zuten -200 gradutan

hoztu zuten. Ikasleek ordenagailua -200 gradutan lanean ikusi zuten: “Ez da egunero ikusten den zerbait, normalean kobrea edo aluminioa erabiltzen direlako ordenagailua hozteko”, azaldu du Josu Barandallak.

Eguaztenean, ikasleek aurreko eguneko teoria praktikan jaritzeko modua izan zuten. ■ J.D.

GARAI

Antzinako defuntu errituen erakusketa

Ondarearen Europako Jardunaldien baitan hainbat ekintza eratu dituzte Durangaldean, eta horietako bi Garain burutuko dituzte. Antzinako defuntu errituen gaineko ekimena da datorren asteotan egingo dutena.

Ekimenak bi ekintza barnebiltzen ditu. Alde batetik, San Migel eliza eta Momotioko San Juan ermita bisitatzea proposatzen dute, azalpenak jasotzeko gidari eta guzti. Bihar egingo dute lehen bisita gidatua, bi txandatan; 16:00etan eta 18:00etan. Bestetik, erakusketa egokituko dute Elizabarri elizan. Kasu honetan, antzinako erritueta erabiltzen ziren hainbat elementu ipiniko dituzte ikusgai. Esaterako, kandelarioak, andrentzako aulkiak, katafalko bat, trajeak eta meza-laguntzaileek erabiltzen zituzten txilinak. Antolatzaileek azaldu dutenez, katafalkoa Martzaatik ekarri dute, eta trajeak erakusteko manikiak Bilbotik. ■ M.O.

OTXANDIO

12 lagunek eman dute izena euskara eskolarako

Andresa Landa eraikinean emanago dituzten euskara eskolarako 12 lagunek eman dute izena. Horietako seik euskarazko oinarritzko klasetan jardungo dute, baina gainerako seirak Otxandio-ko Berbalagun egitasmora bideratu dituzte.

Uda aurretik sortu zuten Berbalagun lehenengoz, eta 15 lagunek parte hartu zuten. Izandako harreragaz gustura dago udala, eta egitasmoagaz aurrerajarritzea erabaki dute. Asmoa urte osorako egitasmoa sortzea da, azaroan hasi eta 2001eko azaroan amaituko dena. Orain euskaldunberriei euskaraz berba egiten lagunduko dien dinamizatzaile bila dabilta.

Bestalde, oraintsu udal idatzia euskaraz jaso gura dituenari horretarako aukera eskaintzen dien ekimena martxan ipini dute, eta 30 lagunek egin dute eskaera. Interesatuak udaletxera joan eta eskaera orri bat bete besterik ez du egin behar. ■ J.D.

**MOMOTXO
TABERNA**

Plateruen plaza, 12
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO

Arrike
Liburudenda

Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA
Tfnou. 94 681 43 85

Betikoak
flexografia

ofizinarako zigiluak
fotolitoak

Bixente kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

ELORRIO

Kiroldegian eguzki panelak ipintzeko mozioa onartu dute

Kiroldegiko lanen bigarren fasean teilatuan eguzki panelak ipintzea eskatu zuen EAJk

Elorrioko EAJ alderdiak kiroldegian egin beharreko zaharbertze lanen bigarren fasean eguzki panelak jartzeko eskatzen zuen mozioa aurkeztu zuen udalbatzarrean. Ezker abertzaleak eta PSE-EEk aldeko botoa eman zuten, eta aho batez onartu zuten mozioa.

Kiroldegiko bigarren fasean teilatua konpontzea aurreikusita dago, eta, hori aprobetxatuz, bertan eguzki panelak egokitzearen onura jasotzen du mozioak: "Eguzki panelak jartzea ingurumena babesteko neurria izateaz gainera, baliabideak aurrezteko tresna ere izango da, hasieran egindako inbertsioak udalera itzuliko direlako", azaldu zuen Ana Otadui EAJ-ko zinegotziak.

Horretarako diru-laguntzak jaso daitezkeela zehaztu zuen, uztailaren 16an boletin ofizialean argitaratutako *Energia-eraginkor-*

tasunean jarduteko plana udaltan izeneko laguntzari erreferentzia eginez. Diru-laguntza horiek eskatzeko epea azaroaren 15ean amaituko da.

Amaitzeko, alderdi jeltzaleak aurkeztutako mozioak udal jabetzakoak diren gainerako eraikinetan ere eguzki panelak jartzeko eskakizuna egiten du. ■ J.D.

A. Otadui: "Eguzki panelak jartzea baliabideak aurrezteko modua izango da; bueltatu egingo da inbertitutakoa"

Mozioak udalaren gainerako eraikinetan ere eguzki panelak jartzea eskatzen du



Kiroldegiko lehenengo faseko lanak amaitzeaz daude.

Gazteen lokalen ordenantzari emendakinak ipini dizkio EAJk

Besteak beste, lokala ixteko ordua zehaztu beharko litzatekela uste dute, eta gauerdia proposatu dute

Gazteen lokalen ordenantzari lau emendakin ipini dizkio EAJ alderdiak. Horietako batean lokalen ixteko ordutegia ordenantzan zehaztu beharko litzatekeela dio, eta gauerdia proposatu dute.

Bigarren emendakinean, auzotarren eta lokalaren erabiltzaileen artean ezadostasunen bat badago eta, ordenantzan jasotakoa jarraituz, udalari auzia eztabaidatzeko batzarra eskatzen badiote, berau gidatzeko bitartekari profesionala kontratatatzeko eskatu dute. Hirugarren emendakina zigorren ingurukoa da. Orde-

nantza betetzen ez duten lokalak edo bertan jasotakoa hausten dutenak ixteko eskaera jasotzen du. Azkeneko alegazioa ere ildo horretakoa da, baina lokalaren egokitzapenari dagokio. Sei hilean ordenantzak agindutakora egokitu ezean (esaterako, komunik ez badu) lokala ixtea proposatzen du alderdi jeltzaleak. ■ J.D.

Lokala sei hilean ordenantzara egokitu ezik, berau ixteko eskatu dute emendakinean



Besteak beste, kalea berritzu eta Kurutzia gako kurutzearen inguruko zonaldea handitu egingo dute.

Txantxibiri kaleko urbanizazio lanak laster hasiko dituzte

Abadiñoko Lasuen enpresak 30 aste izango ditu proiektua gauzatzeko

Txantxibiri deitzen zaion kalea urbanizatu eta berritzatzeko lanak laster hasiko dituzte. Lasuen enpresari esleitu dizkiote lanak, milioi bat euro pasatxoan, eta 30 asteko epea izango dute proiektua amaitzeko.

Lanak hasteko eperik zehaztu ez duten arren, udal agintariak Lasuenegaz lehenbailehen batzeko asmoa erakutsi dute, egutegia eta lanen planifikazioa zehazteko. Ondoren, Txantxibiri eta Otsa kaleko bizilagunei zein lanek modu batera edo bestera eragingo dien San Juan eta Ibarrondo kalekoei adostutakoaren berri jakinaraziko diete. Izan ere, lanek

Ahal dutenik eta arinen batuko dira Lasuen enpresagaz, proiektua gauzatzeko plangintza zehazteko

Kalea urbanizatzeaz gainera, lur azpiko azpiegitura guztiak ere berriztatuko dituzte hastear dagoen proiektuagaz

irauten duten bitartean trafikoak aldaketak jasango ditu.

Txantxibiriko berriztatze lanetan oinezkoentzat jarriko dute kalea, eta Kurutzia gako kurutzearen ingurua handituko dute. Errepi-deagaz bat egiten duen Tanger tabernaren aurrealdeko zonaldea ere atonduko dute, eta kaleko iluminazioa hobetuko dute. Horrez gainera, azpiegiturak berriztatuko dituzte: "Ikusten ez den lana da, baina ikusten dena besteko garrantzitsua", Niko Moreno alkatearen arabera. Argindarra, ur hornidura eta teknologia berriko azpiegiturak berriztuko dituzte; zuntz optikoa, esaterako. ■ J.D.

Giro ederrean ospatu zuten Errebonbillo Eguna

Domekan goizaldeko 05:00etan kalejiran irten zuten Elorrioko errebonbilloek. Herriko hainbat gunetan tiroak botata, elorriarrei euren etorreraren berri eman zieten. Ondoren, alkatearen etxean gosalduta, txapliguak bota zituzten. Herritarrek arratsaldeko jairagongibidatzeko urteroko modua izaten da hori.

Herriko plaza bete-beteta egon zen arratsaldean, errebonbilloei harrera egiteko. Besteak beste, alardea eta txistularien kontzertua egon ziren. ■ J.D.

Alardea egin eta txistu kontzertua izan ziren, besteak beste, Herriko Plazan



Kalejiran plaza nagusira heldu ziren errebonbilloak. Kepa Aginako



Durangon geratuko gara

Odi-Bakar sustapenak izan duen arrakasta ikusita
SUKIA enpresak etxebizitza eta garajeetarako
sustapen berri bat merkaturatu du
Errotaritxuena Auzunean, BANCO SABADELLEN
barruan dagoen SOLVIArekin lankidetzan.

Eman ezazu izena!



946 46 20 41
www.solvias.es

**Aurki etxebizitza
eta garajeen eraikuntza**
www.sukia.com

Banco Sabadellek %100ean
finantzatutako erosketa.

BancSabadell



sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

BERRIZ

Garita enpresan negoiazioak hasi dituzte asteon

Martitzenean egin zuten lehenengo batzarra, eta gaur dute bigarrena; oraingoz ez dago akordiorik

Garita enpresan sorturiko gatazkan bi aldeak hurre-ratu egin dira asteon. Martitzenean beharginen eta enpresaren ordezkariak batu ziren, eta oraindik akordiorik ez dagoen arren, beharginek protestak bertan behera utzi dituzte, negoziazioak iraun bitartean. Gaur izango dute berriro batzarra.

Beharginek protestak bertan behera utzi dituzte, negoziazioak iraun bitartean

LAB sindikatutik balorazio gazi-gozoa egin dute egoeraren gainean. Alde batetik, enpresa negoziatio mahaira ekartzea lortu dutelako pozik daude, diotenez “horixe zelako lehen helburua”. Baina, bestetik, kezkatuta daude,

“enpresak ez duelako jarrera ona erakutsi orain arte”.

Proposamenak

Langileek protestak deitu zituzten “aurretik lortutako eskubideen urraketa eta lan hitzarmena eztabaidatzeari ezezkoa emateagatik”. Beharginen eskarien artean “azken 40 urteetan lanean ibili direnei errelebo kontratuak egitea” dago, esaterako, eta negoziatioetan ere gai hori landu dute. Oraingoz, baina, ez dago akordiorik, “enpresak egindako proposamenekin ezarritako baldintzak ez direlako onargarriak”.

Akordioa lortzea “gaitza” da

LAB sindikatuko ordezkariak adierazi dutenez, gaurko batzarrean enpresak zer jarrera hartuko duen ikusi ondoren erabakiko dute aurrerantzean egin beharrekoa.



Beharginek lanean dihardute, protestak bertan behera utzita.

LABek kezka agertu du, “enpresak ez duelako jarrera ona erakutsi orain arte”

Garita enpresan LAB sindikatua ordezkari bi ditu, eta ELA bi. Beharginek joan zen astean eman zuten egoeraren berri, asteburuetan aparteko ordurik ez egitera deitu zutela adieraziz. ■ M.O.

Emakumeei begirako ikastaro eta formakuntza

Berrizko Udalak herriko emakumeei begirako formakuntza programa eratu du, eta tartean dira gaur hasiko den sexualitate tailer-raz zein inskripzioa zabalik dagoen lan mundurako formakuntza saioa.

Sexualitate tailerra barikuro izango da, 17:30etik 19:30era, azaroaren 12ra bitartean. DBHko 3. eta 4. mailetan daudenentzako izango da; zalantza eta ardurak sexologo baten laguntzagaz argitzen saiatuko dira. Bestetik, lan

Sexualitate tailerrean sexologo baten laguntzagaz argituko dituzte zalantzak

barik dauden emakumeentzako formakuntza prestatu du udalak, Zabalitzen-Sartu elkarrearen laguntzagaz. Urriaren 15era arte eman daiteke izena, eta azaroaren 2an hasiko da. 23 eta 45 urte artekoentzako pentsatuta dago.

Menpekoentzako berbaldiak

Bestalde, herenegun hasiz menpeko pertsonen eta euren zaintzaileen arazoan gaineko berbaldi zikloa. Eguazteneko egingo dituzte hitzaldiak, Kultur Etxean. Pertsona hauentzako erabilgarri izan daitezkeen errekurtsoen inguruan jardungo dute, esate baterako, Etxeko Laguntza Zerbitzua eta eguneko zentroen informazioa eskainiz. Doakoak dira; arratsaldeko 18:00etatik 19:30era. ■ M.O.

MALLABIA

Maniobra militarrek aho batez salatu dituzte

Armadak herrian irailaren 8an egindako maniobra militarrek salatzeke mozioa onartu du udalak

Mallabiko Udaleko ordezkariak armadak irailaren 8an egindako maniobra militarren inguruko mozioa aho batez onartu dute. Ezker Abertzaleko bost boto eta EAJko bigaz aurrera irten zen irailaren 30ean eztabaidatutako ekimena. Mozioan Euskal Herriak bizi duen “eskubideen murrizketa eta militarizazio egoera larria gainditzeko nahia eta beharra” adierazi dute. Udalak “indar armatu espainiar eta frantsesekin laguntasun harremanik ez izateko konpromisoa” hartu du. Mallabian burutu daitezkeen “maniobra, kontrol edo jazarpen militar guztiak” debeka-

tzen ditu, eta “halako gertaeren aurrean dituzten baliabide guztien erantzuteko konpromisoa” hartu dute.

Modu honetako jardueren ondorioz “kaltetutako herritarrei behar duten laguntza” eskainiko diete. Halako gertaerak publikoki salatuta erabakiaren berri emango diete, eskutitzez, dagokien kargu politiko eta militar guztiei. ■ J.D.

Maniobregatik kaltetutako herritarrei behar duten laguntza eskainiko die udalak

operazio polizialak”. Atxilotutako Ezker Abertzaleko kide guztiei elkartasun osoa bidali gura die, eta mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten dute.

Udalak “ideia eta proiektu guztiak demokratikoki defendatzea eta gauzatzea ezinbestekoa” dela adierazi du. “Euskal Herriak aldaketa politikoa inoiz baino beharrezkoagoa” duela nabarmendu dute, eta “udal honek gatazkari konponbide demokratikoa ematearen alde bere esku dagoen guztia” egingo duela. “Euskal Herriak marko demokratiko bat behar du”, jaso dute onartutako mozioan. ■ J.G.

IZURTZA

Herri-baso ondoko txabola egokitzeko lanak hilabetez

Datozen asteetan, urriaren bigarren hamabostaldian, ekingo diete udalaren jabetzakoa den txabola konpontzeko lanei. Udal gobernua aurreikuspenen arabera, hilebeteko iraupena izango dute obrek. Azken urteetan bertan behera utzita egon den eraikina, “herriaren ondarearen parte” dela eta udalak zaindu beharra duela nabarmendu dute gobernuko ordezkariak, “jausten ezin genuen utzi”, diote.

Guztira, 25.000 euroko aurrekontua dute txabolan egingo dituzten berrikuntzek

Bere egunean artzainek erabiltako 40 metro karratu inguruko harrizko eraikina kontserbatzeko, “teilatua eta hormak” konpondu eta lurzorua egokitu dute (25.000 euroko aurrekontua dute lanak burutzeko).

Eraikinak inguruan daukan hariztia guzti “atsegin” dela eta behin konpondu eta gero eraikina zertara bideratu erabakiko dutela diote gobernutik. Premiazkoa zena, eraikina jausten utzi barik konpontzea zela nabarmendu dute udalean: “Udalaren obligazioa da bere jabetzako ondarea egoera onean mantentzea”. Ondoren pentsatuko dute zein funtzio eman. ■ I.E.

MAÑARIA

Kultur etxearen igogailua hartuko duen euskarria egiten

Fase bitan burutuko dituzte kultur etxe eta elkargune izango den eraikinean igogailua ipintzeko lanak. Irailean ekin zieten Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza bigaz %70ean finantzatuko dituzten lanen lehenengo faseari: igogailua hartuko duen dorrea egokituko dute.

Finantziario bila

Udal gobernua asmoa dorre horretan igogailua kokatzeko datorren urtean beste diru-laguntza bat lortzea da. Kultur etxe eta elkartegi izateko gutxinaka egokitzen diharduten eraikinaren bi solairuak lotuko dituen igogailua, 2011 urtean erabilgarri izatea itxaroten dute.

Aurten, bestalde, dagoeneko Tokiko Inbertsioetarako Estatuko Fondotik 36.000 euroko diru-laguntza jasota, bigarren solairuan lurzorua, hormak eta sistema elektrikoa egokitzeko lanak burutuko dituzte. Urte hau amaitu aurretik, beraz, kultur etxean igogailua kokatzeko dorrea eta goiko solairua prest izatea da udal gobernuko jeltzaileen asmoa. ■ I.E.

Bigarren solairuko hormak, lurzorua eta sistema elektrikoa egokituko dituzte

IURRETA

Gernikan ganadu onenaren saria irabazi du Jon Koldo Bikandik

Jon Koldo Bikandi iurretarrak ganadutegi onenaren saria jaso du, astelehen honetan, Gernika-Lumon. Bertan piriniar arrazako abelgorrien 25. azoka antolatu dute, eta lehian parte hartu duten 117 abelburuetatik Bikandirenak jaso du onenaren saria, "berdintsuena eta kalitate handikoa" izan delako, epaileen iritziz. Abelburu onenaren sariaz gain, beste bos sari ere irabazi ditu Bikandik Gernikan.

"Berdintsuena eta kalitate handikoa" izateagatik saritu dute Bikandiren ganadua

Piriniar arrazako behiak, ize-nak dioen moduan, Pirinioetan bizi dira, batez ere, baina Euskal Herri osoan abelburu asko daude arraza horretakoak. Gernikan saria eskuratzeko aurkeztu diren gehienak Bizkaikoak izan dira; Gipuzkoako sei, Nafarroako hiru eta Arabako bat ere aurkeztu dira lehiaketara. ■ A.U.

Hilaren 18an zabalduko dute pediatria berria

Mediku bat gehiago egongo da lanordua osora eta kontsultarako denbora gehiago izango dute

Harreralehengoa lekura pasatu, pediatriarako itxarongela bertan atondu eta horrek margotzea falta da lurretako anbulategiko lanak amaitzeko. Bertako funtzionamendua urriaren 18an aldatuko da; ordutik aurrera umeek kontsulta berria izango dute lurretan.

Behin lanak amaituta, espazio handiagoa eta gela berriak edukiko ditu anbulategiak: pediatriarentzako kontsulta, umeen erizaintzarako gela, batzargela, biltegia eta pediatriarako itxarongela berria atontzen dabilta azken egunotan.

Hiru mediku lanaldi osoan lurretako anbulategian familiako mediku bik dihardute lanaldi osoan, eta bat egunean ordu bian. Hilaren 18tik aurrera hiru medi-

ku egongo dira egun osoako. Jose Luis Balenciaga anbulategiko arduradunak azaldu duenez, laster gutunak bidaliko dizkiete hainbat iurretari, medikua aldatuko zaiela jakinarazteko: "Orain arte lanaldi osoan genbiltzan mediku genituen gure zerrendan, eta oraindik aurrera 1.350 inguru izango ditu bakoitzak".

Hirugarren medikuagaz kontsultak luzeagoak izan ahalko direla aurreikusi dute lurretako anbulategian. Erizainen kontsulta orduak ere luzatuko dituzte aldaketa horiekin. ■ A.U.

Gutunak bidaliko dizkiete hainbat iurretari mediku aldaketaren berri emateko



Anbulategiko behargin bi pediatriako erizaintza gelan.

ATXONDO

Arrazolako egitasmoen berri gaurko herri-batzarrean

Apartamentu sozialen ordenantzaren zirriborroa aurkeztuko dute, eta Anbotoperako planen berri eman

Alokairuko etxebizitza sozialetako lanak hasi dituzte, dagoeneko, Arrazolan. Irailean hasi ziren beharginak bertan egongo diren lau apartamentuak atontzen, eta lau hile izango dituzte lanak amaitzeko.

Arrazolako liburutegian egingo dute batzar informatiboa, 19:00etan

tzeko. Laster apartamentuen banaketa arautuko duen ordenantza amaituta egongo da, eta udalalantzen dabilen proposamena Arrazolako liburutegian aurkez-

tuko dute gaur, 19:00etan. David Cobos Atxondoko alkateak azaldu duenez, "herritarren ekarpenak jasotzea izango da batzarren helburua".

Horrez gainera, gaur arratsaldeko batzarrean, azken hogeita hamar urteotan Anbotope elkar-tea egon den lokalerako udalak duen egitasmoa ere azalduko dute udal arduradunek. Udalaren asmoa apartamentu sozialen azpian aterpetzea atontzea da. Aterpetxera gerturatzen direnentzako eta Arrazolako herritarrentzako Anbotoperena izan den lokalean taberna, jatetxea eta denda jartzea da udalaren asmoa. ■ A.U.

Behin-behineko anbulategia aste bi barru zabalduko dute

Urriaren 18an hasiko dituzte anbulategia zabaltzeko beharrak; lau hile iraungo dute



130 metro karratu dauzka behin-behineko anbulategiak.

Anbulategi zaharra handitzen duten bitartean udaletxe atzeko behin-behineko anbulategira jo beharko dute atxondarrek, hilaren 18tik aurrera. Dagoeneko, azken ukituak ematea baino ez zaio falta anbulategi horri. Zazpi modulugaz egindako eraikina da, eta 130 metro karratu ditu. Barruan, itxarongela, hiru kontsulta eta komuna dauzka.

Anbulategi zaharrak 90 metro karratu dauzka. 160 izango ditu handitu eta gero

Gaur egungo anbulategia (90 metro karratu) baino handiagoa da, beraz, probisonal hau. Anbulategia handitzeko lanen ondoren, 160 metro karratu edukiko ditu behin betiko anbulategiak. Bertan itxarongela bi eta lau kontsultagela egongo dira, pediatria, medikuntza orokorra, erizaintza eta sendaketetarako bana. ■ A.U.



Eskualdeko albisteak,

AUDIOTEKA

BIDEOTEKA

eta gehiago...

www.anboto.org

Durangaldean labur

Hispanitatearen Egunean, 'burrundara independentista'

Urriaren 12an Hispanitatearen Eguna ospatzen da, eta "euskal herritarrei inposaturiko jai egun arrotz hori" salatzeko, urriaren 11tik 12rako gauerdian ordu laurdeneko 'burrundara independentista' egitera deitu du Durangoko txosna batzordeak. 15 minutu horietan ez dute zerbitzurik eskainiko. Urriaren 12an zehar ere hainbat ekintza burutuko dituztela jakinarazi dute txosna batzordeko kideek.

Iñaki Urkizuk banda eta korurako landutako obra lehenengoz entzungai

Bilboko Udal Bandako zuendariordea den Iñaki Urkizuk euskal kantautore eta musika taldeen (Benito Lertxundi, Gorka Knorr, Oskorri, Xabier Madina...) hainbat abestigaz osatutako lana moldatu du banda eta korurako, eta berauek lehenengoz entzuteko aukera bihar, 20:00etan, egongo da, Andra Mariko elizpean, Tabirako musika bandaren eta Durangoko Orfeoiareskutik. Orain ehun urte baino gehiago Sebastien Iradierrek konposatu eta Naohiro Iwai japoniarrak moldatutako *La paloma* ere eskainiko dute.

Dantzarien argazki erakusketa

Gaurtik urriaren 31ra *Durango dantza* izeneko argazkierak erakusketa irekiko dute Durango Arte eta Historia Museoa. Erakusketa 1887tik 1960ra dantza egin zuten durangarren argazkiak ikusi daitezke, Juan Antonio Aromak batutakoak.



ABADIÑO

Babes ofizialeko 69 etxebizitza zozketatu zituzten atzo goizean

Zelaietako probalekuan egin zuten Muntzaratz auzoan eraikitzen dabiltzan etxebizitzaren zozketa

Hiru txandatan zozketatuko dituzte Muntzaratz eraikitzen dabiltzan babes ofizialeko etxebizitzak (uda aurretik egin zuten lehenengo zozketa), eta atzo eguerdian egin zuten bigarren zotz egitea.

Zelaietako probalekuan eta zozketa mahaiaren erdian Jose Luis Navarro alkatea zegoela burutu zuten zozketa. Gobernu taldeko zenbait zinegotzi ere hurreratu ziren etxebizitzaren zozketa bertatik bertara ikustera.

Alkatea, mahai buruan, eta gobernuko zenbait zinegotzi ere bertaratu ziren babestutakoen zozketara

Ume jaioberriak besotan, seme-alaba gazteen ordezkartzan joandako aiton-amonak zein jende gazte asko batu zen babespeko etxebizitza esleitzeko Etxebide Zerbitzu publikoak zuzenduriko Abadiñoako atzoko zozketara.

Berrehun izen zerrendan

Muntzaratz auzoan eraikiko dituzten 69 etxebizitza, zerrendan izena emandako ia berrehun eskatzailen artean banatu zituzten atzo eguerdian. Hamabietan hasi eta ordu laurdenean egokituta zeuzkaten etxebizitza guztiak.

Atzo zozketatu zituzten etxebizitzak eraikitzen gutxi barru hasiko direla, eta eraikuntza lanek 18 eta 24 hilabete irautea aurreikusten dutela jakinarazi zuen Jose Luis Navarro alkateak. ■ I.E.



Herritar asko batu zen atzo eguerdiko probalekuko zozketan.

Argiteria berrizteko lanak finantzatzeko kreditua

Energiaren Euskal Erakundearen diru-laguntzagaz eta soberakinaren atal batezagaz egingo dituzte

Udaleko aurtengo aurrekontu orokorra onartu barik egonik, eta bere berbetan, Energiaren Euskal Erakundeak emandako 50.000 euroko diru-laguntza "ezgaltzeko eta lanak burutu ahal izateko", kreditu aldaketa egitea proposatu zuen Talde Independentienteko alkateak joan zen aste-ko udalbatzarrean: udal kontuaren soberakinaren atal batezagaz finantzatuko dituzte argiteria berrizteko lanen gainerako gastuak (50.000 eurokoa da diru-laguntza, eta 62.000 euro bideratu dituzte soberakinetik).

Jeltzaleek eta Talde Independentienteak egin zuten kreditu aldake-

taren alde udalbatzarrean, eta kontra bozkatu zuten, aldiz, Ezker Abertzaleko lau zinegotziek.

Guztira, 112.000 euroko aurrekontua duten lanak burutuko dituzte Astolabeitian, hilerrian eta San Trokaz plazaren inguruan. Berrikuntzok, "energia aurrezteko ekarriko dutelako", oso garrantzizkotzat jo zituen Jose Luis Navarro alkateak. ■ I.E.

Guztira, 112.000 euroko aurrekontua duten lanak burutuko dituzte 3 zonatan

'Urrijena' ospatzeko gonbita Urkiolatik

Urriko bigarrena izanik, domeka honetan ospatuko dute Urkiolako Santutegian *Urrijena*. Uda amaituta neguan barneratu orduko eskertza egiteko prestatu dute Urkiolan domekarako egitaraua.

Bilboko gotzainak emango du meza nagusia 12:00etan, Gau-Txori abesbatzak emanaldia eskainiko du eta bertsolarien zein dantzarien saioak ere izango dira ondoren, luntxagaz amaitzeko. Domekan, gainera, Urkiolako Santutegian batutakoek omenaldia egingo diote 95 urte bete dituen On Bittor Garaigordobil gotzainari. ■ I.E.

ZALDIBAR

Ume txikiekin euskaraz berba egiten hasteko

Helduentzako tailerra egingo dute hilaren 19an liburutegi zaharrean, udalak antolatuta

Zaldibarko Udaleko Euskara Zerbitzuak eratuta, helduei zuzendutako tailerra burutuko dute urriaren 19an. Helburua ume txikiekin euskaraz berba egin edo komunikatzen hasteko moduak ezagutzea da, azaldu dutenez. Parte-hartzaileek, gainera, liburuxka eta disko bana ere jasoko dituzte,

Tailerra bi ordukoa izango da, eta doan eskainiko dute liburutegi zaharrean

aurrerantzeko egoeretan lagungarri izan dadin.

Izen-ematea

Tailerra bi ordukoa izango da, eta doan eskainiko dute. Saio bakarrekoa izango da; urriaren 19an, hain zuzen ere. Arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara garatuko dute; dagoeneko badago izena emateko aukera, eta urriaren 13an amaituko da horretarako epea. Euskara Zerbitzuan eskatu daitezke informazioa. ■ M.O.

gremioen koordinazioa

urtiaga

Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigoi
erakusketa, salmenta eta ipintzea

Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ez. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak
jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik
larunbatera.
Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta
martitzen gauetan itxita.





Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe
gida



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik
ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak
enkarguz.
Especialitatea: Txuleta errea.



Hotel Lagunetxea

Urkiolako Santutegiaren ondoan
Tel.: 94 465 60 10

Eguneko menua.
Enpresa-bilerak.
Denetariko ospakizunak.
Askariak.

Hemen agertu
gura
badozu,

DEITU

94 621 79 02

BERBAZ >

“Faxismoaren estrategien barruan sartzen da emakumearen kontrako errepresioa”

‘No lloréis, lo que tenéis que hacer es no olvidarnos’ liburuaren egileak dira Edu Barinaga eta Maria Gonzalez



Edu Barinaga eta Maria Gonzalez •

- Barinaga Baleuko ekoiztetxeko produktorea da
- Gonzalez kazetaria da, Durango 1936 kultur elkartearen kidea

Eta bortxaketa ez da emakumeen gorputzak errazten duen ekintza bat. Gure gorputza ez dago prest bortxatua izateko, ezta erretxina olio hartzeko ere. Femenitatearen kontrako erasoak izan ziren; komunitatearen normalizazioaren kontrako estrategia izan zen.

“Femenitatearen eta komunitatearen kontrako estrategia izan zen”

Saturrarango kartzelan emakumeek bizitakoak kontatzen ditu ‘Izarren argia’ Baleukoren pelikula. Donostiako zinemaldian estreinatu dute filma, eta zinema aretoetara hilaren 22an helduko da. Liburua kaleratu dute asteon, filmaren oinarri diren emakumeen testigantzak eta faxismoak emakumeei zuzendutako errepresioaren gainean: *No lloréis, lo que tenéis que hacer es no olvidarnos*.

Esanguratsua da liburuaren izenburua.

Eduardo Barinaga: Filmerako elkarrizketatu genuen emakume batek esandakoa da. Berari entzunda negargura etortzen zaizu. Esan zigun negarrak ez duela ezer konpontzen; egin behar duguna hori zabaltzea dela: ahaztu ez eta ahalik eta jende gehienari gertatutakoa kontatzea. Indarra eta garbitasuna erakutsi zituen, eta esaldi horrek oso ondo islatzen du proiektuaren inguruan daukagun sentimendua.

‘Izarren argia’ filmagaz lotutako liburua da hau. Nondik dator liburua argitaratzeko ideia?

E.B.: Saturrararen egondako emakumeen testigantzak entzunda, historiak barneratu egin gaitu; ezinbestean gizartera zabaltzeko konpromisoa hartu dugu. Filma azkenean fikzioa da, eta testigantza horiek idatzita, liburuan batzea pentsatu dugu, indar gehiago emateko. Maria moduko ikerlari baten laguntzagaz, gainera, puzzle osoari zentzu orokorra ematen saiatu gara; bere sarreragaz demostratu gura dugu Frankismoak hemen egin zuena Europar faxistek egindakoaren aplikazio bat zela. Ideario faxistak pentsatuta zeukan zer paper jokatu behar zuen emakumeak eta zer nolako errepresioa jaso behar zuen.

“Holokaustoa ezagutzen dugu, baina hemen gertatutakoa ez”

“Gerran hil, bortxatu eta mina eman gura izan duen pertsona ezin da lehengo bera izatera bueltatu”

Zelan heldu zara ondorio horretara, Maria?

Maria Gonzalez: Berlinen egon nintzela, bertako artxi-boetan begiratzeko aukera izan nuen, eta han hemen egin barik daukagun eztabaida aspaldi eginda daukatela konturatu nintzen. Faxismo garaiko indarkeria mota guztiak euren izenez onartuta dauzkate, eta faxismoaren estrategia propioa zirela frogatuta daukate. Hemen esaten da kartzeletako emakumeei ilea labur-labur moztea falangisten kontua zela, baina hori Alemaniako estrategiagaz bat dator; hango talde militarrek SSak izan ziren; hemengoak, falangistak.

E.B.: Berandu inoiz ez da izaten, baina errealitate hau duela hogeita hamar urte landu behar genuen hemen. Nik gatzeei galdetzen diet ea

juduen holokaustoa ezagutzen duten, adibidez. Horrek kontuok jakiten ditugu, baina ez dakigu gure etxetik hain gertu zer gertatu den.

Zer giro zegoen kalean?

M.G.: Durangora sartutako Jose Artetxe euskal idazle karlistaren egunerokoan, adibidez, igarri daiteke populazio zibilaren kontrako bortxaketak zer puntutaraino zeuden onartuta. 1937ko maiatza aldera, bere lehengusua Durangoko ospitalean hilzorian zegoela, baten bategaz berbetan geratu zen Artetxe, eta bere emaztea eta lehengusina aurretik zihoa zen. Soldadu bi euren gainera bota ziren, bortxatzeko asmoz. Andre horiek bereak zirela esan behar izan zuen Artetxek, eta militarrez jantzita zihoa zuten. Hori Durangon bertan.

Gizon errepublikazaleen papeari buruz ere idatzi duzu liburuan...

Egia da gizon errepublikarrek askatasunaren alde borroka egin zutela. Baina askatasun hori ez zen emakumeen askatasuna; ez zen euren maite zituzten emakumeen askatasuna ere. Gerra amaitutakoan etxeko indarkeria kasuek, isilpean geratu arren, gora egin zuten. Frontetik datorren gizona, frontea beragaz dakarrela bueltatzen da. Ezin da pentsatu gerran hil, bortxatu eta mina eman gura izan duen pertsona lehengo bera izatera bueltatuko denik.

Zelan laburtuko zenukete egitasmoaren helburua?

E.B.: Memoria historikoari buruz berba egiterakoan batailak, fusilatuak, gerlariak... aipatzen dira, eta gutxitan egiten da berba emakumeei buruz. Proiektu hau guztia emakumearen ikuspuntutik eginda dago. Emakumeen figura aldarrikatu gura dugu; emakume izateagatik bakarrik zigor berezia jaso zutelako emakumeek. ■ A.Ugalde

KULTURA[>]

KARTELA> AURKEZPENA

Bartzelonako diseinatzaile grafiko baten lana Azokarako

Liburuan gordetako berbak anplifikatzen dituen 70eko hamarkadakoak lako disko-jogailu bat da epaimahaiak hautatu duen **Fede Bosch** diseinatzaile grafikoaren karteleko irudi nagusia. Letren bitartez helarazitako mezua: 'Durangoko Liburu eta Disko Azoka 2010eko abenduaren 4tik 8ra'. Azokaren 45. hitzordua gero eta gertuago dugun seinaleak dira.

Bartzelonako publizitate enpresentzat lan egiten duen Fede Bosch diseinatzaile grafiko kataluniarrak lehiaketara aurkeztutakoa da Durangoko Liburu eta Disko Azokako kartela izateko Gerediaga elkarteak izendatu duen epaimahaiak hautatu duen proposamena. Martitzenean, Landako Elkartegian egileak berak aurkeztu zuen 1.300 euroko saria eman dion sorkuntza.

“Irakurri eta musika entzun, biak batera egin daitezkeela erakutsi gura izan dut”

Hilabete bi barru 45. Azoka hartuko duen Landako erakustazokaren aldameneko aretoan egindako agerraldian egileak berak azaldu duenez, Internet bidez jaso zuen Durangoko Azoka iragartzeko kartela aukeratzeko Gerediaga elkarteak deitutako

lehiaketaren berri. Horrela, Durangoko Azokaren inguruko informazioa eta aurreko edizioetako kartelak sarean bilatzeari ekin zion lehenengo eta behin, Bartzelonako diseinatzaileak berak dioenez. Lehiaketara aurkeztu aurretik, Durangoko Azokaren berririk ez zeukala azaldu du irabazleak.

Hasierako zirriborroetan osatu zuen irudia “barrokoagoa” zela kontatu du, kartelaren sorkuntza prozesuari buruz galdetuta, Boschek, eta ondorengo prozesuak eraman zuela irudi sinpleago honetara. Atzealde zuriaren gainean, 70eko hamarkadako dirudien disko-jogailu bat eta gainean liburu bat jasotzen ditu azkeneko kartel proposamenak: “Durangoko Azokaren bi elementuen bateragarritasuna uztartu gura izan dut kartelean”, azaldu du egileak, “irakurri eta musika entzun, biak batera egin daitezkeela erakusteko”.

Aitziber Atorrasagasti Gerediaga elkarteak kudeatzaileak aurkezpenean azpimarratu duenez, guztira 49 proposamen jaso dituzte 45. Durangoko Liburu eta Dis-



“Hasieran osatu nuen irudia barrokoagoa zen, ondoren bilatu dut sinpletasuna”

ko Azoka iragartzeko kartel izateko. Aurkeztutakoetariko hamar Euskal Herriko kanpokoak izan direla azaldu dute aurkezpenean, eta beste hamar Durangaldeko sortzaileek lehiaketara bidalitakoak izan direla azpimarratu.

Gerediaga elkarteak laugarren urtez lehiaketa bidez aukeratu duen Azokaren kartel iragarle izateko parte-hartzaileek bidali dituzten lanak, Durangoko Azokarako Gerediaga elkarteak martxan ipini duen webgunean daude ikusgai: www.durangokoazoka.com helbidean izango dira proposamenak bistara.

Orain lau urte, ordura arte urteetan egiten zuten bezala, Durangaldeko artista bati kartela egiteko enkargua luzatu barik kartela lehiaketa bidez hautatzeari ekin zion Gerediaga elkarteak. Ordutik, urtetik urtera gora egin du parte-hartzaile kopuruak, eta diseinatzaile grafiko eta artisten esparruan gero eta hedatuago dago lehiaketa. Durangaldeko zein eskualdetik kanpoko egileen lanak jasotzen dituzte urtero.

Pedro M^a Basañez arkitektoa eta Arte Ederren fakultateko irakaslea, Ismael Iglesias artista plastiko durangarra, Javier Garcia de la Torre arkitektoa eta Txaro Berriozabalgoitia Gerediaga elkarteak bazkidea izan dira Durangoko Liburu eta Disko Azokarako kartela hautatzeko epaimahaiakide.

‘durangokoazoka.com’ webgunean ipini dituzte aurkeztutako lanak ikusgai

Aurten 45. edizioa du abenduaren 4tik 8rako egunetan Durangoko Liburu eta Disko Azokak, eta Gerediaga elkarteak Aitziber Atorrasagasti kudeatzaileak aurreratu duenez, “hainbat sorpresa” izango da Landako erakustazokan aurten: ordura arte hitzorduagoga dakargun kartela dugu ikusgai, martitzetik. Laster aurkeztuko dituzte gainerako nobedadeak. ■ I.E.

Berba gutxigaz, irudiekin komunikatzen

Interneteko www.fedebosch.com helbidea baliatzen du 2010eko Durangoko Liburu eta Disko Azokako kartelaren egileak, enpresa eta erakundeentzako sortzen dituen irudi korporatibo, logotipo zein bestelako diseinuak erakusteko. Hain zuzen ere, enpresa ezagun batek bere irudia aukeratzeko deitu zuen lehiaketa irabazi ondoren erabaki zuen Boschek diseinugintzara bete-betean dedikatzea. Ordutik, besteak beste, San Ferminetako kartel lehiaketan edo Getxoko marka turistikoaren lehiaketan izan da finalista.

Diseinu grafikoan egin zituen ikasketak, eta freelance moduan jardun ondoren, publizitate enpresentzat egiten du gaur egun lan.



MUSIKA > LEHIAKETA

Hogei musika talde laugarren Danbaka maketa lehiaketarako

Debagoiena, Debabarrena eta Durangaldeko taldeek joko dute Elgetako lehiaketan



Goiena Telebistaren egoitzan aurkeztu dute asteen Danbaka maketa lehiaketa.

Goiena komunikazio taldeak antolatuta eta Anbotok laguntzen duen maketa lehiaketan parte hartu ahal izateko izena eman duten 24 taldeetatik hemeretzi aukeratu ditu, dagoeneko, epaimahaiak. Bere kantak disko batean grabatzeko lehiatuko den hogeigarren taldea entzuleek Interneten emandako botoen arabera aukeratu dute: Bergarako Dark Code taldeak jaso du Interneteko bozketan botorik gehien.

Aldameneko argazkian jasotako Arrasateko ekitaldian, lehiaketaren jarraipena egingo duela aurreratu zuen Anboto astekariak, laguntzaile legez, Danbaka lehiaketaren gaineko informazioa argitaratu emateko.

Eskualdearen ordezkari

Durangaldeko musikariak tartean dituzten lau taldek hartuko dute laugarren Danbaka maketa lehiaketan parte: lehenago ere jardun izan duten Ymotek taldekoek berriro joko dute Espaloian. Maketa lehiaketan lehenengoz hartuko dute parte, bestalde, Yoko Out taldeko durangarrek, Ondarroa eta Berrizko musikariek osatzen duten Xarma taldeak, eta Durango eta Abadiñoko musikariek osatzen duten Doctors Klub taldeak.

Rockaren, metalaren zein bluesaren eraginagaz Durangaldeko taldeok sortutako musikaren erakusleho izango dira laugarren

urtez Danbaka lehiaketako Elgetako Espaloia kafe antzokiko zuzeneko emanaldiak.

Durangaldeko taldeok eta lehiaketan parte hartuko duten Debagoiena eta Debabarreneko gainerako musika taldeek ere zuzenekoak noiz eskainiko dituzten zehaztu barik dago oraindik, baina jakina da urriaren 22an, azaroaren 5ean, 19an eta 26an eta abenduaren 17an izango direla kontzertuak. Lehiaketako finala, berriz, urtarrilaren 14rako dago aurreikusita, Elgetako Espaloian.

Yoko Out, Doctors Klub,
Xarma eta Ymotek
taldeek joko dute

Urri amaieran, azaroan
eta abenduan izango
dira kontzertuak

Zuzenekoetan egindako lanaren arabera aukeratu dute talde irabazleak diskoa grabatzea izango du sari; Debagoieneko talde onenarendako saria eta ikusleena ere emango dituzte.

Oñati, Arrasate, Mutriku, Bergara, Aretxabaleta eta Eibarko musika taldeekin lehiatuko dira udazkeneko maketa lehiaketan Durangaldeko musikariak. ■ I.E.

PINTURA > ERAKUSKETA

X. Durango Uria lehiaketako margolanak ikusgai Ezkurdi aretoan

Urriaren 13ra arte daude euren lanak pintura lehiaketara aurkeztu dituzten 27 parte-hartzaileen koadroak ikusgai

Pintzelkaden lodierari, baliatutako teknikei eta koadroetan jasotako gaiei dagokionez, barietatea, aniztasuna da Ezkurdi udal aretoan ikusgai dauden margolanen ezaugarri nagusia. Durango Uria pintura lehiaketako parte-hartzaileek bidali dituzten koadroak dira urriaren 3tik 13ra bitarteko asteen zeharreko arratsaldetan eta asteburuetan ere Ezkurdi udal aretoan ikusgai daudenak.

Paisaiak dira erakusketan bildutakoetariko zenbait, figuratiboagoak batzuk eta abstrakzioetik gertuago daudenak beste batzuk; kolore grisen gama batez lan dutakoa da herriguneko irudi bat jasotzen duena, kasurako, eta mendialdeko paisaia oso koloretsua agertzen du beste batek.

Ikuspegi horietako bat agertzen dutenen artean, oso hurrekoa egin dakigukeen basoa dago ikusgai, esaterako: lehiaketan bigarren saria jaso duen Airun Piedelobo Arte Ederretako ikasleak egin-

Behealdeko koadroaren egileak jaso du herriko parte-hartzaileen saria

dakoa. Ezkurdi udal aretoko erakusketan badaude ez ohikoa-goak zaizkigun lekuetako paisaiak ere; herriko saria jaso duen Jesus Mari Agirrerren behealdeko argazkiko koadroa, adibidez. Indiako emakumezko talde bat agertzen duen koadroa ere badago besteren artean Ezkurdi aretoan.

Durangaldean bizi izatea edo Durangaldeko Artisten elkarte kide izatea zen lehiaketan parte hartzeko baldintza, eta bigarren hori da Jaime Zamacola gipuzkoarraren kasua: berak aurkeztu duen zezen baten burua agertzen duen koadroa da Durango Uria sari nagusia jaso duena. ■ I.E.



Airun Piedelobo izenagaz sinatutako lanari eman diote bigarren saria

PROGRAMAZIOA > AURKEZPENA

Berrizko Kultur Etxeko urte amaierako egitaraua gertu, eta ezin oparoago

Urria, azaroa eta abendurako Berrizko Kultur Etxetik herritar guztiei egiten zaien eskaintza prest, dagoeneko

Zergatik bizi da basoan Txanogorritxoren amona? umeendako txotxongilo ikuskizunagaz ekin dio udako geldialdiaren ondoren Berrizko Kultur Etxeak ikasturte berriari, eta kultur programazio oparoa aurkeztu dute udazkenegun honetarako.

Hamabost emanaldi jasotzen ditu datozen hiletarako egitarauak

Euskararen Egunagaz bateginda, bertso saio polita abenduaren 3an

2010 urteko udazken-neguko programazioaren eskuorrian, 15 ekitaldi jaso dituzte, guztiak Berrizko Kultur Etxea izango dutenak oholatza. Besteak beste, kantagintzan ibilbide hain emankorra daukan Benito Lertxundi kantari oriotarraren emanaldia izango da, azaroaren 27an.

Musikak legez, antzerkiak eta bertsolaritzak ere izango dute urrian, azaroan eta abenduan Berrizko Kultur Etxean lekurik. Euskararen Nazioarteko Egunagaz bat eginda, bertsogintzak beteko du Kultur Etxea: Amets Arzallus, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Miren Amuriza txapeldunek jardungo dute Maite Berriozabalek emandako gaiekin.

Zinema emanaldiei dago kienez, aldakuntza bi izango dira ikasturte berrian: barikuetan umeentzako egiten den emanaldia ordu erdi atzeratu dute, (18:00etan izango da), eta zapa-tuetan izango dira helduendako film emanaldiak, 20:00etan.


Azaroaren 22tik abenduaren 2ra, bestalde, Euskal Zinemaren Astea, Euskal Herrian ekotziriko bosna film eta dokumental eskainiko dituzte Berrizko Kultur Etxean. ■ I.E.

Zapatuetan, 20:00etan emango dituzte helduendako filmak

LITERATURA > URTEURRENA

Biblioteka publiko dinamiko eta biziak hamar urte lurretan

2001eko urtarrilean ipini zuten liburutegia martxan, eta herritarren erdia da gaur bazkide



Zortzi eta hamabi urte artekoen irakurketa klubaren saioetako bat.

Ikasturte berrirako Udal Bibliotekan prestatu duten egitarauaren berri eman eta liburutegiak hamarkada bete duela jakinarazteko prentsaurrekoa eskaini dute Iñaki Totorikaguena alkateak eta Ziortza Onaindia bibliotekariak asteon. Hamarkada honetan lurretako liburutegian dagoeneko egonkortu diren ekimenak dira abendura arterako antolatu dituztenetarik asko, onarpen handia dutenak.

Liburu biltegia baino askoz gehiago: gune bizi eta dinamikoa

Hamar urteotako helburu berbera dute, "iurretarrei biblioteka kontzeptu berria helaraztea", Onaindiaren berbetan: "Liburu biltegi bat legez ez, gune bizi eta dinamikotzat ulertzea liburutegia". Horretarako, adin tarte bakoitzari egokitutako ekimenak anto-

URRITIK ABENDURA BITARTEKO EGITARAUA

Bularretik mintzora

Gurasoek eta umeek irakurketaz elkarregaz gozatzeko gunea; urriaren 22an hasita, barikuetan, hilean behin

Umeendako ipuin-kontalariak

Urriaren 15ean eta 29an eta azaroaren 26an eta 29an, 20:00etan

Helduendako ipuin-kontalariak

Urriaren 29an, azaroaren 26an eta abenduaren 17an, 20:00etan

8-12 urte bitarteko umeendako irakurketa kluba

Irakurketa atsegin duten Lehen Hezkuntzako ikasleen taldea; hilean behin, martitzenetan

Making

Hamalau urtetik gorako gazteentzat, urrian eta azaroan

Munduko emakumeen literatur tailerra

Urriaren 4an hasita, hamabostean behin, 18:15ean

Helduen irakurketa kluba

Liburuak komentatu eta iritziak konpartitzeko gunea; hilean behin

Munduko paisaiak (erakusketak, berbaldiak, musika...)

Urriaren 25etik azaroaren 17ra arteko egitaraua

latuko dituzte 2010-2011 ikasturtean ere, fidelizazioa lortzeko.

Hamargarren ikasturtea abiatzeko, Totorikaguena alkateak agerraldian azaldu duenez, "egoera ekonomikoak behartuta, aurrekontuaren %24ko murrizketara"

Aurrenkontuan %24ko murrizketa jasan arren, eskaintza mantendu da

GEURE DURANGALDEA

Jose Luis Lizundia,
Euskaltzaina



Ordizia 7- Durango 0

Aurreko asteburuan Bilboko egunkari baten gehigarriak *Ordizia 500 años de una gran feria* izeneko artikulu interesgarria zekarren. Bera irakurrikeran zenbait gogoeta bururatu zitzaizkidan, hala nola, nola konpontzen dira giputzak horrelako marketinga egiteko? Nola lortu du hain ospe handia, ez bakarrik Gipuzkoan, Euskal Herri osoan, Goierriko hiri historiko horrek bere asteroko merkatuarekin? Alderantziz, zergatik du hain hedadura eskasa Durangokoak? Konparazioan gure uria galtzaile, eztabaida barik.

Hasteko ez da egia, kronikariak dioen bezala, Euskal Herriko merkaturik zaharrena denik. Kazetariak dioenez 1512an Gaztelako erreginak eman omen zion ahala urteko eguazten guztietan merkaturia egiteko. Gure urikoa, ordea, Bizkaiko jaunak "hiribildutasuna" berretsi zuenean, 1372ko urtarrilaren 20an; hau dio orduko erdararen "Do vos más, que hayades por mercado cada semana el sábado, en el lugar do hasta aquí fue usado...". Beraz, Durangokoa 140 urte lehenagokoa da Ordiziakoa baino; hori, gutxienez, testuan ageri denez aurreragotik egiten zela nabarmentzen baita.

Konparaziorik ez du, zoritxarrez, Ordiziakoaren garrantzi modernoak eta gureak. Arrazoiak: 1. Ordiziako Udalak batzorde berezi bat du horretarako; 2. Batzorde horretan parte hartzen dute herriko merkataria eta ostalariek; 3. Gipuzkoako Aldundiak, Goimen izeneko mendineka-zarritza elkargoak-gure "Urkiola" gisakoa-ere sustapen iraunkorra egiten dio merkaturari, baserriarren mesedetan; 4. Kutxa eta bankuek ere urteko zenbait feriatan babesa ematen diote; 5. Orainsutik, hiper eta horrelakoen indarretik baserriarrei laguntzeko zerbitzu bulegoa jarri dute merkaturik etxera erosketak bidaltzeko; 6. Urtean zehar sei azoka-feria berezi antolatzen dituzte: artzainena, ardo eta gaztarena, Erdiarokoa, artisautzakoa, euskal jaiena eta Gabonetakoa; eta 7. Ordiziargizarteak dedikatzen dion ahalegin, babes eta marketinga. Gurean, baserriarrak umezurtz. Ondorioz: Ordiziak 7 eta Durangok 0.

egokitu beharizan du Bibliotekak. Horrek, "gauzak birplanteatu eta imajinazioa baliatuz zerbitzuak zelan mantendu" pentsatzera bultzatu ditu kudeatzaileak. Eskura aurrekontu murriztagoa eduki arren, bisitari konpuruaren zein maileguan utzitako material kopuruetan, esaterako, hazkuntza izan dute aurtan.

2001eko urtarrilean "hutsetik hasi" zirenetik, 2010 urtean herritarren erdia (2.000 lagun) Bibliotekako bazkide edukitzera ailegatu da, pausuz paus, lurretako liburutegi publikoa. Bibliotekak eskaintzen dituen askotariko zerbitzuak ezagutu eta bazkide egin diren kopurua %11 igo dela aurtan azpimarratu du Ziortza Onaindia arduradunak. Bestetik, liburutegiak maileguan utzitako material kopuruak ere %32

egin duela gora jakinarazi dute asteon egindako prentsaurrekoan.

Bibliotekara hurreratu diren erabiltzaile berrietako asko atzerriarrak direla kontuan hartuta, eurentzako harrera hobetzea da aurrerantzean Bibliotekan landu gura duten esparruetako bat: sortzen dituzten materialak beste hizkuntza batzuetara itzultzea. Finean, herriko bibliotekan eurei zuzenduta antolatzen dituzten ekimenetara txikitzen gerturatutako iurretarren bizitzako garai guztietan biblioteka gertuko eta erabilgarri izatea da jomuga. ■ I.E.

2001eko urtarrilean hasi zirenetik, 2.000 bazkide erakarri dituzte

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

URRIAK 8 22:00etan
XIII. GAU ELEKTRONIKOA
Sarrera: 10euro. (+ flyer 6euro)

URRIAK 14 21:00etan
POPGUN (NORWAY) + THE QUIBBLES
KONTZERTUA. Sarrera: 5euro.

URRIAK 21 20:00etan
SICK OF IT ALL + MADBALL + ANAL HARD
KONTZERTUA. Sarrera: 20/24euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300


SONRISAS Y MAGIA
Mag Lari (Catalunya)

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Urriak 11 • 20:00etan

HITZ
Liburu

11:34 601 07 76 Artekale, 14 Durango



Kepa Aginako

“Antenak arautzeko ordenantzak landu beharko lituzkete udalek”

Telefono mugikorrentzako estaldura ematen diguten antenek gure osasunean eragin ditzaketen kalteen inguruko foroa antolatu zuten irailaren 30ean, Durangoko Agenda 21en barruan. Kutsadura elektromagnetikoaren eta antenen inguruko legediari buruz egin zuten mahai-inguruan parte hartu zuen Jose Alberto Arrate abokatuak.

Zelan hasi zinen gai honetan sakontzen?

Orain 12-13 urte bezero bat etorri zitzaidan gai honegatz: bere etxeko teilatuan antena bat ipini gura zuten, eta horren kontra zegoen bera. Berrogeitik gora auzokide ziren, eta azkeneko pisuan bizi zen bera; erradiazioa oso gertu zeukan. Horrela hasi ginen borroka horretan, kasua irabazi egin genuen, eta hortik aurrera beste hainbat auzitan jardun dugu.

Gaur egun igartzen da eremu elektromagnetikoen gaiaren inguruko ardura jendeagan. Zer kalte eragin dezaketegure osasunean?

Ikerlariek urteak daramatzate gaiaren inguruan beharrean, eta ikerketen emaitzak oso argiak

dira. Telefonía antenak orain hamabost bat urte hasi ziren ipintzen, baina ehunka daude gaur egun. Jende asko buruko min ez izaten da kexu, baina, horrez gainera, ondorio biologikoak ere sortu ditzake kutsadura elektromagnetikoak.

Zelula kaltegarriak arinago ugaltzen direla entzuten da...

Oso inportantea da hori; urteetan garatzen jardun duten BioIniciative izeneko programaren ondorioetako bat zelula kaltegarriak uhin horien eraginez arinago ugaltzen direla da.

Antenez bakarrik ez, wi-fi sistemak antzeko kasuak dira?

Antzekoak dira, bai. Azken batean guztiek jariatzen dituzte uhin elektromagnetikoak. Kutsadura-

ren jatorria bat ala bestea izan, erradiazioak dira; mikrouhinak, antena batek, mugikorrak edo wi-fiak sortuak izanik ere, denak dira erradiazio ez-ionizanteak. Gainera, wi-fi oraindik hazkundearen dauden umeak dauden lekuetan egoten da sarritan, eta euren organuak oraindik oso delikatuak dira. Ikerketa askok gomendatzen dute kontuz ibiltzea.

Zuk zeuk, ez duzu telefono mugikorrak erabiltzen orain.

Ez, lehen asko erabiltzen nuen, baina hainbeste ikerketa, minbizi eta abar ezagutu ondoren, mugikorrak barik konpontzen naiz.

Zer da kaltegarria, telefonoz berba egitea bera, aldamenearan edukitzea, piztuta egotea...?

Mugikorrak kobertura txikia badauka buruagaz egiten du antenaren funtzioa, eta hortik sortzen du erradiazioa. Esaten dutenez, mugikorrak hamar minutuz berba eginda buruan daukagun barrera hematoenkefalikoa iragaten da. Bestalde, jende askok poltsikoan eduki-

“Ezkurdi inguruko eta Traña-Matienako auzokideak antenekin arduratuta daude”


“Jende askok poltsikoan eramaten du eta erradiazioak inguruko organuetara pasatzen dira”

San Fausto Jaia



Urriaren 9tik 17ra

2010





Durango

> anboto



Ondo igaro jaia!

2010



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Durangoko Jaiak EGITARAUA

URRIAK 9, ZAPATUA

- 10:30:** Moto-ibilaldia Durangaldetik. Irteera: Montorreta poligonoko 7. pabilioitik.
- 11:00/18:00:** Motor eta kotxe klasikoek erakusketak Santa Ana plazan.
- 11:30:** Ezkurdin hasita, kalejira erraldoekin.
- 12:00:** Broken Brothers Brass Band Alde Zaharrean, Patxikotxuri ongietorria egiteko. Txino Txapelketaren hasiera San Fauston.
- 12:30:** Patxikotxuren igoera, kalejiran, Andra Maritik Udaletxeko plazaraino.
- 13:00:** Txupinazoa eta jaien hasierako pregoi ofiziala, Jon Saroberen eskutik.
- 16:00/20:00:** Haurrendako parkea Ezkurdin. Gaia: *Western*.
- 16:30:** Tiragoma lehiaketa Ezkurdin.
- 17:00/20:00:** Udal Ludoteka kalean: txapa eta makilaje tailerrak Ezkurdin.
- 19:00:** 'Mono A - mono B' helduentzako kaleko antzerkia Capitán Maravilla konpainiarekin, Santa Ana plazan. Baita Broken Brothers Brass Band taldearekin kalejira ere Alde Zaharretik.
- 20:00:** Durangoko Orfeoia eta Tabira musika bandaren kontzertua Andra Marian.
- 20:00/23:00:** 'Dibertitzeko eta zeure burua babesteko errezetak, ideiak eta aholkuak'. Santa Ana plazan.
- 21:00:** Zezen suzkoa Ezkurdin.
- 21:30:** Batukada Alde Zaharretik, Afrika Baj Yay taldearekin.
- 23:00:** Kontzertuak Landako Gunean: Surfin Kaos, Eraso! eta LOR. Nuevo Talisman orkestra, Ezkurdin.

URRIAK 10, DOMEKA

- 07:00:** Diana txistulariekin (martitzen, eguazten, zapatu eta domekan ere bai)
- 07:30:** 'Zezenak dira' dultzaineroekin (martitzen, eguazten, zapatu eta domekan ere bai).
- 10:00/14:00:** Haur parke espaziala Ezkurdin.
- 10:00/14:00:** Rokodromoa eta tirolina, Landako Parkean. Udal Ludoteka, Ezkurdin.
- 10:00:** XXXVI. San Fausto Marrazki Lehiaketa San Fausto auzoan.
- 11:00:** Kalejira txistulariekin. XI. Mikologia Erakusketak, Merkatu Plazan.
- 12:00:** Txino txapelketaren hasiera San Fauston.
- 12:00/14:00:** Arku tirorako gunea Landako Parkean. Ponian ibiltzeko aukera, Landako Parkean.
- 12:30:** Trikitixa Alde Zaharrean, Txiri Txirirekin.
- 13:00:** Bilbainadak: Los 5 Bilbainos, Andra Marian.
- 17:00:** Toricos de la Navarreriarren entzierro txikia, Alde Zaharrean.
- 18:00:** Kalejira Alde Zaharretik, Nesken fanfarreakin.
- 19:30:** Gazte Diskojaia, DJ Fer eta Angirekin Ezkurdin.
- 20:00:** 'Camping remove' kale antzerkia Trapu Zaharra taldearekin, Santa Ana plazan.
- 22:30:** Golden Apple Quartet taldearen kontzertua Andra Marian.

URRIAK 11, ASTELEHENA

- 17:00:** Gurutze Gorriaren ate irekiko jardunaldiak Ezkurdin. 19:30ean simulakroa.
- 20:00:** 'Sonrisas y magia', Mag Lariren ikuskizuna, San Agustin Kultur Gunean.
- 21:30:** Durangoko taldeak Andra Marian: Hilbete, The Mockers, Zebel, Flores de Carton.

URRIAK 12, MARTITZENA (TXIKIEN EGUNA)

- 10:30/13:00:** Txu-txu trenea Landako Gunetik.
- 10:30:** Marmitako Txapelketa, Merkatu Plazan.
- 11:00:** Kalejira txistulariekin, Alde Zaharrean.
- 11:00/13:00:** Haurrentzako tailerrak Ezkurdin.
- 11:00/14:00:** Circomotik Zirkuko jokoak Ezkurdin.
- 11:30:** Umeentzako tailerrak Udaletxeko plazan.
- 12:00:** Erraldoiak eta buruhandiak Alde Zaharrean.
- 13:30:** Txupinazo txikia eta pregoia Udaletxeko balkoitik. Ondoren, ohorezko aureskua.
- 15:30:** Abesti herrikoiak, Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldearekin, Merkatu Plazan hasita.
- 16:30/19:30:** Circomotik Ezkurdin.
- 17:30:** 'Ezagutu bidegorria', haur-motorren kontzentrazioa Andra Maritik Landako Gunean.
- 18:30:** Txokolatada Landako Gunean. Deabru Beltzak taldearen haurrentzako dantzaldia Landako Gunean.
- 20:00:** Lost Soul. Hip hop ikuskizuna, Santa Anan
- 22:30:** Goserren kontzertua Ezkurdin.

URRIAK 13, EGUAZTENA (SAN FAUSTO EGUNA)

- 10:00/14:00:** Itsasoko haur parkea Ezkurdin.
- 10:30/13:00:** Txu-txu trenea Landako Gunetik.
- 11:00:** Kalejira txistulariekin. 'Se te va la olla' sukaldeko tresneria berrerabiliz egindako jokoak Ezkurdin.
- 12:00:** Paella Txapelketa, San Fausto auzoan.
- 12:30:** Txalaparta Udaletxeko plazan. Ohorezko Aureskua eta Artopilen banaketa. Ondoren, 'Dantzari dantza' Kriskitin dantza taldearekin eta 'Larrai dantza'.
- 14:00:** Bazkaria hirugarren adinekoentzat Landako Gunean Rex taldearekin.
- 16:30:** Sugarri fanfarrea, San Fausto auzoan.
- 17:00/19:00:** Udal Ludoteka kalean: feltrozko eskulanen tailerra Ezkurdin.
- 17:30:** Txokolatada eta jolasak San Fausto auzoan.
- 18:30:** Kalejira Alde Zaharrean, Always Drinking Marching Band taldearekin.
- 19:30:** 'Balkoitik balkoira' bertso saioa: Andoni Egaña, Unai Iturriaga eta Etxahun Lekue arituko dira bertsoan Udaletxeko Plazan.
- 20:00:** 'Gladys mercado y sus mariachis' taldearen kontzertua Andra Marian.
- 20:30:** 'Pantxika Lamur', Zirika Zirkus helduentzako antzerki ikuskizuna Santa Ana Plazan.

URRIAK 15, BARIKUA

- 22:30:** Bertso saioa San Agustin Kultur Gunean. Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Miren Amuriza eta Julio Soto.
- 23:00:** Rhequiem, Antidoto eta Violadores del Verso taldeak Landako Gunean.
- 00:00:** DJ Makala Pinondon.

URRIAK 16, ZAPATUA

- 10:00:** Kalejira Tabira musika bandarekin San Fausto auzotik.
- 11:00:** Kalejira txistulariekin. Nekazaritza Azoka Merkatu Plazaren inguruan.
- 11:00/14:00:** Txirrista erraldoia eta laberintoa txiki eta nagusientzat Ezkurdin.
- 11:45:** Tabira musika bandaren emanaldia J.M Barandiaran Egoitzan.
- 13:00:** Afrikako erritmoak M'Lomp taldearekin Udaletxeko plazatik. Haurren moztar kalejira eta sari banaketa Andra Marian.
- 16:00/19:00:** Txirrista erraldoia eta labirintoa txiki eta nagusientzat Ezkurdin. Udal Ludoteka: sukaldaritza tailerra Ezkurdin.
- 18:00:** 'Kresalaren usaina', Potxin eta Patxin pailazoen haur-ikuskizuna Santa Ana plazan. Kalejira Sugarri fanfariarekin.
- 18:30:** III. Patata Tortilla Txapelketa Merkatu Plazan.
- 19:00:** 'Dibertitzeko eta zeure burua babesteko errezetak, ideiak eta aholkuak' Andra Marian.
- 19:30:** Kale antzerki ibiltaria eta musikala Andra Maritik: 'La Troupe', Les Enfats taldea.
- 20:30:** Abba klonikoen kontzertua.
- 23:00:** Fabulosa orkestra Ezkurdin. Baita Powerage eta Doctor Deseoren kontzertua Landakon.

URRIAK 17, DOMEKA (INGURUGIRO EGUNA)

- 10:00/14:00:** Abentura Haur Parkea Ezkurdin. Elkartasun jokoak Ezkurdin, Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta.
- 10:00:** Bizikletaren Jaia Fray Juan de Zumarragan (8-14 urte artekoentzako).
- 11:00/14:00:** Ecoxoc kotxe eroak Ezkurdin.
- 16:00/19:30:** Kondaira Ludoteka Ezkurdin.
- 16:30/19:30:** Udal Ludoteka kalean: birziklapen tailerra Ezkurdin.
- 17:30:** Eriz Magoa Santa Ana plazan.
- 18:30:** Jotak: Voces Navarras, Andra Marian.
- 19:00:** Anari eta Sorkun Pinondon.
- 19:30:** Biznietos de Celedon fanfarrea eta Kilimixka hankapaluak.

URRIAK 22, BARIKUA

- 19:30:** Abstratosfera Teatroran 'El juego de la acacia' ikuskizuna San Agustinen.

URRIAK 23, ZAPATUA

- 20:00:** XVI. Txistu kontzertua Landako Gunean. Baita 'Hermanos de Baile', dantza ikuskizuna San Agustinen.

URRIAK 24, DOMEKA (XLV. UMEEN EUSKAL JAIA)

- 12:00:** Talde guztiak elkartuko dira Merkatu Plazan. Umeen euskal jaien parte hartuko duten taldeen kalejira.
- 17:00:** Alardea dantza taldeekin Ezkurdin.
- 18:00:** 'Anaki', Logela Multimedia konpainiaren haurrentzako antzerki lana San Agustin Kultur Gunean.



oiZ

M.Z.O ITURGINTZA
GASA BEROGAILUAK
ERAIKUNTZA S.L.

Erakusketa-Denda: Plateruen Plaza, z/g • 48200 DURANGO • Tel.: 946 810 693 • Faxa: 946 818 545
Biltegia: UAI Industriagunea • 2C-48215 IURRETA • Tel.: 946 816 051 • Faxa: 946 818 545



ALRI

barne dekorazioa

Mikeldi 6, 48200 Durango • 94 681 38 95

URRIAK 9, ZAPATUA

10:30: San Fausto jaietako esku pilota jaialdia San Fausto pilotalekuan. Antolatzailea: Durangoko Pelotazale Elkartea.
17:00 Lehen mailako emakumezkoen saskibaloia partidua Landako kiroldegian: Tabirako Baqué-Astigarraga.

URRIAK 10, DOMEKA

11:30: XXVII. San Fausto Zesta Punta Txapelketaren finalerdiak. Antolatzailea: Ezkurdi Jai Alai Zesta Punta Eskola eta Peña Ezkurdi.
12:00: Errugbi partidua. Ohorezko B maila:

Durango Ilarduya - Barcelona Universitario. Arripausuetako errugbi zelaian.

URRIAK 11, ASTELEHENA

11:00/17:00: BBK Skate Eskola Ezkurdin.
17:00: Skate erakustaldia Ezkurdin BBK Skate Eskolarekin. (Euria egiten badu, San Jose Maristak ikastetxekeo patioan).

URRIAK 12, MARTITZENA

11:00/13:00: Umeen Xake Txapelketa Andra Marian. Izen-ematea: txapelketa hasi baino ordu bat lehenago Andra Marian.

Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea. Izen-ematea: txapelketa hasi baino ordu bat lehenago Andra Marian.
17:30: Arte Martzialen erakusketa eta kalejira Alde Zaharrear. Antolatzailea: Karate Nin Jutsu Wado-Kan Kirol Taldea.

URRIAK 13, EGUAZTENA

12:00: Front Ball I. Saria Ezkurdiko frontoian. Antolatzailea: Munduko Pilota Batzarra Elkartea.
16:30/20:30: Xake txapelketa federatu gabekoentzat, Ezkurdiko aterpean. Antolatzailea:

Larrasoloeta Xake Taldea. Izen-ematea: txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago.
17:00 Futbola, hirugarren maila: Durangoko Kulturala - Zalla

URRIAK 17, DOMEKA

11:30: XXVII. San Fausto Zesta Punta Txapelketaren finala Ezkurdi Jai Alai Pilotalekuan.

Kirol egitaraua

URRIAK 8, BARIKUA

18:00: Luntxa.
19:00: Txupinazoa Sapuetxe gaztetxean.
21:00: Txupinazoa txosnetan.
22:00: Musikaz Blai.

URRIAK 9, ZAPATUA

11:00: Herri-bazkaria.
16:00: Erromeria txosnetan.
19:00: Kalejira.
22:00: Kontzertuak: Rebel roots, B.E.K. (Beti Etxetik Kanpo) eta Material Rechazado

URRIAK 10, DOMEKA

19:00: Kontzertu lasaia: Mariano Band.

URRIAK 11, ASTELEHENA (GAZTETXE EGUNA)

14:00: Bazkari gaztetxeroa.
17:00: Umeen jolasak.
20:00: Kontzertu lasaia: Kuntur Lee Hankahutsik.
00:00: Jai arrotzei intsumisia.

URRIAK 12, MARTITZENA

22:00: Kontzertuak: The Mockers, The Little John and Howling Diabrus.

URRIAK 13, EGUAZTENA (SAPUEN EGUNA)

17:00: Erreka jaitisiera.
20:00: Ipuin kontalaria.

URRIAK 15, BARIKUA

22:00: Kontzertuak: Sei Zoro, Dalton-darrak eta Kilaua.

URRIAK 16, ZAPATUA

19:00: Punk poteoa: Sapuetxetik karpata.
22:00: Kontzertuak: Lagunita mental, Bajo presion.

URRIAK 17, DOMEKA

18:00: Hitzaldia: Drogak, kapitalismoa eta politika.
21:00: Kontzertua: Ekaitz bakarlarria.

Gaztetxeko egitaraua

URRIAK 8, BARIKUA

20:30: Kalejira Zaparrada batukadarekin, Andra Maritik.
21:00: Txupinazoa txosnetan.
22:00: Kontzertuak: Estricalla, Des-Control, lheskide.

URRIAK 9, ZAPATUA (GAZTE EGUNA)

12:30: Trikipoteoa.
14:30: Gazte bazkaria Pinondon.
17:00: Sorpresa.
19:00: Kalejira eta ekitaldia.

22:00: Kontzertua: Anger, Governors eta Ze Esatek!

URRIAK 10, DOMEKA

11:00: Azoka ekologikoa.
12:00: Umeentzako tailerrak.
17:00: Bertso saioa. Ondoren, trapezio ikuskizuna.

URRIAK 12, MARTITZENA

19:00: Poteoa orkestrarekin.
22:00: Kontzertua: Alerta, Disorders eta Shock Asalto.

URRIAK 13, EGUAZTENA (SAN FAUSTO EGUNA)

12:00: Paella lehiaketa.
14:00: Bazkaria Pinondon.
17:30: Erreka jaitisiera.

URRIAK 15, BARIKUA

20:00: Tortilla txapelketa Pinondon.
22:00: Kontzertua: Trastorno, Atom Rhumba eta KOP.
00:00: Eszenatoki txikian: DJ Makala.

URRIAK 16, ZAPATUA (AMNISTIAREN ALDEKO EGUNA)

13:00: Kantu poteoa.
19:00: Zirko ikuskizuna Alde Zaharrear. Gauean disfraz lehiaketa.
21:00: Kalejira brindisa.
22:00: Erromeria Luhartz taldeagaz.
00:00: Playback lehiaketa.

URRIAK 17, DOMEKA

19:00: Kontzertua: Anari eta Sorkun.

Txosnetako egitaraua



Ana Camarero

• apaindegia •

FOTODEPILAZIOA

- Besapeak _____ 58 euro
- Ingleak _____ 65 euro

Goienkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • 48200 Durango



AMAYA

AUTO KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 INDUSTRIAGUNEA (Orozketa errepidea)
48215 Iurreta / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

Tel.: 94 681 21 23 • Faxa: 94 620 38 18 • email: oficina@amayaautoreparaciones.com • www.amayaautoreparaciones.com



IKERFER

primitiba kinielak egunkariak aldizkariak

Ermodo 25 behea. Durango
Tel. 94 681 05 66

Juan Ramon Azkonizaga

Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzailea:



EGUNEKO TOKIA TABIRA EGOITZA

- Bonan bonako laguntza
- Medikuz zerbitzuak
- Animazioa
- Psikologia eta erizaina
- Lorategia eta ibiltzeko lekua
- Asteburuko zerbitzuak

Infixaurondo, 27 • 48200 DURANGO (Bizkaia) • Tel. / Fax: 94 466 88 52
e-mail: residenciatabira@yahoo.es



Egitarau zabala antolatu dute aurten Durangoko jaietarako. Txupinazoa urriaren 9an eguerdiko 13:00etan jaurtiko dute, Udaletxeko balkoitik, eta aurten Jon Sarobe dantzariak irakurriko du pregoia. Jaietako ekitaldiak martxan jarrita, urriaren 17ra arte ondo pasatzeko aukera ugari izango dira.

San Fausto egunez, urriaren 13an, ohorezko aureskua dantzatu die udal ordezkariak, eta jende ugari biltzen duen Artopilen banaketa egingo dute ostean, Udaletxeko plazan. Ondoren, Kriskitin dantza taldeak berreskuratu duen *Platilo soinu* eta *Larrain dantza* dantzatu dute.

Nobedadeen artean, urriaren 9an, urriaren 12an eta urriaren

Durangon zegoen tradizioa berreskuratuz, suzko zezenak irtengo du Ezkurditik

Txupinazoagaz, jai giroa nagusituko da Durangon

Jon Sarobe dantzariak irakurriko du jaietako pregoia

16an, gaueko 21:00etan, Durangon zegoen tradizio bat berreskuratuz, suzko zezenak irtengo du Ezkurditik.

Zezenak dira ekimena, berriz, Santa Ana plazara bueltatuko da aurten, indusketa lanak amaitu dituztelako. Lege aldaketagaz, 16 urtetik gorakoek bakarrik parte hartu ahalko dute sokamuturrean, eta ez 14 urtetik gorakoek, iaz arte legez.

Txosnaguneak ere hainbat ekitaldi prestatu ditu Durangoko jaietarako. Txupinazoa gaur jaurtiko dute Zapaburu gazte konpartsa kideek. Besteak beste, kontzertuak eta lehiaketak antolatu dituzte Pinondon atondu duten gunean.



Kepa Aginako



Gaupasa bat jaietako kartela diseinatzeko

Xabier Legina zornotzarrak irabazi du kartel lehiaketa; Juanjo Ziarrustari eskaini dio kartela

Gauko 21:00etan hasi eta goizaldeko 06:00ak arte ordenagailu aurrean egon zen Xabier Legina zornotzarra kartel lehiaketarako lana egiten. Epea amaitu aurreko gaua zen. Epea aurreratu zutela konturatu ez, eta ia "zezenak harrapatu" zuela azaldu du zornotzarrak.

Disenatzaile grafikoa da Legina, eta kartelean egindako irudian sokamuturra margoitu du Artekalen. Iaz inguru horretan

ikusi zuela kontatu du, eta tarte polita iruditu zitzaioela kartelera-ko, Santa Ana arkua ere ikusten delako: "Durangoko alde zaharra asko gustatzen zait, gainera".

Orain dela hamalau urte ere Sanfaustoetako kartela egin zuen zornotzarrak: "oroitzapen ona daukat, nire lehenengo kartela izan zelako". Jaietako kartelak deigarria izan behar duela dio: "berezia, jaiak legez". Aurtengoa bere laguna izan zen Juanjo Ziarrustari eskaini gura dio.

EROSKI Jai zoriontsuak opa dizkizuegu durangar guztioi!

EROSKI ABADIÑO • zurekin!

TOLDOS LECE^SL

Kataide industrialgunea, 14.pabiloia (Musakola auzoa)
Tf.: 943 792 383
Telefona: 943 770 445
20500 ARRASATE

Mallabien auzoa, 6
Telefona: 94 681 76 19
48215 IURRETA

Inork baino hobeto egiten diogu eguzkiari aurre

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com



Kepa Aginak 
ARGAZKIAK

Komentu kalea, 21
Durango (Bizkaia)
TLF: 946 817 441
www.kepaaginako.com

2010

SAN FAUSTOAK



**MOMOTXO
TABERNA**

Plateruen plaza, 12
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO



PLATERUENA
Durangoko Kale Antzokia

Menu berezia urriaren
9,10,12,13 eta 16an

Goizaldera arte bertan
aurkituko gaituzu

**GOZATU
SAN FAUSTO
JAIK!**

2X1 telepizza®

Probatu gure pizza gainerrea
asteko egun guztietan. (lokaletan)

Askatasun etorbidea, 25. Tel.: 94 621 81 86

**katerin
ardoak
inaki
uribe**

saltsan

- Eguneko menuak
- Asteburuetan menu bereziak
- Delikatessena
- Ardoteka

kurutziaqa 40 48200 DURANGO T/F 946200427 saltsan.com

**San Fausto
jai zoriontsuak**

Askatasun etorbidea, 13 • Tel.: 94 681 52 78 • DURANGO

**PAULANER
DURANGO**

11:00etatik 03:00etara
astelehenetik igandera

Bizkaia Kalea 31 • 48200 Durango (Bizkaia) • Tel.: 94 603 35 96

- Boloak: 8 amerikar pista
- Askotariko inportazioko goragardoak
- Ospakizunak
- Karta zabala: plater konbinatuak, entsaladak, hanburgesak,...

GORRBEA

taberna **DURANGO**

Gosariak goizeko 6:00etatik aurrera

**KAFEA KREMAREKIN
PINTXOAK**

Zeharkalea Tel.: 94 681 89 38

ALPINO TABERNA

Goienkale, 8
Tel.: 94 681 34 32

48200 DURANGO
(Bizkaia)

Pol-Pol

TABERNA

gozariak goizeko 7etatik aurrera

**Txiki-Otaegi
enparantza**

**MESOI
BERRIA**

Bokarak
Kazuelak
eta Pintxoak

Kalebarria, 1 DURANGO
Tel.: 94 603 03 41

**ondo pasa
jaietan!**

Kalebarria, 1 DURANGO
Tel.: 94 603 03 41

TABIRA ETXEA

• Pintxoak • Bazkariak • Afariak

Tabira Kalea 33 • Durango
Tel.: 94 681 02 41

goragorria

konfiteak - delikatessak

- pintxoak
- razioak
- gosariak
- ogia
- egunkaria
- izozkiak...

...eta askoz gehiago!
hurbildu eta gozatu!!

JAIETAN bokarak eta ikuskizun bereziak (kuntur-lee eta dj-ak)

**ARRUTIA 2 bi
TABIRA DURANGO**
94 681 13 84

Hogeita hamarretik gora talderen doinuak

Durangaldeko hainbat taldek joko du, kanpokoek ez eze



Argazkiko Zaragozako Violadores del Verso hip-hop taldea da San Fausto jaietarako gonbidatuetakobat: Landakoguneko oholtzatik eskainiko dituzte aragoiarrek euren berba zorrotz eta ohiz kanpoko erritmoak.

Hogeita hamar kontzertu baino gehiago eta hainbat kalejira Alde Zaharrean 2010eko Sanfausto jaiei dantza eta kantu erritmoa ipintzeko

Violadoren del Verso laukotearenaz gainera, beste hip hop emanaldi bi ere biltzen ditu Durangoko jaietako aurtengo egitarauak: urriaren 9an, bertso hip-hop emanaldia izango da Txosnagunean; urriaren 12an, berri, Lost Soul ikuskizuna, 20:00etan Ezkurdin.

Guztira hogeita hamarretik gora kontzertu, eta hainbat kalejira izango dira datozen egunetan Durangon: New Orleanseko erako jazza egiten duten Broken Brother Brass Band eta Always Drinking Marching Band, zein Afrikako erritmoak eskainiko dituzten Afrika Baj Yay eta M'Lomp taldeek egingo dituzte Alde Zaharrean zehar kalejirak. Tradiziozko euskal doinuak eskainiko ditu, bestalde, Txiri-Txiri talde durangarrak, urriaren 10ean.

Durangaldekoak dira jai egitarauak jasotzen dituenetarik asko; Hilbete, The Mockers, Flores de Cartón, Shock Asalto, Disorders, Trastorno, Luhartz, Iheskide, Zebel, Durangoko Orfeoia, Alerta, Lor eta Tabira Musika Banda, esaterako. Gainera, Estricalla, Gorden Apple Quartet, Des-kontrol, Anger, Governors, Ze Esatek!, Surfin Kaos, Eraso!, Gose, Atom Rhumba, KOP, Anari, Powerage, Sorkun eta Doctor Deseok ere joko dute Sanfaustoetan.

XVII. Marmitako Txapelketa Merkatu plazan


Txapelketan jardun ahal izateko izena eman dutenetatik 40 bikotek hartuko dute 2010eko Marmitako Txapelketan parte: zozketa publiko bidez egokitu zaie parte hartzea. Babesleek ekarritako olioagaz, patatekin eta hegaluzeagaz marmitakoa prestatuko dute, bikoteka. Umeen Egunean, urriaren 12an da -10:30ean Merkatu plazan- tradizio den txapelketarako hitzordua. Hamazazpigarren aldia da Marmitako Txapelketa antolatzen dutena.

Berrogei bikote inguruk hartuko dute 2010eko Marmitako Txapelketan parte

Saltsan catering enpresako arduraduna den Iñaki Uribek hamazazpi urte daramatza txapelketako epamahaikide lanetan; sukaldari durangar talde baten bultzadagaz txapelketa Askatasun etorbidean lehenengoz egin zutenetik. Jaietako ohiturazko ekitaldi bilakatu da orduetik Marmitako Txapelketa, eta urtetik urtera konpetentzia eta kalitatea ere handiagoa dela esan digu beste lau lagunekin aurtengo epamahaikide lanetan jardungo duen Uribek. Eskua hartuta diote askok errezetari, baina zorteak ere badauka zeresanik.

Uriberi galdetu diogu zertzuk diren marmitako gozoa prestatzeko kontuan hartu beharrekoak. Plateraren itxura zaindu behar ei da, lehenengo eta behin; ez urtsu ez koipetsuegi, patata eta barazkiak ondo zatituta... Zaporeari dagokionez, hegaluzearen, patataren, piperraren eta saltsaren zaporeen konbinazio egokia eta gatz puntu aproposa lortzea ei dira gakoak.

Errezetari eskua hartua diote urtero-urtero parte hartzen duten sukaldariek



HIPERSIMPLY

Durango



**Jai
Zoriontsuak!**



**GEHIAGO
merkeago**

Montorreta Poligonoa 1, ST. TS-3. Elorriko errepidea. Durango

Etxeko txikienek aurten ere badute plana

Ezkurdin eskaintza berezia izango dute umeek

Txikien eguna izango da umeentzako ekitaldien artean esanguratsuen aurten Sanfaustoetan. Urriaren 12rako etxeko txikientzako ekitaldi ugari eratu dituzte, eta txupinazoa eta pregoi txikia ere botako dituzte umeek, eguerdiko 13:00etan, Udaletxeko balkoitik. Aurretik, tai-

Urriaren 12rako, Txikien Egunerako, ekitaldi ugari eratu dituzte; txupinazoa eta pregoi txikia ere botako dituzte Udaletxetik, 13:00etan

Ierrak prestatuko ditu Iñurri skaut taldeak, eta Larrasoloeta taldeak xake txapelketa antolatuko du. Egunean zehar txu-txu trena ibiliko da kalez kale, gainera. Arratsaldeko 17:30ean, 'Ezagutu bidegorria' izeneko haur-motorren

kontzentrazioan parte hartu ahal izango dute, 2 urtetik 5era bitartekoek. Ondoren, txokolatadagaz indarberritu eta Deabru Beltzak taldearen haur-kantaldira batuko dira jaiagaz segitu gura dutenak, Landako Gunean.

Eguneroko eskaintza

Gainerako egunetan ere ez da umeentzako ekitaldirik faltako. Ezkurdi ingurua izango da gune nagusia, batzuetan haur parkeagaz eta beste batzuetan udal ludotekagaz. Haur parkea desberdina izango da aldi bakoitzean: westerna, espaziala, itsasokoa edota abenturazkoa, esaterako.

Zezen suzkoak txikien korrikaldiak eragingo ditu hilaren 9, 12 eta 13an. Poniak ere irtengo dira kalera hilaren 13an, eta 11n berriz BBK Skate Eskola ekarriko dute Ezkurdira.

Jaien ondoren, XLIV. Umeen Euskal Jaia eratu dute Tronperri eta Txoritxu Alaiak.

Puntista gazteak Ezkurdiko errege izan guran

San Fausto Zesta-punta Txapelketaren XXVII. edizioa martxan dago jadanik, eta jai egunotan, partidu erabakigarriak jokatuko dituzte Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan. Afizonatu mailako pilotariak ikusteko aukera aparta, beraz. Hilaren 10erako programatu dituzte finalerdiak, eta finalak hurrengo domekarako, hilaren 17rako. Bestalde, esku-pilota jaialdia ere eratu dute pilota eskolakoek, urriaren 9an ospatuko dena San Fausto auzoko frontoian.



San Fausto Zesta Txapelketako finalak hilaren 17rako programatu dituzte

Aurten, Front-ball modalitateko saria izango da nobedadea, hilaren 13an.

Pilotaz gainera, aipatzekoa da herriko hainbat talde euren ligetan murgilduta dabilzala, eta norgehiagoka batzuk egitarauan sartu dituzte. Hala gertatzen da Kulturalagaz futboleak, Tabirako Baquégaz saskibaloian eta Durango Ilarduyagaz errugbian.

Beste hainbat kirol taldek ere egin dute eskaintza, lehiatik kanpora bada ere; arte martzialak 12an eta xakea 16an dira horren erakusle. Más Curvas elkarteak hilaren 9an aterako ditu motorrak kalera, ibilaldia eta erakusketagaz. Herri-kirolen zita ere ezin da falta jaietan; urriaren 13an izango da hori, arratsaldeko 18:00etan. Arku tiroketa eta tiragoma txapelketek zein skate saioak, kirolera hurreratzeko beste modu bat eskainiko dute.



SEGUROS BILBAO	Grupo CATALANA OCCIDENTE
Askatasun Etor. 1 48200 Durango Tel.: 94 681 17 79 Faxa: 94 620 19 23 email: agarro@segurosbilbao.com	
Aitor Garro Mendiagarai	

AGIRREZABAL DURANGO C.P. 48200 e.aguirrezabal@euskalnet.net	elektrotresnak Tel.: 94 620 22 84 Fax: 94 620 22 84 Juan Antonio Abasolo, 10	zikloak Tel.: 94 681 03 88 Fax: 94 620 22 84 fco. ibarra, 7 mikeldi
---	--	---

makawa
moda eta kirolak
askatasun etorbidea 5 • Durango • 94 681 74 83

CHAYES
TAPIZAK
MOKETAK
ALFONBRAK
GORTINAK
LARRUKIAK
LANERAKO BABES-JANTZIAK
INDUSTRIAKO HORNIGAIK
DENDA ETA ERAKUSKETA:
Erretentxu, 28 behea
DURANGO
Tel.: 94 681 11 80
Faxa: 94 620 09 38

HITZ
Liburu
14:01 681 07 76 Artekale, 14 Durango



Jai giroa gauetik egunera ekarri guran, besteak beste, Azoka Ekologikoa antolatuko dute

gainera, aurten jai giroa gauetik egunera ekarri guran, jaietako bi domeketan txosnak zabalik egongo dira. Egunez jaia bizitzeko apustu horretan kokatu dute urriaren 10ean antolatuko duten Azoka Ekologikoa.

Herritarren parte-hartzea sustatzeko helburuagaz paella eta tortilla lehiaketak prestatuko dituzte txosnagunean.

Zapaburu gazte konpartsari ongietorria egingo diote. Eurak izango dira aurten pregoia irakurtzeko ardura izango dutenak. Pinondon Bultza eta Zapaburu konpartsen bi karpa jarriko dituzte. (www.durangokotxosnak.org)

Txosnagunean jaietarako prest

Zapaburu Gazte Konpartsak irakurriko du txosnaguneko pregoia

Durangoko jaietan txosnaguneak bere egitaraua antolatzen du. Urtero legez, ahalik eta egitarau aberatse-

Paella eta tortilla txapelketa antolatuko dituzte

na eta oparoena antolatzen saiatu direla azaldu digute txosna batzordekoek. Zapaburu konpartsak egitarauko hainbat ekitaldi antolatu ditu. Ohiko ekimenez

Jaietan kantatzeko abestia Txosnagunean

Kantuaren berbak Igor Elortzarenak dira eta musika Mikel Nuñezena

Jaietan denen ahotan egongo den *Pantxike* abesti sarkorra sortu dute Igor Elortza bertsolariak eta Mikel Nuñez musikariak. laz esan zioten txosna batzordekoek Mikeli abesti bat sortzeko, baina denbora barik zebiltzanez, aurtengo utzi zuten. "Durangaldeko jendeak parte hartzea

zen asmoa. Abesti alaia eta dantza egitekoa izatea", azaldu digu musikariak. Ekimenean eskualdeko hainbat lagunek parte hartu dute. Ehiar Uriartek (baxua), Kimetz Zenitagoiak (gitarra eta koroak), Uxue Alonso eta Gorka Bidaurrezaga "Potsi"-k (ahotsak), Nekane Coellok (flauta), Alex Alonsok (bateria) eta Mikel Nuñezek (pianoa, akordeoia eta organoa). Yoko Out musika taldearen lokalean batu dira musikariak abestia grabatzeko. "Nahiko gaitza izan da, herriarendako egin behar den abestia delako eta denen gustua asetzea gaitza delako".

Abestiaren egileak azaldu duenez, kanta alaia eta dantza egitekoa sortzea zen asmoa



Launa plus Ondua

Bodegas Launa Arabar Errioxa

www.bodegaslauna.com
info@bodegaslauna.com
 Tel.: 94 682 41 08

altzariak
gandarias

Etixerako dekorazioa

Ermodo kalea, 13-25
 Tel.: 94 620 26 64
 DURANGO

Arkotxa kalea, 8
 Tel.: 94 681 07 22
 DURANGO

anboto

Durangaldeko usaina ezin deusugu transmititu, baina Durangaldea ontzun, ukitu eta ilustoko...

anboto komunikabideak

ALMACENES ARRASATE

TIEN 21



Intxaurrondo, 12 behea
Tel.: 94 681 34 85
48200 DURANGO

Kataide Industriegunea, pab.3 • 20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34 • Fax: 943 77 13 13



2 URTES

1000
b/min
6 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA ALF-1106

295 € **espes**

2 URTES

1200
b/min
7 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA L-7712S

348 € **FAGOR**

2 URTES

1200 b/min
8 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA WD-1281MD

390 € **LG**

2 URTES

1200 b/min
8 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA ALF-2812

455 € **FAGOR**

2 URTES

200
x
60
x
60

A+ Sailkapen energetikoa

HOZKAILUA FFJ-4825X

682 € **FAGOR**

LABE ETA BITROZERAMIKA

2 URTES

A Sailkapen energetikoa

PLAKA IF-3S/AX
ETA LABEA 6H-860AX

~~Lehen 1.209 €~~
Orain 950 €

FAGOR



2 URTES

144
x
55
x
60

A+ Sailkapen energetikoa

HOZKAILUA AFD-146

290 € **espes**

2 URTES

1000 b/min
7 Kg

A+ Sailkapen energetikoa

LEHORGAILUA FSB-570B

365 € **FAGOR**

EVA MAHAI ZABALGARRIA
+ 4 AULKI VENECIA

110
x
70

599 €

2 URTES

INDUKZIOA HK-633220-FB

450 € **AEG**

2 URTES

A+ Sailkapen energetikoa

LABE PIROLITIKOA B-3781-5-M

450 € **AEG**

2 URTES

2000
x
600
x
600

NO FROST

A+ Sailkapen energetikoa

HOZKAILUA KGN-39A77

740 € **BOSCH**

2 URTES

A+ Sailkapen energetikoa

ONTZI-GARBIGAILUA

375 € **AEG**

2 URTES

A+ Sailkapen energetikoa

GARBIGAILUA WAE 24472FEP

450 € **BOSCH**

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. MCCko kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagutu galtzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA ERAMANGO DA	MERKATU TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELTATUKO DA	GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELTATUKO DIZUGU	+dendak-eko "DURANGO" TXARTELA ERABILGARRI

“Zazpi urtegaz egin nuen lehen aurrekua”

Jon Sarobe dantzariak irakurriko du aurten-go Sanfaustoetako pregoia. Zazpi urtegaz dantzatu zuen lehenengoz aurrekua jendaurrean, eta harrezkero ez da geratu.

Aurten zeu izango zara Sanfaustoetako pregoilaria. Zelan hartu duzu albistea?

Ez nuen itxaroten eta pozik nago. Hasieran duda egin nuen, baina nitaz gogoratu izana polita da.

Zelakoa izango da pregoia?

Ez da luzea izango, jendea jaiei ekiteko gogotsu egongo da-eta.

Noiz hasi zinen dantzari?

Zazpi urtegaz egin nuen lehenengo aurrekua jendaurrean. Orain 50 urte dauzkatz; harrezkero joan dira urte batzuk.

Urteak joan dira, bai, baina oraindik bazabiltza.

Gustatu egiten zaizkit euskal dantzak, eta pozik ibiltzen naiz. Pena emango lidake uzteak, baina, egia esanda, apurka-apurka, hasi gara apurtxo bat gutxiago ibiltzen. Dena dela, ahal dudan artean, hobeto ala txartoago, dantzan jarraitzea gurako nuke.

Dantza aitzakia hartuta, hainbat herri ezagutu duzu.

Gehienbat dantza taldeekin ibili naiz. Tronperrigaz ez hainbeste, oso gaztea nintzelako, baina Kriskitinekin dezente mugitu gara; Iparraldean, esaterako. Aurrekuagaz, batez ere, Bizkaian

eta Gipuzkoan ibili naiz; Araban ere bai, baina gutxiago. Kataluniara eta Aragoira ere joan izan naiz.

Erromara ere bai.

Balendin Berrio-Otxoaren kanonizazioa izan zenean joan nintzen. Egun mugituak izan ziren; hotelean taxia hartu eta alde batetik bestera ibili nintzen, orain aurrekua hemen, ondoren han...

Noiz jarduten duzu gusturen dantzan?

Gehien gustatzen zaidana taldean Ezpatadantza egitea da. Jende gehiagogaz ibiltzen zara dantzan, eta besteekin parekatzen saiatzen zara. Baina, duda barik, aurrekua da gehien egin dudana.

Artopiletan ere arituko zara?

Baietz suposatzen dut. Pregoilariak udal arduradunekin egon behar duela eta abar esan

“Erroman, Balendin Berrio-Otxoaren kanonizazioan, geratu barik ibili ginen, han eta hemen aurrekuak dantzatzeko”



da, baina suposatzen dut ariko naizela. Gainera, Kriskitin dantza taldeagaz ere konprometitu naiz, baten bat falta zaiela-eta, *Platillu soinu*a dantzatzeko.

Zelakoa da dantzaren egoera Durangaldean?

Neskak badabiltza, baina mutilak gutxi. Ez da oraingo kontua, betiko istorioa da. Kriskitin itzelezko lana egiten dabil, ikastaroak antolatzen eta gaztetxoak trebatzen. Neu ere zortzi urte dauzkaten sei laguneko talde bategaz nabil, baina seigaz ezin duzu taldea sortu. Beharbada ohar bat bidaliko dugu ikastetxeetara gazteak gonbidatuz eta ea talde bat sortzeko moduan gauden.

“Apurka-apurka hasi naiz hara eta hona gutxiago ibiltzen, baina ahal dudan arte dantzan ibiltzea gustatuko litzaidake”

“Neskak badabiltza dantzan, baina mutilak gutxi. Hala ere, Kriskitin lan handia egiten dabil ikastaroak antolatzen”



ALLUITZ MOTOR, S.A.



Comercial AUDI
Estanislao Labairu, 3
Telf.: 94 621 73 27
Fax: 94 620 10 75
48200 DURANGO



Comercial VW / Taller
Alluitz, z/g.
Telf.: 94 620 20 04
Fax: 94 620 09 98
48200 DURANGO

tzen du gordeta, eta inguruko organuetara pasatzen dira erradiazioak. Pentsa, horma bat igerotzen badute, gorputzean ere sartzen dira erradiazioak. Mugikorra asko erabiltzen badugu, asko pasatzen dira.

Durangeldean ezagutzen duzu kasuren bat?

Bai, Durangon bertan Ezkurdi ondoan antena asko daude, eta inguruan bizi den jendea oso kezkatuta dago. Traña-Matienan ere polemika handia egon zen antenak etxean ondoan ipini zituztenean: auzi bat egon da bertan, eta auzotarrek irabazi zuten. Uste dut badagoela gaierikiko kezka Durangeldean.

Auzokide batek salaketa ipinita, aukera handiak ditu irabazteko?

Hainbat sententziatan oso argi geratu da kasu askotan ez dela behar den adostasunik egon antena bat ipintzeko. Beste kasu batzuetan gaitzagoa da, ez dagoelako arautegirik, edo Estatuko arautegi orokorrak erradiazio handia baimentzen duelako.

Legeak behar beste muga ipintzen du, esaterako, kilometro karratuko antena kopurua zehazteko?

Oso une garrantzitsua da bizi duguna. Indarrean dagoen arautegia oso zahar eta permissiboa da, eta operadorei askatasun handia ematen die. Europako Parlamentuan eta beste instantzia batzuetan, baina –Gaztela Mantxan, esaterako–, lege zorrotzagoak sortzen hasi dira, herritarrek gehiago babesteko. Gehiegizko erradiazio mailak zelan zehaztu aldatzen du legediak, eta borroka nagusia da permissibitate horregaz amaitu eta ahalbideturiko emisioen kopurua jaistea.

Uda aurretik Eusko Legebiltzarrean egon zinen, aditu legez, galdarak egin eta erantzuteko. Politikariak interesatuta daude?

Orain hilabete bi egon nintzen Legebiltzarrean, eta interes handia zegoen. Kontua da Euskal Herrian ez daukagula geure legerik, eta inportantea litzatekeela lege garantista bat.

Udalek zer egin dezakete antenen auzian, zer dago udalen esku?

Dena dago euren eskuetan, eta oso gai garrantzitsua da. Antenak, baimenik barik eta edozein modutan hasi ziren ipintzen Estatuan: eskoletako patioetan, plazetan eta abar. Jendea bere kezak aurkeztera udaletara joaten zen, eta zenbait udaletan –Andaluzia eta Levanten, esaterako–, ordenantza garantistak hasi ziren indarrean ipintzen. Erradiazio kopuru legezkoak eta distantzia minimoak zehazten zituzten ordenantza horietan. Hamar-hamabi urteko auzi batzuek Auzitegi Gorenean amaitu dute orain, eta auzitegiak agindu du potentzia jaitsi eta distantzia mugak zehazten dituen ordenantzak eratze beharra.

Zenbat antena daude muga?

Lege estatalak 450ean ipintzen du muga, eta ordenantza garan-

tistak 0,1ean: asko da lau mila eta bostehun aldiz txikiagoa izatea. Konpainiek, udalek hori zehazteko eskumenik ez daukarela esaten zuten, eta borroka latza eduki dugu horregatik. Horri buruz hiru sententzi kale-ratu ditu Auzitegi Gorenak, eta bertan adierazten du baietz, udalek badutela muga horiek ezartzeko eskumenik.

Antenak ezartzeko lizentziak eskuratzeko, beraz, aipatutako muga horiek bete behar dituzte konpainiek?

Bai, eta baldintza horiek guztiak ordenantzan egongo dira jasota. Estatuan 30.000 antena daude, eta horietariko %60k ez dauka lizentziarik: udal horiek ez dakite batzuetan ez non dauden, ez zein erradiazio botatzen duten... Diru asko mugitzen duen kontua da antenena: 6.000 euroko irabazi garbia ematen du bakoitzak egunean. Hori 30.000gatik biderkatzen badugu, pentsatu... Irtenbidea da, udalek jakin dezatela euren lurretan zenbat antena dauden, non dauden kokatuta, eta gutxinaka, datu epidemiologikoak batzen joatea; hau da, lo egiteko zailtasunak dituen jendearen kezak dauden, zer minbizia kasu dauden... Herritarrek babes-tuta egotea.

Interesa badago, uste duzu izan litekeela Durangoko Udalean antena mugikorren inguruko halako ordenantza bat osatzea...?

Oso inportantea litzateke, foro hau antolatu den legez, udala ordenantza prestatzeaz konzientziatzen hastea.


ANTENEN MAPA

Eztabaida piztu denik ezin ukatu. Baina non daude antenak? Arreta handirik jarri ezean, gaitza izan ohi da ikustea. Alboko mapa honetan Espainiako Industria Sailaren arabeko eskualdeko antena ofizialak agertzen dira; guztira, 48. Izan daiteke baimenik bako gehiago ere egotea; ordenamendu faltak ez du kopuru zehatza ematen laguntzen. Aipagarria da Durango inguruan batzen den antena estazio multzoa. Durangoko Udaletik esan digutenez, Agenda 21eko foroan ordenantza bat sortzeko prozesua martxan jarri dute, urte amaierarako proposamen bat edukitzeko asmoz.



Kepa Aginako

48 antena instalazio daude une hauetan Durangeldean. Herri-rik herriko zenbaketa eginez, Durangon dago kopuru handiena: bederatzi. Lurretako etxe orratzean ere lau daude pilaturik.



PLATERUENA

PLATERUENA URRIA

2010 EGITARAU

www.plateruena.net

07 OSTEGUNA



ANTZERKIA

**CUADROS DE AMOR
Y HUMOR, AL FRESCO**

TXINTXAUN KOLEKTIBOA (Berriz)

22:00etan, Sarrera: 3€

22 OSTIRALA



MUSIKA KONTZERTUAK

**KEROBIA
+ ARIMA SUTAN**

22:00etan, Sarrera: 5-8 €

08 OSTIRALA



GAUELEKTRONIKOA

IKER UNDERGROUND (PLATERUENA/Piston Rec.)

RUBEN COSTAS (PLATERUENA)

KHRIS RIOS (MALAPE/BLUM RECORDS)

GARY DF (Electronicdreams/HOF REC.)

22:00etan, Sarrera: 10 € (+ Flyer 6 €)

29 OSTIRALA



OROIMEN EKITALDIA

AGURRIK GABEAK III

20:00etan, Sarrera: DOAN

14 OSTEGUNA



MUSIKA KONTZERTUAK

POPGUN (Norway)

+ THEEE QÜIBLEES

21:00etan, Sarrera: 5 €

30 LARUNBATA



DANTZALDI IBILTARIA

AIKO ERROMERIA

19:00etan, Sarrera: DOAN

21 OSTEGUNA



MUSIKA KONTZERTUAK

**MADBALL
SICK OF IT ALL
ANAL HARD**

20:00etan, Sarrera: 20-24 €

31 IGANDIA



MUSIKA KONTZERTUAK

**PERKELE
AGRESSIVE COMBAT
DOUBLING BOYS**

21:30etan, Sarrera: 12-15 €

SARRERAK ESKURATZEKO MODURIK ERREZENA: www.plateruenasarrerak.eu

kantuaren kantoia
berbaldi musikatuak

AZAROKO OSTEGUNETAN
iluntzeko 20:00etan

azaroak 4
IMANOL UBEDA

azaroak 11
AIORA RENTERIA

azaroak 18
RAFA RUEDA

azaroak 25
XABI BANDINI

AZAROAN DATOZENAK: 5 ALICE & THE BLACK FEET 6 THE SPARTEENS 12 JOSEBA TAPIA 13 MICAH P. HINSON + CENTROMATIC
19 OREKA TX 26 ARMYARMA 27 ZEA MAYS



PLATERUENA KAFE ANTZOKIA - Landako etorbidea, 4A-48200 Durango - Tlf: 946 030 100 - kultura@plateruena.net - www.plateruena.net

KIROLAK >

Munduko trinketistarik onenak batuko dira Abadiñoko Tornosolon

II. Nazioarteko Trinkete Txapelketa jokatu dute astelehenetik zapatura; horrez gainera, gomazko paletako onenek jardungo dute lehian: Villegas anaiak, Fusto eta Muñozen aurka



Loquillo, Rober Uriarte eta Waltary, hirurak lehiatuko dira datorren astean Abadiñoko Tornosolo trinketeen.

Tornosolo trinketeak makina bat pilota partidu hartuko ditu datorren astelehenetik zapatura. Alde batetik, II. Nazioarteko Trinkete Txapelketan lehiatuko dira euskal selekzioa eta Argentina, Txile, Uruguay eta Venezuelakoa, Munduko Pilota Batzarrak antolatu duen txapelketan. Bestetik, Durangaldeko Amankomunazgoak, eskuz binakako beste txapelketa bat antolatu du bertako pilotariak Waltary eta Loquillo lako izarrekin nahastuko dituen. Azkeneko gailur moduan, martitzen eguerdian, gomazko paletako munduko lau pilotaririk onenak elkarren kontra lehiatuko dira Abadiñoko trinketeen.

Gomazko eta larruzko paletan argentinarrak faborito argiak dira

Amankomunazgoak antolatuta, Loquillo eta Waltary lako pilotariak ere lehiatuko dira

Nazioarteko Trinkete Txapelketa eskuz, gomazko paletaz —emakumeetan ere bai— eta larruzko paletaz jokatu dute. Oraindik ez dute jakinarazi Euskal Selektzioak bikoteak nortzuk osatuko dituzten, baina direnak direla, gogor behar egin behar dute gomazko eta larruzko paletan Gaston Intxausti eta Joseba Bilbao argentinarren erregetza hausteko. Orain urte bi Txilen jokatu dute lehen aldian erraz nagusitu ziren.

Emakumeetan, aldiz, txapelketa parekatua aurreikusita daiteke, eta Euskal Selektzioak baditu txapela janzteko aukerak. Ligaxkakako partiduak egunero

17:30ean hasiko dira; baita martitzen, eguen eta barikuan 10:30etik aurrera ere. Finalak zapatuan 17:30ean hasiko dira.

Bestalde, astelehenean 20:00etan Uriarte eta Antxia abadiñarrek Gonzalez berriztarren eta Agirreren kontra jokatu dute; martitzenean 13:00ak inguruan, Waltary eta Ugarte Cabelloren eta Loquilloren kontra ibiliko dira. Finala bariku iluntzean jokatu dute.

Amaitzeko, martitzenean 12:00etan Villegas anaiak Fusto eta Muñozen kontra jokatu dute gomazko paletan. Lau argentinarrak espezialitateko onenak dira. ■ J.D.

Berriz lehenengo garaipenaren bila irtengo da gaur, Berrizburun

Berrizko futbolariak ez dute denboraldia ondo hasi ohorezko mailan. Hiru jardunalditan puntu bi batu dituzte, eta sailkapenean azken bosgarrenak dira. Laugarren jardunaldiko neurketa gaur iluntzean jokatu dute, Ugeragaren kontra etxean, eta denboraldiko lehenengo puntuak batu eta sailkapenean postu batzuk gora egitea izango dute helburu.

Lehen jardunaldian bana berdindu zuten San Pedoren zelaian. Bigarrenean Basurtok hiru puntuak eraman zituen Berrizburutik (1-2), eta joan zen astean Apurtuarteren kontra berdindu egin zuten. ■ J.D.

Lurretakok eta Zalduak ondo hasi dute liga

Lehenengo erregionalean hiru jardunaldi joan direnean, lurretakok ez daki oraindik porrota zer den. Zalduak bat galdu eta beste biak irabazi egin ditu. Ondorioz, futbol talde biak sailkapeneko goialdean daude liga hasiera honetan.

Zaldua orain arte golik gehien sartu duen taldea da: hamaika gol. Etxeko partidu biak 4-0 irabazi ditu Ibarsusi eta Umore Onaren kontra. Lekeition hiru sartu zituen, baina etxekoek lau bider zulatu zuten zaldibartarren atea.

Lurretakok 0-3 irabazi zion Berriatuari lehenengo jardunaldian. Harrezkero, partidu bitan beste hainbeste gol sartu eta lau puntu batu ditu. ■ J.D.

Sukia errugbi eskolara batzeko deialdia DRTk

Errugbian jokatu zein jolastu gura duten gaztetxoek Sukia errugbi eskolara batzeko deia egin die Durango Rugby taldeak. Sei urte baino gehiagoko gaztetxoak batu daitezke, mutiko zein neskatok. Errugbi eskolaren helburua gaztetxoak errugbira zaletzea da, modu entretenigarrian.

1997tik 2000. urtera jaiotakoek eguazten eta ostiraletan entrenatzen dute Arripausuetako zelaian, 17:30etik aurrera. 2001etik aurrerako gaztetxoak, berriz, ostiraletan elkartzen dira, ordu eta toki berean. ■ J.D.

San Fausto txapelketa finalista bila, etzi

Domekan, 11:30etik aurrera, erabakiko da urriaren 17ko finala nortzuk jokatu duten

Domekan, 11:30ean hasita, XXVII. San Fausto Zesta Txapelketako finalerdia jokatu dituzte. Lehenengo partiduan Andoingo Iturbide II.aren eta Bailleoren kontra lehiatuko dira; bigarrenean, Beitia eta Txomin Aretxabaleta eta Ubillaren aurka.

Final-laurdenetan, Beitia eta Txominek 30-26 menderatu zituzten Markinako Arbe eta Salegi. Berriatuako Aretxabale-

tak eta Ubillak emaitza berdinarekin kanporatu zituzten Gernikako Bidaburu eta Onaindia.

Egun aldaketa

Bestalde, Munduko Pilota Batzarraren binakako zesta txapelketako finalerdia zapatu-rako zegoen aurreikusita Durangon, baina, antolatzaileek jakinarazi dutenez, egun bate atzeratu dute; beraz domekan jokatu dute, 17:30ean. ■ J.D.



Orain hile eta erdi inguru hasi zuten txapelketa. Juanra de la Cruz

Hiru txirrindulari berri batu dira kadeteen taldera

Sei txirrindularirekin hasi da entrenatzen Ciclos Iturriaga-Autos Elorrio nesken kadete taldea ; iazko proiektua sendotzea gura dute



Egunotan Berrizko belodromoan pistako denboraldia prestatzen ari dira.

Emakumeen txirrindularitza bultzatu guran, iaz Ciclos Iturriaga-Autos Elorrio kadete mailako txirrindulari taldea sortu zuen lurretako Emakumeen Bira ziklismo kirol elkarteak. Anboto Komunikabideak laguntzaile duen taldeak hainbat lasterketetan parte hartu eta garaipenak ere lortu zituen, batez ere, Ziortza Isasiren bitartez. Aurten, iaz hasitako ibilbide itxaropentsuari jarrai-pena ematea dute helburu.

Aurtengo taldea sei txirrindularik osatzen dute. Hiruk iaztik jarraitzen dute, eta kadeteen bigarren urtean ibiliko dira: Ziortza Isasi elorriarra, Aiala Amesti mallabiarra eta Maite Deza ermuarra dira iazko esperientzia baliatuz taldea gidatuko dutenak. Beste hiru txirrindularik estreinako urtea izango dute: Olatz Agorria zornotzarrak, Saioa Agirrebeitia abadiñarrak eta Goiatz Argoitia durangarrak.

Asteon hasi dira entrenatzen Berrizko belodromoan, eta abenduan pistako hainbat las-

terketatan parte hartuko dute: Challenge Gipuzkoan, Anoeta belodromoan, eta Challenge Bizkaian urtarriletik otsailera, Berriz, Trapaga eta Zallako belodromoetan.

Martxoan errepideko denboraldiari ekingo diote. Iaz legez aurtan ere Euskaldun Torneoan parte hartuko dute eta Euskal

Herritik kanpora ere ibiliko dira: Gaztela Leonen, Kantabrian eta Errioxan, esaterako. Pistako lasterketetan Ziortza Isasi izango da taldeburua. Besteak beste, iaz Pistako Euskadiko Txapelketa irabazi zuen.

Zaletasunari eustea helburu Iazko denboraldiaren balantze positiboa egin du Patxi Torregrosa lurretako Emakumeen Bira ziklismo kirol elkarteak: "Taldea egonkortzea dugu helburu. Egunez egun hobetzen joatea eta apurka-apurka errendimendua hobetzea gura dugu".

Torregrosaren berbetan kadeteetatik gazte mailarako jauzian txirrindulari askok bizikleta uzten dute: "Zaletasunaren txingarra piztuta mantentzea ere gura genuke; hori lortuta, pozik geundeko". Hiru txirrindularik hau dute kadeetako azken urtea. "Lurretan edo beste talde batean, bizikletan jarraitzea da garrantzitsua". ■ J.D.

Liga hasi baino ez, eta Sasikoa puntu premian

Lehenengo hiru neurketak galdu dituzte eta, gainera, 19 gol egin dizkiete

Liga hasi besterik ez, eta dagoeneko puntu beharrean dago Sasikoa. Inoiz baino talde gehiagok maila galduko dutela kontuan hartuta, hasieratik puntuak batzea komeni da eta orain arteko hiru neurketak galdu dituzte.

Okerrena da partidu guztiak erraz galdu dituztela. 19 gol jaso

Durangoko taldeak Aretxabaleta jasoko du domekan, Landako kiroldegian

eta hiru bakarrik sartu dituzte. Domekan Aretxabaleta jasoko dute Landako kiroldegian. Giputzak ere ez dabilta euren onenean, baina neurketa bat gutxienez irabazi dute.

Derbia euskal ligan

Euskal ligan derbia jokatu dute Mallabiak eta Kurutziagak. Lehenengoak orain arteko neurketa biak irabazi ditu. Gainera, joan zen asteburuan 13 gol sartu zituzten Gernikari.

Kurutziagak, aldiz, bitik bi galdu ditu: Sasikoaren kontrako derbia eta joan zen asteburuan Tolosalaren kontrakoa. ■ J.D.

Agustin Alkorta
•Futbol entrenatzailea



Tradu(a)ktorea

Behin batean bazen entrenatzaile portugaldar bat hemengo Ligara heldu zena. Orduan, Barçak erabaki zuen Sir Bobby Robson fitxatzea eta honen eskutik heldu zen gure gaurko protagonista, Jose Mourinho. Bere beharra laguntzailea eta, batez ere, traduktorea izatea zen. Baina heldu eta segituan igarri zitzaion pertsonaia berezia zela. Hain berezia, ezen Robsonek Barçatik alde egin eta Van Gaal heldu zenean, honek erabaki zuen aurreko laguntzaile guztiak botatzea, Mourinho izan ezik. Zer arrazoi jarri zituen holandarrak? Pentatzeko bestelako era zeukala...

Bere historiaren hasiera besterik ez zen izan. Hortik aurrera, Oporto, Chelsea eta Inter. Tituluz josi ditu talde hauek: Ligak, Kopak, Champions Leaguea, UEFA eta abar...Ez daukat bere ahalmenaren zalantzarik. Baina lorpenen ginetik, bere figura azaltzen zaigu: harroputza, hotza, adierazpen agresiboak, beti aktore lanak egiten... Esaten dute bere jokalarien defentsarako dela. Gezurra! Nik uste dut zirku horretan pailazorik handienetarikoa dela. Oraindik etxean daukat aterra zuen liburua. Hitzak eta hitzak erabiltzen ditu beste entrenatzaile guztiak kritikatzeko bere burua zerura igotzeko.

Madriren daraman denboran ez dut uste lagunik egin duenik, eta martxan horretan... Real Madriden itxura ere zikintzen ari da, baina gertatzen dena da Florentino gosez daukagula eta edozer gauza aguantatzeko prest dagoela, tituluren bat lortzeko. Eta hau, futbolarentzat ez da ona.

Aurrean zoli eta atzean seguru dabil Kulturala

Talderik golegileena da, eta atzean birritan lortu dute euren atea hutsean mantentzea

Liga hasierako bolada onak sailkapeneko hirugarren postuan kokatu du Durangoko Kulturala. Liga hasi denetik sei partidu joan dira, eta oraindik ez dute bakar bat galdu.

Axier Intxaurreagak zuzendutako mutilek lortutako emaitza onak ez dira kasualitatez gertatu. Aurrean, beti besteko erasokor dabilta; iaz, hirugarren mailan, talde golegileene-

takoa izan zen eta aurtan bide bera darama. Amorebieta liderragaz batera, golik gehien sartu duten taldea da: hamabi gol.

Defentsa lanean ere hobetu egin dute. Lehenengo bi jardunaldietan lau gol jaso zituzten; azkeneko lauretan bi bakarrik. Asteburuan Gernikaren zelaian jokatu dute. Gernika ere txukun dabil; seigarren daude hamar puntugaz. ■ J.D.



Santutxu 2-0 menderatu zuten Tabiran. Kepa Aginako

OSASUN GIDA



SPA ETA OSASUN ZENTRUA



Vilegy

Rehabilitazioa • Fisioterapia • Reflexoterapia • Testaje integral eta naturala • Tratamendu eta prebentzioa
Drenaje linfatikoa • Enbulturak • Masajeak •
Estetika • Nutrizioa eta dietetika • Laser depilazioa
Kirol psikologia • Tabakoaren kontrako tratamendua

Untzillatx, 11 behea • 48200 DURANGO
tf. 94 681 03 58

FISIOTERAPIA

Zainduz


**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374

PODOLOGIA



**JON
GERRIKAETXEBARRIA
PENÁ**

PODOLOGIA KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirugia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO
tf. 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO
tf. 94 681 99 51



**FISIOTERAPIA
ETA ERREHABILITAZIOA**

*Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezineustea, traumatologia, kirola, trafikoko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...*

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ
tf. 94 622 55 93

OPTIKA



ZENTRU OPTIKOA

Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria.
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ
tf. 94 622 50 99



PABLO ZUBIZARRETA

FISIOTERAPIA
&
OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D
48200 DURANGO
tf. 94 655 00 49 / 695 784 963

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psikologo.biz
tf. 94 603 32 46 - 629 245 728

KIROMASAJEA



**KIROMASAJEA
DIGITOPUNTURA**

Komentu kalea 15
48200 DURANGO
tf. 94 620 00 52



**HIRU
FISIOTERAPIA**

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbata 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO
tf. 94 466 94 00

Ligako lehenengo garaipenaren bila kantxaratuko da Tabirako Baqué

Lehenengo jardunaldi bietan garaipena hur izan badute ere, biak galdu egin dituzte emakumeek; gizonak ere azken arnasan ihes egin zien denboraldiko bigarren garaipenak

Joan zen asteko jardunaldia ahazteko modukoa izan zen Durangoko klubarentzat. Gizonek zein emakumeek hatzen puntekin ukitu zuten garaipena, baina azkenean porrot banarekin joan ziren etxera. Gizonek atse-den hartuko dute asteburu hone-tan, baina emakumeek Astigarraga hartuko dute, eta hirugarren jardunaldian ligako lehenengo garaipena lortzen saiatuko dira.

Emakumeek orain arteko bi neurketak irabazi dituzten arren, bietan ere garaipena ez dute aparte izan. Lehenengo jardunaldian Cafés Aitona indartsuak bisitatu zuen Landako kiroldedia, eta durangarrek luzapenean galdu zuten (51-62). Joan zen asteburuan, puntu gutxiko partiduan, hiru puntugatik galdu zuten Obenasa Ursulinas taldearen aurka.

Lehenengo lehia luzapenean eta bigarrena hiru puntugatik galdu dituzte



Zapatuan, 17:00etan, hasiko da Tabirako Baqué eta Astigarragaren arteko lehia. Juanra de la Cruz

Beraz, garaipena euren aldera erori zitekeen arren, erre-alitateak dio Tabirako Baqué garaipenik lortu ez dutenen multzoan dagoela sailkapenean, Universidad Deusto-Loiola-Indautxu, San Ignacio UPNA eta Talleres Lamaison taldeekin batera. Asteburuan Astigarraga hartuko dute etxean. Giputzek, kasualitatez, hiru puntugatik lortu zuten, iragan asteburuan, orain arteko garaipen bakarra.

Gizonak ere penatan egongo ziren Cafés Aitonaren kontrako partiduen amaieran. Partidu osoan aurretik joan ondoren, azken laurdenera zazpi puntuko aldeagaz heldu ziren. Orduan, batzuen urduritasunagatik eta besteen maila onagatik, Cafés Aitona apurka aldean jaten hasi zen. Azken minutuaren atarian markagailuak 65nako berdinketa islatzen

Emakumeek Astigarragaren kontra jokatuko dute asteburu honetan

zuen. Azken jokaldiak hobeto aukeratu zituen Donostiako taldeak, eta eurentzako izan zen garaipena.

Hurrengo jardunaldia urriaren 16an jokatuko dute Torrelavegaren kontra. Torrelavegak ere durangarren antzera partidu bat irabazi eta beste bat galdu egin du orain arte. Hain zuzen ere, Zornotzari irabazi zioten 90-74 joan zen asteburuan. ■ J.D.

Inoiz baino parte-hartze handiagoa duatloian

Mugarrak antolatutako Duatloi Herrikoian 600 lagun baino gehiagok parte hartu zuen



Nagusi zein gazte, denek gozatu zuten duatloian. Mugarra T T

Gustura dira Mugarra triatloi taldeko kideak, eta ez da gutxiagorako. Joan zen asteburuan ospatutako Duatloi Herrikoian bosgarren aldia "inoiz baino arrakastatsuagoa" izan da, antolatzaileen esanetan.

Guztira, 620 lagunek parte hartu zuten ekimenean, adin tartearen arabera banatuta. 0-7 urtekoen taldean 180 gaztetxok

12 urtera arteko adin tarteetan 365 gaztetxo ibili ziren duatloian

parte hartu zuten; 8-12 urte artekoan 185 gaztetxok; 12-17 urte artekoan 40 gazte egon ziren irteera puntuan, eta nagusietan 210 lagun aritu ziren. "Iaz nagusien mailan ez ginen 200 lagunera heldu, eta gaztetxoetan ere kopuruak baxuagoak izan ziren. Gainera, aipatutako kopuru horiei guztiei zenbait ez

ditugun gurasoak gehitu behar dizkiogu", zehaztu du Serafin Bereziartu Mugarra triatloi taldeko kideak.

Nagusiek korrika egin beharreko lau kilometroekin ekin zioten Duatloi Herrikoian ibilbideari; ondoren, beste 13 kilometroko bidea osatu zuten bizikletaren gainean, eta amaizeko beste bi kilometro egin zituzten korrika.

Gaztetxoak adin tarteetan banatuta irten ziren duatloian. Gaztetxoek zein nagusienek, guztiek baliatu zute duatloia familia giroan egun ederra pasatzeko. "Ederto pasatu zuten eta gaztetxoek aurpegi alaia ikusteak hurrengo urteetan ere ekimena antolatzen jarraitzea animatzen gaitu". ■ J.D.

Adin tarte guztietan gairitu zuten aurreko aldietako parte hartzea

Agenda

FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Berriz - Ugeraga

Barikuan, 20:00etan, Berrizburun

GOREN MAILA

Eiorrio - Iturrigorri

Zapatuan, 17:00etan, Eleizalden

LEHENENGO ERREGIONALA

Iurretako - Urllarra

Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelain

BIGARREN ERREGIONALA

Abadiño - Lezama

Zapatuan, 17:00etan, Astolan

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL A MAILA

Sasikoa - Aretxabaleta

Domekan, 12:00etan, Landako kiroldedian

EUSKAL LIGA

Mallabia - Kurutzlaga

Domekan, 17:30ean, Zaldibarko kiroldedian

BIGARREN ERREGIONALA

Dantxari - Kukuyaga

Zapatuan, 17:00etan, Lanbide Heziketako Institutuan.

Sapuberri -

Blarko gizonak

Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldedian

SASKIBALOA

LEHENENGO MAILA

Tabirako Baqué -

Astigarraga

Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldedian

LEHENENGO ERREGIONAL BEREZIA

Tabirako Baqué -

Muebles Vizcaya

Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldedian

LEHENENGO ERREGIONALA

Anbotopeko -

Buytrago Jarrilleros

Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Durango Ilarduya -

B.U.C. Barcelona

Domekan, 12:00etan, Arripasuetan

PILOTA

XVII. SAN FAUSTO ZESTA

TXAPELKETA (finalerdiak)

- Aizpurua analak

(Andolan) / Iturbide II-

Bailo (Noain)

- Beltia-Txomin (Mutri-

ku) / Aretxabaleta-

Ubilla (Berriatua)

Domekan, 11:30ean, Durangoko Ezkurdi Jai Alain XXIII. OLAZAR PILOTA

TXAPELKETA

Lau t'erdian

- Olaetxea (Gipuzkoa) /

Dorronsoro (Gipuzkoa)

- Elezkano II (Zaratamo)

/ Jauregi (Gipuzkoa)

- Arribillaga (Gipuzkoa)

/ Jaka (Gipuzkoa)

Urriaren 14an, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan

XXV. CAFÉS BAQUE

TXAPELKETA

Kadeteak

- Garcla / Berelinkua

- Pujana / Ziarrusta

Gazteak

- Gomez / Esteban

- Galarza / Fernández

Urriaren 13an, 19:00etan, Abadiñoako pilotalekuan

EDERTASUN GIDA

ILEAPAINDEGIA

NUKLEO
ileapaindegia



myspace.com/pelukerianukleo
Nizeto Urkizu, 14 behe•Elorrio•Tel.: 94 658 29 96

iunik ileapaindegia



astelehenetik
asteazkenera
10:00-21:00
osteguna
eta ostirala
09:00-22:00
larunbata
09:00-17:00
Aniso estegiz, 1•Durango•Tel.: 94 621 64 91



- Jon Sopelana
- Iunik ileapaindegia dauka Durango

Ilea berrizten

Uda ondoren ileko zein tratamendu eman dezakegun galdetu dugu Durangoko Iunik ileapaindegian.

Udak zer eragin du ilean?

Deshidratatu eta lehortu egiten da. Ileanen propietate batzuk galdu egiten dira eguzkiagaz, kresalagaz eta kloroagaz bustitzearen eraginez. Ile finetan eta kimikoz argitutako ileetan eragiten du.

Zer egin liteke ilea berriro distiratsu izateko?

Tratamenduak hiru pausu ditu: berregituratu, hidratatu eta kolorea eman.

Zer egin daiteke, hasteko, ilea berregituratzeko?

Berriro propietateak eman behar zaizkio ileari, apurtuta dauden zubiak konpondu eta hidratazioa heltzeko, berregituraketa sistema naturala erabiliz. Bestela, alperrik da hidratatzea. Aveda etxeko Damage Remedy familiako produktuak erabili daitezke. Txanpu eta ile-egokitzaille tratamendua gomendagarria da.

Hidratatuta badago?

Avedaren Dry Remedy tratamendua erabili daiteke; txanpua eta ile-egokitzaillea. Ile lehorra sakonean eraldatuz, baina trinkotu gabe.

Tratamenduagaz kolorea berritu daiteke?

Momentu ona da kolorea berritzeko. Kolorea higituta gelditzen da ilea apurtzen denean kolorea galdu egiten delako.

ESTETIKA ZENTRUAK

Parafarmazia  Dietetika

Amaia



- Drenatze linfatikoa
- Dieta pertsonalizatuak
- Elikagai naturalak
- Dermokosmetika
- Haurrentzako elikagaiak

Aniso Estegiz Zumardia • 1zk. behe • Durango • 94 681 81 96

Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIO -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

Virginia Ansorena
• estetika •

- 38€-ko bonoa
- Aurpegi garbiketa
- Bekainen diseinua
- Manikura
- %40ko deskontua izterondo eta besapetako fotodepilazioan



San Agustinalde, 1ºA-1ºC, 48200 Durango
Tel.: 94 620 29 78 Mbl.: 665 716 017

Ana Camarero
• apaindegia •

LASER FOTODEPILAZIO MEDIKO-ESTETIKOA



- Aurpegi garbiketa
- Argizari berok depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1. esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	
Saldu / Erosi Errentan eman / Errentan hartu Lan eskariak / Lan eskaintzak Galdu / Aurkitu Eman / Hartu		Eguazteneko 19:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

Higiezinak
ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Sukaldea, egongela, komuna, 3 logela, tras-telekua (komuna ateratzeko aukera dauka) eta ganbara. Eguzkitsua da eta 3 balkoi ditu. Ilogailua jartzekotan dira. Berogailua eta leiho berriak dauka. Etxe guztiak kanpora ematen du. Telefonoa: 655 712 105

Abadiño. Pisua salgai Abadiñon, Muntzaratz auzoan. 3 logela handi, 2 komun, sukaldea, egongela handi bat jangelarekin eta balkoi handia. Ganbara. Berriztatua eta berogailuarekin. Bizitzera sartzeko moduan. Negoziagarrria. Tel.: 667 882 338.

Berriz. Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara handia eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Guztiz berriztua eta egoera ezin hobean. 647 777 392

Durango. 98 m2-ko etxebizitza oso eguzkitsua, 3 logela, sukaldea - jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular (12 eta 8 m2-koak) eta baita terraza komunitarioak ere. Altxariz betea eta guztiz jantzia, berogailuaren galdara jarri berria, lau armairu enpotratu, aluminiozko leihoak, atea eta zorua aldatuta. Garajea eta igerilekuarekin. Tel.: 655 704 684

Durango. Alde Zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altxariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (elondo), sukaldea (fagor elektrotresnak eta junkers galdara), gres, berokuntza (gas naturala), kristal bikotetzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko. 223.000 euro. 607 715 353

Durango. Atiko zoragarria salgai Durangoko Alde Zaharrean. Duela urte eta erdi erat bat berriztatua. Erabat jantzia. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kapritxosoa. Etorri ikustera! 659 425 890

Durango. Etxea salgai Durangon. 3 logela, egongela, sukaldea (jantzita), komuna, berogailua eta despentsa. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Jantzita eta erreformatua. 189.319 euro. Telefonoa: 699 409 959

Elorrio. Pisu eder bat salgai Elorriion. Berritua,124 m2, gas naturaleko berogailua, sukalde hornitua, egongela, 5 logela, 2 komun, jangela, 2 balkoi eta garaje itxia. Derrigorrezkoa da ikustea. Prezioa: 264.500 euro (44.000.000 pta). Telefonoa:685 734 825

Elorrio. Pisu eder bat salgai, Elorrioko Auzoa auzoan. Leku zoragarria. Tel.: 639 020 581

Garai. Oar-Erdikoa baserria, 6. Garaiko San Migel auzoan. Udaletxetik 150 metrora. Hegoaldera begira. 300 m2-ko solairua. 10.000 m2-ko lur-saila. Nekazaritzarako edo landa-etxerako oso egokia. Erreformatzeko. Proiektua aurkeztuz gero, etxebizitza 2 egiteko aukera. 639 833 489

Iurreta. Pisua saltzen da Iurretan, Maspe kalean. 3 logela, sala, sukaldea eta komuna. Guztiz berriztatua. Ilogailuarekin. Bizitzen sartzeko prest. Telefonoa: 653 011 897 edo 648 102 025

Mallabia. Baserria eta 20.000 metro karratuko lur zatia salgai, Mallabian. Koka-pen ona eta prezio egokia. 12:00-14:00 eta 18:00-22:00 artean deitu. Tel.: 655 702 647

Mañaria. Pisua salgai Mañarian. 90 m2, hiru logela, bi komun, egongela-jangela eta sukalde guztiz jantzia (labe pirolitikoa, bitrozaramika, garbigailu-lehorgailua). Altxariz hornitua. Miradorea eta bista ikusgarriak. 13 m2-ko trastelekua. Eraikinak 15 urte ditu, eta igogailua du. Bizitzera sartzeko prest. Prezioa: 220.000 euro (36.520.000 pezeta). Aukera oso ona! 646 675 051

ERRENTAN EMAN

Berriz. Pisu bat errentan eman nahi dut Berrizen. 3 logela, 90 m2, igogailua eta garajea. Errenta: 600 euro. Telefonoa: 94 682 00 41

Durango. Durangoko tabira auzoan pisu konpartituan logela alokagai, 250 euro. Harremanetan jartzeko: miripz@yahoo.es

Durango. Pisua errentan Durangon. 4 logela, egongela eta sukaldea. 5. Pisua igogailuarekin. Tel.: 657 795 495

Zaldibar. Logela bat alokagai Zaldibarren. 655 739 792

ERRENTAN HARTU

Berriz. Berrizen edo inguruan pisua alokatu nahi genukeen bikote bat gara. Deitu:669956450

Durango. Durangon 1-2 logelako pisua alokatu beharra dugu. Olatz 627 470 544

OPORRETAKO ETXEBIZITZAK

SALDU

Laredo (Kantabria). Izu-garrizko bistak dituen pisua salgai Laredon hondartza ondoan. Urbanizazio pribatuan dago, berdegune askorekin, haurrentzako jolasguneak, tenis zelaia, saskibalo zelaia,

autoa garbitzekoa... Puntaleko zonaldean kokatua. Hall zabala, egongela eta jangela zabalak, bi bainugela osatu, 4 logela bakoitza bere armairu enpotratuarekin, sukaldea, elektrogailu berrieekin osatua, ur beroa eta gas naturalarekin dabilen berogailua. 2 igogailu eta atezain zerbitzua. Ezin hobeto dago bizitzera sartzeko. Tel.: 690 07 15 72.

PISUA KONPARTITU

PISU BILA

Madril (Madril). Logela bila nabil Madrilen, Atocha inguruan. Tel.: 600 330 110

PISUKIDE BILA

Durango. Durangon pisua konpartitzeko pertsona bat behar da. Tel.: 658 724 510

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Abadiño. Lokal ekipatua, altxariekin alokagai Matiena eta Durango bitarteko errepi-dean.120 m2. 619 790 053.

Atxondo. Apatan 40 m2 lokala alokagai. Komuna ipinita dauka. 686 137 123

GARAJE/ TRASTEROAK

SALDU

Elorrio. Garajea salgai. Telefono zenbakia: 658 759 264

Teknologia

INFORMATIKA/ BIDEJOKUAK

GAINERAKOAK

Ordenagailuak konpontzen dodaz. Hard eta soft. Ordenagailuak konpontzen dodaz. Etxez etxe joaten naz konpontzen. Hardware eta software. Konfiguratu, birusak kendu, periferikoak ipini, etab... Arin eta merke ! Telefonoa: 650172285

Lana/negozioak

LAN ESKARIAK

ETXEKO LANAK

Zaldibar. Neska garbiketa lanetan edo dendetan lan egiteko prest. Kotxea dut. Telefonoa: 659 973 224

PERTSONAK ZAINDU

Abadiño. Lan bila nabilen Matienako andre bat naiz. Edozein ordutegian, arratsaldez eta gauez aukeran. Urme eta nagusien zainketa, etxeen garbiketa... 696 753 530

Berriz. Andre euskaldun bat 3 edo 4 orduz umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Telefonoa: 680 509 532 edo 94 622 57 24.

Durango. Andre euskalduna naiz eta pertsona nagusiak, gaixoak, ezinduak... Zaintzeko prest nago. Urte askotako esperientzia daukat eta lehenbailehen hasteko prest nago. Tel.: 699 745 723.

Durango. Emakume arduratsu bat prest dago orduka umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko eta antzeko lanak egiteko. Juana. Tel.: 670 674 641.

Durango. Neska euskalduna eta esperientziaduna astelehenetik ostegunera, ordubete inguruz, haur txikiak zaindu edo 6 eta 10 urte bitarteko haurrei edozein gaitako eskola partikularrak emateko prest. 630 866 974. Miren.

Durango. Durangon edo inguruetan, umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko prest, baita garbiketa lanetarako ere. Arratsaldetan, gaueetan eta asteburuetan. Erreferentzia onak. Tel.: 650 610 194.

Durango. Umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketarako lan baten bila nabil. Lanaldi osorako edo erdirako. Erreferentzia onak. Telefonoa: 638 437 901.

Durango. Neska euskalduna, astelehenetik ostiralera, arratsaldetan umeak zaintzeko prest. Haur hezkuntzako irakaslea, gaur egun goizez irakasle moduan lan egiten dut. Interesa baduzue: 635 706 986

GAINERAKOAK

Durango. Jardinen mantenuan, eraikuntzan, margolari gisa, tornuetan edo elektrizitatean oinarritutako lan baten bila nabil. Paperekin. Telefonoa: 669 594 376

Zaldibar. Gazte euskalduna naiz, eta lan bila nabil. Informatikako goi-ikasketak ditut. Zaldibar edo inguruetan lan egiteko prest. 679 948 923.

Elorrio. Neska euskalduna astelehenetik ostiralera bitartean, arratsaldetan, pertsona edadetuak paseatzea ateratzeko prest. Interesa baduzu... 688 654 291 (arrats.)

Elorrio. Elorriion neska gazte bat arratsaldez haurrak zaintzeko prest dago, baita haurraren etxeko lanez arduratzeko. Telefonoa: 600 361 381.

Iurreta. 27 urteko neska euskalduna,iurretarra,astelehenetik ostiralera goizeko 07:00etatik arratsaldeko 16:00etara lan egiteko prest. Umeekin, ezindu psikikoekin eta adinekoekin esperientziaduna. Gizarte eta kultur animazioa ikasia. Neure kotxea daukat. Tel.: 690 996 618

Zaldibar. Neska euskalduna umeak zaintzeko edo/eta partikularrak emateko eskaintzen da, Lehenengo Hezkuntzatik DBHra arte; 3 urtetako esperientzia daukat. Telefonoa: 610 004 443.

IRAKASKUNTZA

Abadiño. Fisikako ikaslea durangaldean klase partikularrak emateko prest. LH, DBH edota batxilergokoak. Esperientziaduna. 645 720 236

Durango. 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Duran-

gon emateko prest. Espezialitatea matematika klaseetan.Telefona: 635 74 61 76

Durango. Heziketa bereziko eta psikopedagogiako ikasketak dituen 23 urteko neska euskalduna, lehen hezkuntzan klase partikularrak emateko prest. Tel.: 615 731 881

Durango. Ingeles maila hobetu nahi? ingeles irakaslea partikularrak emateko prest, irailetik aurrera. Telefonoa: 625 709 846

PERTSONAK ZAINDU

IRAKASKUNTZA

Berriz. Berrizko gazte lekuan astebukaeretan lan egiteko hezitzaile baten bila gabiltza. Bertan lan egiteko baloratuko dena: ega, baliokidea edo euskera ondo jakitea; hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak; aisialdian esperientzia; berrizkoa edo ingurukoa izatea. Interesa duenak bidali kurrikuluma haurrak@txatxilipurdi.com helbide elektronikora.

Elorrio. Helduentzako eskara klaseak ematen ditut, azterketak prestatzeko. Tel.:67506105

Elorrio. Elorriion klase partikularrak ematen ditut. Deitu: 675 70 61 05.

GAINERAKOAK

Durango. Jardinen mantenuan, eraikuntzan, margolari gisa, tornuetan edo elektrizitatean oinarritutako lan baten bila nabil. Paperekin. Telefonoa: 669 594 376

Zaldibar. Gazte euskalduna naiz, eta lan bila nabil. Informatikako goi-ikasketak ditut. Zaldibar edo inguruetan lan egiteko prest. 679 948 923.

Zaldibar. Neska euskaldun bat lan bila dabil, garbiketak egiteko, portaletan, dendetan edo lantegietan. Autoa eta gidabaimena. Zerbitzari moduan ere lan egin dezaket. 659 973 224 (Izaskun).

LAN ESKAINTZAK

OSTALARITZA

Durango. Plateruena Kafe Antzokiak jantzeko arduraduna behar du. Deitu bulego ordutan: 94 681 42 78. Curriculuma bidaltzeko: zuzendaritza@plateruena.net, edo Landako etorbideko 4. A, Durango.

Muxika. Kamarera euskalduna behar da asteburuetan lan egiteko. 689 802 362.

ETXEKO LANAK

Durango. Andre euskaldun bat behar dugu gure umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Zazpi ordu egunean. Telefonoa: 605 825 026

Durango. Durangaldeko herriei zuzenduriko lan eskaintza da. Iniziatiba eta lagun arterako dohaina duen pertsona bazara eta hileko soldata plus bat nahi baduzu, hona hemen aukera ezin hobea. Zure etxetik eta zuk nahi duzun ordute-

gira egokituriko lanpostu ko-mertziala eskaintzen dugu. Saltzen duzun produktu bakoitzeko komisio finko eta ziurrarekin. Produktu berritzaile eta erakargarria salmentarako. Beharrezkoa: ordengailu portatila produktuaren aurkezpenerako eta norbere autoa. 943 10 72 00

Durango. Emakume euskalduna behar da ume txiki bat zaindu eta etxeko lanak egiteko Durangon, 8 ordutan. Deitu 656 737 779 telefonora.

PERTSONAK ZAINDU

IRAKASKUNTZA

Berriz. Berrizko gazte lekuan astebukaeretan lan egiteko hezitzaile baten bila gabiltza. Bertan lan egiteko baloratuko dena: ega, baliokidea edo euskera ondo jakitea; hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak; aisialdian esperientzia; berrizkoa edo ingurukoa izatea. Interesa duenak bidali kurrikuluma haurrak@txatxilipurdi.com helbide elektronikora.

Durango. Ingeniaritzako ikaslea behar da marrazki tekniko edo kimikako eskolak emateko. 675 076 245.

Durango. Durangoko enpresa batek honako hau behar du: biolin irakaslea. Musika eskola baten biolin klaseak emateko irakaslea. Ezinbestekoa: biolin goi mailako titulu eta euskarazko ezagupena. Lanaldia eta ordutegia: lanaldi herena arratsaldetan banatuta. Kontratua: ordezkapena (ikasturte bat). Berehala sartzeko. Hileko soldata gordina, gutxi gorabehera: 900 euro. Sartu. Erref.: 7468. Tel.: 94 620 04 49.

Elorrio. Pertsona bat behar da ingeles klaseak emateko. Telefonoa: 94 658 46 73

Elorrio. Irakasletza ikasten dabilen elorriar bat, astelehen, asteazken eta ostiraletan lehen hezkuntzako haurrei klase partikularrak emateko prest. Interesaturik egonez gero, nirekin harremanetan jarri mesedez. 600 883 213

GAINERAKOAK

Bergara. Bergarako enpresa batek honako hau behar du: merkataritzako agente bat. Aseguruak merkaturatu eta bezeroen zorroa mantendu. Ezinbestekoa: esperientzia izatea komertzial lanetan, b klaseko gidabaimena, autoa eta eskualdean bizitzea. Lanaldia eta ordutegia: lanaldi osoa zatitua. Kontratua: merkantila. Berehala sartzeko. Hileko soldata gordina, gutxi gorabehera: 1.000 euro. Sartu. Erref.: 7656. Telefonoa: 94 620 04 49.

Berriz. Berrizko gazte lekuan lan egiteko 3 hezitzaile behar dira. Lana asteburuetan izango da, eta 12-17 urte arteko gaztetxoekin aisialdi hezitzaile euskalduna burutzea du xede. Argibide edo informazio gehiago behar badi-

ra, edo curriculuma bidaltzeko, deitu 943 79 54 46 telefonora edo idatzi eposta bat idazkaritza@txatxilipurdi.com helbidera. Eskerrrik asko.

Bilbo. Bilboko enpresa batek honakoa behar du: etxe-erakuntzako peoia. Durangoko obra batean lanaldi osoz aritzeko, lanpostuari dagozkion lanak egiten. Ezinbestekoa: eraikuntzako txartel profesionala izatea (tpc txartela) eta durangaldean bizitzea. Kontratua: obra amaierakoa. Berehala hasteko. Soldata: hitzarmenaren arabera. Sartu. Erref.: 7050. Telefonoa: 94 620 04 49

Bilbo. Bilboko enpresa batek honakoa behar du: igeltseroa. Durangoko obra batean lanaldi osoz aritzeko, lanpostuari dagozkion lanak egiten. Ezinbestekoa: eraikuntzako txartel profesionala izatea (tpc txartela), gutxienez bi urteko esperientzia izatea igeltsero lanetan, eta durangaldean bizitzea. Kontratua: obra amaierakoa. Berehala hasteko. Soldata: hitzarmenaren arabera. Sartu. Erref.: 7053. Tel.: 94 620 04 49

Durango. Atarteko lan poltsa osatzeko antzerkilariak, dantzariak, disenatzaile grafi-koak, haur-pedagogiak eta multikiroletan, sukaldaritzan eta ikus-entzunezkoetan adituak behar ditugu. Interesatuak bidali curriculumataarte@atarte.com helbide elektronikora.

Durango. Durangoko enpresa batek honakoa behar du: merkataritzako agentea. Aseguru konpainia batean bezeroak erakartzea eta mantentzea. Ezinbestekoa: esperientzia izatea komertzial lanetan eta Durangaldean bizitzea. Lanaldia: osoa zein erdia. Kontratua: merkantila. Berehala hasteko. Hileko soldata, gutxi gorabehera: 500 euro (lanaldi osoarengatik) + komisioak. Sartu. Erref.: 6840. Tel.: 94 620 04 49

Durango. Durangaldeko enpresa batek Sekzio arduraduna behar du. Transformatu metalikoen enpresa batean aritzeko, produkzio buruaren menpe egongo da, eta mekanizazio eta leunketa lanen sekzioaren guntzaz arduratuko da, bere ardurapean dauden baliabide tekniko eta giza baliabideak koordinatuta, honi dagozkionez: produkzio planaren jarraipena, kalitate eskakizunak betetzen direla kontrolatzea, ekipamenduei egiten zaizkien mantentze lanen jarraipena, langileen formazioa. Ezinbesteko: 4 urteko esperientzia deskribatutako lanpostuan, esperientzia mekanizazio lanetan, esperientzia cnc makinak erabiltzen, matxura mekaniko txikiak konpontzen. Lanaldi osoa zatituta, edo goizeko eta arratsaldeko erreleboa. Kontratua: epemugarik gabekoa. Hileko soldata gordina, gutxi gorabehera: 2150 euro (x14). Sartu. Erref.: 7157. Telefonoa: 94 620 04 49

Durango. Durangoko enpresa batek honako hau behar du: moldatzeko makinako operadorea. Tolesketa lanak egiteko eta cnc tolesketa makinak programatzeko. Ezinbestekoa: planoen interpretazioa, gutxienez urtebeteko esperientzia eta durangaldean bizitzea. Lanaldia eta ordutegia: osoa, goizeko eta arratsaldeko erreleboa. Kontratua: aldi baterakoa, baina luzatu daiteke. Berehala sartzeko. Sartu. Erref.: 7723. Telefonoa: 94 620 04 49.

Durango. Durangoko enpresa batek honako hau behar du: mekanikoa. Mekanika orokorra: uhalak aldatu, balaztak, gurpilak eta autoarekin zerikusia duten edozer gauza. Ezinbestekoa: gutxienez 2 urteko esperientzia mekaniko lanetan, b klaseko gidabaimena eta durangaldean bizitzea. Lanaldia eta ordutegia: elkarriketetan zehaztuko da. Kontratua: epemugarik gabe, behin probaldia gaindituta. Berehala sartzeko. Sartu. Erref.: 7490. Telefonoa: 94 620 04 49.

Durango. Durangoko enpresa batek Zerga-aholkularia behar du. Kontabilitateko mekanizazioa eta ekitaldien itxierak, balantzeak eta kontuak prestatzea, zergak prestatzea . Ezinbestekoa: enpresa zientzietako diplomatura, gutxienez 3 urteko esperientzia kontabilitatean eta durangaldean bizitzea. Lanaldi osoa zatituta, astelehenetik ostiraleta. Kontratua: epemugarik gabekoa, behin probaldia gaindituta. Berehala hasteko. Sartu. Erref.: 7194. Tel.: 94 620 04 49

Durango. Durangoko enpresa batek honako hau behar du: merkataritzako agentea. Aseguru konpainia batean bezeroak erakartzea eta mantentzea. Ezinbestekoa: esperientzia izatea komertzial lanetan eta Durangaldean bizitzea. Lanaldia: osoa zein erdia. Kontratua: merkantila. Berehala hasteko. Hileko soldata, gutxi gorabehera: 500 euro (lanaldi osoarengatik) + komisioak. Sartu. Erref.: 6840. Tel.: 94 620 04 49

Elorrio. LH1. Eta 2. mailako ikasleentzat monitore lanak egiteko pertsonak behar dira. Interesatuok etor zaitezte irailaren 15ean, asteazkena, arratsaldeko 17:00etan Elorrioko Iturri kultur etxean izango den “informazio saioa”. Baldintzak: 18 urtetik gorakoa izatea; heziketa fisikoko irakaskuntza ikasketak eginda edo ikasten aritzea; irakaskuntzan esperientzia izatea; ega edo baliokidea; elorriokoa izatea; ikasketetxetako ikasle ohia edo hauen errealtitatea ezagutzea baloratu ko da. Informazio gehiagorako: 943 712 033

Zornotza. Zornotzako enpresa batek honakoa behar du: merkataritzako agentea. Ordezkarri lanak egitea, bezeroak erakartzea, bezeroen zorroa mantentzea eta bezeroen goustioak izapidetzea. Ezinbestekoa: diplomatura, esperientzia komertzial lanetan eta zonaldean bizitzea. Lanaldi osoa. Kontratua: merkantila. Berehala hasteko. Urteko soldata gordina, gutxi gorabehera: 24000 euro. Sartu. Erref.: 6956. Telefonoa: 94 620 04 49

Zornotza. Zornotzako enpresa batek honako hau behar du: ile apaintzailea. Lanpostuari dagozkion lanak egiteko: ile-tindatzea, orraztea... Nagusi egoitza batean. Ezinbestekoa: formakuntza, es-

anboto.iragarkilaburrak.com

perientzia, euskara eta es-
kualdean bizitzea. Lanaldia
eta ordutegia: osoa. Kontra-
tua: ordezkapena. Berehala
sartzeko. Hileko soldata gor-
dina, gutxi gorabehera: 1.139
euro. Sartu. Erref.: 7469. Te-
lefonoa: 94 620 04 49.

Ibilgailuak

AUTOAK

SALDU

Clio familiarra salgai. Clio
grand tour berria. Dynamique
1.5 dci 85 zp. Gris zilar-kara. 2
urte eta erdi. 30.000 km.
Diesela. 12.000 euro. Aire
egokitua, erreguladorea, limi-
tadorea. Break. Airbagak. 5
ate. Bihurguneetarako argi
gehigarriak. Aurreko kristal
igogailu elektrikoak. Ixte sis-
tema zentralizatua. Atzeko
banketa 1/3-2/3. Cd. Garan-
tia: 2012-01-22. Urteko erre-

bisioa pasatu berri. Telefo-
noa.: 609939095.

Opel Corsa salgai. Opel
Corsa 1.4i, 232.200 km, ondo
zaindua, itva azarorarte du,
korrea 182.222 km-rekin al-
datu zitzaion. 800 euro.
Telefonoa: 626435412

Seat 600I. Oso egoera
onean. ITVa pasatu berri.
Telefonoa: 645717821

FURGONETAK

SALDU

California T4 salgai. Cali-
fornia T4 salgai. 2400 diese-
la. 146.000km. Egoera one-
an. Sukaldea, hozkailua eta
abar dauzka. 4 pertsonaren-
tzako oheak (behean eta
goian). 13.700 euro.
Telefonoa: 671841563. Jon.

MOTORRAK

SALDU

Kawasaki - versys 650.
Egoera onean, beti garajea-
n. 2007koa da. 12.400 kilome-
tro, gorria. Kutxa opari. Oha-
rra: limitatuta dago.4.500
euro. Tel.: 690 071572.

**Yamaha Jog Scooter bat
salgai.** Yamaha Jog motorra
salgai. 2.000 km. lata pasa-
tuta. Ezer aldatu barik, dena
orijinala. Beti egon da garaje-
an. stratokaster@gmail.com.
Telefonoa: 650172285

BESTE IBILGAILUAK

SALDU

**MF760 hondeamakina
mistoa salgai.** MF760
hondeamakina mistoa salgai.
Telefonoa: 605748383.

Aisia/kirola

KIROLAK

GAINERAKOAK

Futbitorako neska bila.

2010-2011 denboraldirako,
nesken futbito talde federa-
tua mantentzeko neska bila
gabiltza. Oraingoz, lau gara.
Animatu zaitetze. Informazio
gehiago: www. Kuru. Es

ANIMALIAK

SALDU

Astoa salgai. Urte biko asto
arra, etxean jαιο eta hazita-
koa. Txipa jarrita dauka.
Tel.: 656 772 994

Kapoiak salgai. Kapoiak
saltzen ditut. Interesatuta
egonez gero, deitu hurrengo
telefono zenbakietara: 626
761010 edo 686810203

EMAN

**5 txakurkume oparitzen
dira.** Ama ardi-txakur eta
mastin nahastea, eta aita
alaska malamute. Ia 2 hilabe-
te. 3 ar eta 2 ume dira. Presa
dugu kentzeko, ezin ditugu
mantendu. 671815750

**Huskyak oparitzen ditu-
gu.** Urgentziazko harrera be-
har duten 11 husky oparitzen
ditugu, sakrifikatu ez ditza-
ten. Hilabete eta erdi dauka-
ten 11 husky siberiar dira. In-
teresatuta egonez gero, deitu
hurrengo telefono zenbakira:
686934359 (Minerva)

MUSIKA/PELIKU- LAK/LIBURUAK

SALDU

Bajua salgai. 10 orduan ba-
karrik erabilitako bajua sal-
tzen dut. Funda, anplifikado-

rea (20w), kablea eta hiru pua
barne. 200 euro.
jbpetgarjo@hotmail.com

Pianoa salgai. Piano berti-
kala Petrof markakoa egoera
onenean. Tel.: 605737806

GAINERAKOAK

**Gitarra eskola pribatuak
durangon.** Gitarra eskola
pribatuak durangon. Elektri-
koa, akustikoa, rock-a, blues-
a, jazz-a, funk-a, etb. Eskalak,
akordeak, erritmoa, teknikak,
inprobisazioa, irakurketa...
650172285

OPORRAK/BIDAIAK

GAINERAKOAK

Etorri Lodosara. Nafarroa-
ko Eboren erribera ezagutu
nahi baduzu, etorri Lodosara
eta egun batzuk pasatu gure

landaetxean.677834047

GAINERAKOAK

EMAN

Biodantzak klaseak. Bio-
dantzako klaseak ematen di-
tut elorriko lourdes ikaste-
txean, barikuetan 19:00eta-
tik 21:00etara. Telefonoa:
626661292. Mentxu. Etor
zaitetz biodantzaren onurak
ezagutzera!

Familia/etxea

HAURREN TXOKOA, OSAGARRIAK

SALDU

Paseo aulkia salgai. Bebe
confort markako paseorako
aulkia salgai. Horrekin batera
kotxearentzako homologatu-
ta dagoen grupo O, aulki bie-
tako burbujak eta kapotak

oparitzen dira. Prezioa: 100
euro. Tel.: 650914806

Ume karroa salgai. Ume
karroa salgai: “ bebe car mul-
tipla ” markakoa. Urdina.
Egoera onean. Maxicosia, ka-
pazua eta aulkia osagarri guz-
tiekin: euritakoa, plastikoak
eta sehaskarentzako osaga-
rriak ere bai. 400 euro.
Telefonoa: 696969276

EDERGINTZA/OSASU NA/ESTETIKA

SALDU

Goi kosmetika. Mary kay
edertasun kontsultora inde-
pendenteak goi kosmetikako
produktuak saltzen ditu. Pro-
duktuak erosi aurretik, proba
itzazu zure automakillaje eta
aurpegia zaintzeko dohaineko
klaseekin.
Telefonoa: 678836050.

INMOBILIARIAK



**Inmobiliaria
del Duranguesado**

Askatasun etorbidea, 1048200 DURANGO
Tel./Faxa:94 681 66 66inmoduranguesado@gmail.com
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
 - Logela bakarra garajea eta ganbarekin 200.000€+ BEZ
 - 2 logela garajea eta ganbarekin 233.000€+ BEZ
 - 3 logela garajea eta ganbarekin 350.000€+ BEZ
- Pagasarri kalea: Azkeneko etxebizitzak salgai. Eraiki berriak. 2 eta 3 logela. Garaje itxia.
- Abadiño: 2 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. 120 m2.
- Zaldibar: Aukera. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berogailua. Balkoia. Garajea.
- Berriz eta Zaldibar: Etxebizitzak salgai. Deitu gaitzazu eta konpromiso barik erakutsiko dizkizugu!
- Abadiño, Muntzaratz eta Elorrio: Etxebizitzak salgai. 2 eta 3 logela.
- Zaldibar: Lursaila salgai eraikitzeko aukerarekin.
- Durangaldea: Baserriak,txaletak,pabillioiak eta garajeak hainbat zonaldetan, salgai edo alokairuan.
- Askatasun Etorbidea: 90 m2. Ganbara handia eta garajea.
- Arkotza: 4 logela, egongela, sukalde jantzia, komuna eta bainugela. Balkoia eta ganbara.
- Andra Mari: 30 m2-ko terraza. 2 logela. Berriztatua.
- Mendizabal: 63 m2. 2 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara.
- Fray Juan de Zumarraga: 75 m2. Duplexa. 2 logela. Garajea eta trastelekua.
- Fray Juan de Zumarraga: 57 m2. Erdi berria. Logela bakarra. Balkoia.
- Alluitz – Fray Juan de Zumarraga: 50 m2. Erdi berria. Logela bakarra.
- Txibitena - Landako: Erdi berria. Logela bakarra. Ganbaran beste logela bat. Garajea.
- Landako: 105 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea.
- Zumalakarregi – Ezkurdi: 208 m2. 5 logela. Etxe osoa berriztatu behar da.
- Zumalakarregi - Ezkurdi: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- Erdialdean: 90 m2-ko etxebizitza estreintzeko. 80 m2-ko terraza.
- Ezkurdi: 100 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Ganbara.
- Askatasun Etorbidea: 123 m2. 4 logela. Garajea, trastelekua eta ganbara. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Fray Juan de Zumarraga: 108 m2. 4 logela. Altuera ona. Garajea.
- Murueta Torre: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trastelekua. Balkoia.
- Juan de Itziar: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan.
- Askatasun Etorbidea: 75 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
- Herriko Gudarien kalea: 105 m2. 3 logela. Garaje itxia. Balkoi handia.
- Frantzisko Ibarra: 95 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
Saibigain, 11a eraia F. J. de Zumarraga kaleatik
Tel.: 94 681 40 49 • DURANGO • www.inmoetxeto.com

AUKERA

- Apartamentua erdialdean. Guztiz jantzia. 210.500€.

ERAIKUNTZA BERRIA

ZALDIBAR

- Garajea eta trastelekua. 138.000€-tik hasita. Berehalako banaketa.

IURRETA

- Maspe: Eraikuntza berria. 1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. 210.500€-tik hasita.

DURANGO

- Etxebizitzak salgai terrazarekin. 1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.

MAÑARIA

- Berriak. 140 m2. 3 logela eta 2 komun. 80 m2-ko trastelekua.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Lehendakari Agirre: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Eskegitokia. Ganbara eta garajea.
- F.J.de Zumarraga: Apartamentua. Erdi berria.
- Arte kale: Berria. 80 m2. 2 logela.
- Txibitena: 40 m2. Apartamentua. 185.700€.
- Intxaurren: 2 logela. Pisu altua.
- Franzisko Ibarra: Erdi berria. 75 m2. 2 logela, egongela eta eskegitokia. Ganbara eta garajea.
- Juan Olazaran: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. 2 terraza. Ganbara handia. 2 kotxerentzako garajea.
- Madalena auzoa: 2 logelako atikoa. Terraza. Ikuspegiak.
- San Ignazio: 95 m2. 3 logela eta 2 komun. 12 m2 eta 8 m2-ko terrazak. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
- Ermodo: 3 logela. Igogailua. 183.300€.
- Sasikoa: 2 eta 3 logela. Ganbara. Garaje itxia.
- Murueta Torre: 75 m2. 2 Logela eta 2 komun. Trastelekua. Garajea.
- Andra Mari: Apartamentua. Guztiz jantzia. 162.000€.
- Ermodo: Erdi berria. 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Garajea eta ganbara. Eraikin ona.
- Tabira: Apartamentua. Eskegitokia. Garajea.
- Erretentxu: 85 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea aukeran. Eguzkitsua. Ikuspegiekin.
- Landako: 90 m2. 3 logela.2 komun. 2 terraza. Ganbara.
- Plateruen Plaza: Berria. Estreintatzeko. Atikoa. 2 logela eta 2 komun. 40 m2-ko terraza. Duplexa egiteko aukerarekin.
- San Fausto: 3 logela. 150.300€. 2. solairua.
- Undatorre: 60 m2. 3 logela. 173.300€.
- Durango: Txaleta. Estreintatzeko. 4 solairu. Garajea eta lorategia.
- Garai: Txaleta. 250 m2. 4 solairu. Txokoa. 15 m2-ko terraza.

ABADIÑO

- Solokoa: 90 m2. 3 logela, egongela handia eta sukaldea despentsarekin. Berogailua. 3 terraza.
- Abadiño: 80 m2. 3 logela. 156.300€.

IURRETA

- Askondo: 80 m2. 3 logela, egongela handia eta igogailua. Garajea aukeran.



Amboto
San Agustinalde, 4 - 1 Ezk.DURANGO
TF.: 94 681 35 62 email: iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

BERRIZ

- Logela, sukalde “amerikarra”, egongela eta komuna. Berria estreintatzeko. 96.000 €.

DURANGO

- Erdialdea: AZKENEKO 2 APARTAMENTUAK. Logela bat edo bikoak, sukalde jantzia eta horma-armairuekin. 150.000€-tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
- Apartamento berriak eraikitzen.700€ hilero.
- *Herriko Gudarien Plaza.3 logelatako etxe zoragarria, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin,egongela balkoiarekin, ganbara eta garajea
- Erdialdean. 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatzeko.
- Askatasun Etorbidea: Eraiki berriak. 2, 3, 4 eta logela bakarrekoak.
- Zeharkale: Atikoa. Guztiz berriztatua. 2 logela, sukaldea, egongela-jantokia eta komuna.
- Alluitz: 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin, egongela eta terraza. Garaje itxia. Estreintatzeko. Etxe osoak kanpora ematen du.
- *San Inazio.3 logela,2 komun,sukaldea,egongela balkoiarekin, garaje aeta trastelekua, igerileku komunitarioa,etxe osoak kanpora ematen du.Prezio interesgarria.
- Tabira: 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea.
- Murueta Torre: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara, garajea eta trastelekua. Prezio interesgarria.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarreko apartamentua. Sukalde jantokia, komuna eta eskegitokia.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak.

ATXONDO

- 2 logela, komuna, bainugela, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

TXALETAK SALGAI

URRUTXUA

- Baserria, 8 hektareako lursailarekin. Gernika, Durango eta Bizkaiko Balkoiarekin ondo komunikatuta. Prezioa adosteko prest.



AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo • Telf. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Zaldibar: Eraikitzen dauden etxebizitzak salgai.
- Abadiño: Txaleak bifamiliarra lur eremuarekin salgai.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin salgai.
- Durango - Erretentxu: Salgai. Adosatua eraikitzen.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Alluitz: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Ganbara.
- Astepe: Halla, sukalde – jantokia, 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. Guztiz jantzia.
- Anbroso Meabe: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Ganbara.
- Andra Mari: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 4 logela, 2 komun, egongelatxoa. (135 m2).
- Antso Eztegi: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela, komuna, bainugela, balkoia eta ganbara.
- Aramotz: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela, komuna eta balkoia.
- Artzetagan: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Askatasun Etorbidea: Halla, sukaldea, egongela – jantokia, 3 logela eta 2 komun. Garajea.
- Astola bidea: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.
- Astarloa: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Barrenkale: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Ermodo: Halla, sukalde-jangela, egongela, 4 logela eta 2 komun. 2 terraza (bat oso handia).
- Ezkurdi: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 / 4 logela eta 2 komun.
- Gasteiz bidean: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
- Goienkalen: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta ganbara.
- Intxaurren: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna. Trastelekua.
- Iparragirre: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 3 logela eta komuna. 2 balkoi.
- Iparragirre: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kotxerentzako garajea eta trastelekua.
- Juan Antonio Abasolo: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Juan de Itziar: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
- Kanpatorrosteta: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta 3 komun. Terraza handia. Garaje itxia.
- Kalebarria: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Kalebarria: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. (Guztiz barritzuta).
- Komentu kalean: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz barritzuta eta erdi jantzia).

IRITZIA >

Kontuz, laztana, Trabakua pasatzerakoan!

Amaitu berri dira Trabakua mendateko konponketa lanak, BI-633 errepidean, Durango eta Markina lotzen dituenean. Errepide laster hau eraiki zenetik hainbat arazo sortutakoa da bere atzamarak luzatzen dituen auzo eta baserrietako herritarrei. Konponketekin, harrigarria dirudien arren, arriskua areagotu egin zaigu. Chapeau, Bizkaiko Foru Aldundia!

Asteazkenean, irailaren 22an, Mallabiko eskolako haurrek irteera dute gure herriko auzoetan zehar. Udazkeneko eskolak programatzen duen irteeretakoa bat da. Etxean hamarretakoa jarri eta hor abiatzen dira, haur eta irakasle, Mallabiko auzoetan zehar euren irteeratxo egitera.

- Kontxo, Felipek ekarri ditu bere ardiak Oiztik.
- Jakina, bertan dagoen lehortearekin zer janik ez zuten-eta!
- Atzo hemen, Errekalden, txala jaio zen...
- Andereño, joan gaitezke txala ikustera?

Horrela gabilta Goita auzoan zehar, eta Gereaa auzora pasatu behar garenean komeriak hasten dira. Zerekin aurkitzen gara? Errepide berritua, izugarrizko zoru ederra, ibilgailuak abiadura desegokian eta lau irakasle lau karriletako errepidea alde batetik bestera hirurogeita bost haurrekin pasatzeko behararekin. Nola konponduko dute arazoa? Ba, Ertzaintzari deituz, etortzeko esanez eta trafikoa moztu dezatela une batez eskatuz, geu pasatu gaitez. Esan eta egin, han datoz ertzainak, bidea ebakitzen dute eta orduan lortzen dugu aldetik aldera pasatzea.

Abuztua da, lasai bizi naiz Mallabiko Gereaa auzoan dudanez etxetxoan. Egun zoragarria da eta nire hamabost urteko alabak Lekeitioko hondartzara joateko asmoa du, bere lagun koadrilarekin. Ohitura denez zer esango diot ba!

- Kontuz ibili, laztana.

Lekeitioko autobusa hartzeko geltokia errepide honen beste aldean dago. Han doaz gure haurrak geltokira, eta hara non, geltoki ondoan dagoen ertzain patruila batek ez dien uzten errepidea zeharkatzen, zeharkatze honek duen arriskuagatik.

- Baina guk Lekeitioko autobusa hartu behar dugu!
- Pues por aquí no podéis pasar porque no hay paso.

Ez dute erreakzionatzen, ezin dute sinistu orain arte korrika batean pasatu izan dutena, arriskurik inoiz ikusi gabe, munduko gauzarik arruntena izango balitz bezala, orain hain arrakatsua bat-batean bihurtzea. Eta gaur bi ertzain horiek ez digute utziko autobusa hartzen? Lau minutu falta dira autobusa heltzeko. Galdu egin behar dugu. Lagunetarikoa bat negarrez hasten da. Eskerrak Trabakua gaineko tabernako herritar bat (denok ezagutzen gara, 1.200 biztanle eskas bizi gara-eta Mallabian) konturatu den zerbait arraroa gertatzen dela, eta galdetu ondoren erreakzionatu duen.

- Mekaguen la p. errepide p. hau!!! Sartu arin kotxean!

Eta han doaz lau karriletako errepide hori kotxez zeharkatzen, gure haurrek oinez ezin dutelako joan Lekeitioko autobusaren geltokira.

- Hauek bi adibide dira, baina astero gertatzen da zerbait:

- Ardiak, zaldiak edo behiak alde batetik bestera pasatu behar direnean.

- Berriztik edo Durangotik autobusez etortzen den herritarra bere lagunekin Trabakuko tabernaren batean geratu delako, edo bere etxera bueltatzeko.

- Goita auzokoek oinez nahi dutenean joan Trabakura (bertan atsedenelekua eta bi taberna daude) eta kotxea hartu behar dutenean. Arazo berdina dute Gereaa auzokoek Goita auzora joateko.

- Kontuz mendizale Oiz mendira edo Urkora joan nahi baduzu eta Bizkaia aldetik bazatoz. Zure mendi ibilbidea autobus geltoki ondoan amaitu daiteke.

- Zenbat ermuar eta mallabitar ibiltzen diren euren eguneko paseotxoan, Osmatrabakua-Goitan zehar. "Peatón circule por la izquierda": ezkerraldetik bazabiltza noiz eta nola pasatuko zara beste aldera?

Hamabost urte baino gehiagoan gabilta horrela! Azken hiru urteetan, bi aldiz elkartu dira Mallabiko Udaleko ordezkariak Bizkaiko Foru Aldundiko arduradunekin; auzo elkartekoak ere behin egon dira bertan. Telebistan ere azaldu da arazoa. Auzotarrek euren ezinegona azaldu dute era adierazgarrian; traktore eta ibilgailuen martxarekin, adibidez. Zerbait lortu da (nola mendia ez datorren Mahomarengana... gu bertararuta): Mallabiko Udalak proposatutako aldaketa Zengotita auzotik errepide honetara ateratzeko karrila eginda dago jada. Trabakuan bertan autoek sartu eta irtezeko zuten arazoa Goita auzora, nolabait konpondu da. Baina lan hauek burutzerakoan, jarri den zoru hori jartzerakoan ez dago zalarik oinezkoentzat eta, batez ere, derrigorrez errepide hori zeharkatu behar dutenentzat, arriskua areagotu egin dela (ibilgailuak abiadura handiagoan dabiltzalako). Noizko pasabide bat Trabakua gainean?

Iaz Batzar Nagusietan Talde Mistoak konponbide bat eskatu zuen arazo honentzat. Aurten udaberrian beste behin, eta azkeneko joan zen asteazkeneko Bilkuran (irailaren 22an) berriro ere eztabaidatu zen arazoa. Zorionekoak gu, azkenean onartu da zerbait egin behar dela arazo honen aurrean! (Itziar Garamendik, Aldundiko azpiegituretakozuzendariak, onartua zien jada bai udalari eta bai auzokideei ondo ezagutzen zutela bertan arazo bat zegoela eta konponbidea behar zuela).

Lanak amaitu dira, lanen proiektua egiterakoan ez ziren egon Mallabiko Udalarekin; ezta lanak iraun duten bitartean ere. Arazoak bere horretan jarraitzen du. Bitartean, gaur bertan istripua egon da errepide horretan; larunbata, irailak 25. Noizko pasabidea?

Kontuz, laztana, hondartzan! Badaezpada nik eramango zaitut autobus geltokira. Eta lasai, ardiak pasa behar direnean, Txan magoari laguntza eskatuko diot-eta!

Aitor Loiola Zinkunegi, Mallabiko Udaleko ordezkaria

Tabirakori, min biziz

Iraileko azken asteetan Tabirakok urtero egiten duen denboraldi aurkezpena joan nintzen. Hainbat ikastetxetan saskibaloian jarduten duten umeak gonbidatu zituen ekitaldi horretara. Nire umea, tartean.

Zenbat ume eta gazte egongo ziren han? Berrehun? Hirurehun? Ez dakit. Baina asko. Beno, kontua da ekitaldian euskararen presentzia lotsagarria izan zela. Lotsagarria, baina! Ohituta nago gaztelera nagusi den guneetan sufritzen. "Normaltasuna" ren barruan hartzen dut. Gure herria halakoa da-eta. Eta neure umea erdara nagusi den ekitaldietara ere eramaten dut. Baina Tabirakokoa larregikoa iruditu zitzaidan, benetan.

Eta badakit Tabirakon ere jende asko dagoela musutruk lan egiten duena. Eta horrelakoei kritika egitea ezta nire gustukoa. Baina hain izan zen erdalduna ekitaldia, hau idatzi beharra izan dudala.

Hain zaila da kontratatatu zenuten aurkezlearen ordezkariak kontratatzea? Hain zaila da musika euskaldunaz giroa horrelako ekitaldiak? Ez dut uste.

Han gertatutakoak saskibaloia ez den beste kirol bat gogora ekartzen dit: soka-tira. Sentsazioa daukat Durangon apur batzuk ari garela euskaraz bizi ahal izateko pausuak ematen. Euskararen aldera bultzaka. Eta beste asko eta asko kontrara bultzatzen. Berbarok egingo du kanpaina bat umeek euskaraz egin dezaten, eta Tabirakok transmitituko die euskara ondo dagoela, baina, lasai, hemen normala gaztelera dela.

Ekitaldi hartan gure herriko alkatea izan zen buru. Nik sufritutakoa ez zuen sufrituko? Ez zuen pentsatuko udaleko Euskara Sailera bideratutako diruak alperrik direla Tabirakorena moduko ekitaldiak eginez gero?

Gorka Barruetaña - Berbaroko kidea

Sei hankako mahaia



Juan Jose Gastañatorre PP

San Fausto Jaiak

Beste ezereen gainetik, gure udal taldeak jai zoriontsuak opa dizkizue durangar guztiei, jai alaiak eta baketsuak, eguraldia lagun izan dezagula, eta oroitzapen ahaztezina gera dakigula.

Hori esanda, jai batzordea zoriontzea dagokigu azkeneko hilabeteluzeean egin duten lanagatik, geroago eta aurrekontu mugatuagoa daukatela kontuan hartuta, jai egitarauan ez baita falta ekintza eta ikuskizun kalitatekorik, herritar guztien gustuak asetzeko lain.

Poltsikoak arakatzen bizi garen garaioan, ez dugu ulertzen txosna batzordeak 15.675,06 euro eskuratzea

Hala ere, beti dago eragozpenen bat. Oraingo honetan, azkeneko urteetan argudiatu izan dugun moduan, ez dugu ulertzen poltsikoetan arakatzen eta direnak eta ez direnak egiten ibili behar dugun garaioan, txosna batzordeak nola eskuratu ditzakeen ahuntzaren gauerdiko ezutula ez diren 15.675,06 euro, "iazko kopuru berbera", kontuan harturik eztabaidagarriak diren ekintzak proposatzen dituztela eta irabazi-asmoko zerbitzua eskaintzen dutela.

Gutxi batzuek pribilegioak dituzte gehiengoarekin alderatuta, kontuan harturik herritar guztioi zuzendurik jai batzordeak antolatu dituen ekitaldietan murrizketa handia gertatu dela.

Hori eta ez luzatzeko aipatuko ez dudanez beste konturen bat gorabehera, berriz diot: San Fausto zoriontsuak guztiontzat.

Gutxi batzuek pribilegioak dituzte, jai batzordearen egitarauak murrizketak dituen bitartean

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2010eko urriaren 8a - 9. urtea - 389 zk.

Laguntzailea:

Bizkaiko Foru Aldundia

Eta honako Udal guztiak:

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazioa:
Itziar Belar, Miren Abasolo.
Publikitate:
Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilariak: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN

LAUDIO ABADIÑO

**KALITATEA ETA PREZIO EGOKIA
EZ DIRA BETI ELKARREN ETSAI**

AUKERATU EZAZU ORDAINITZEKO MODUA

ETA GUSTUKOEN DUZUN BEHERAPENA

www.bautistamuebles.com

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera) Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabilioia ABADIÑO (Eroski ondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

AGENDA

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Urriaren 11n, 20:00etan
Durangoko San Agustinen

Mag Lari

Mago katalanak bere ikuskizunari buruz dioenez, 0 eta 99 urte bitarteko ikusleentzako da aproposa. *Sonrisas y magia* izenak dioten moduan, umorea eta magia, biak uztartuta eskaintzen ditu Mag Larik. Magia ironiagaz lantzen du ilusionista gazteak. Musika eta argiekin ere modu oso berezian osatutako ikuskizuna da.

ANTZERKIA

DURANGO

» Urriaren 11n, Mag Lari magoaren *Sonrisas y magia* ikuskizuna, 20:00etan San Agustinen.

BERRIZ

» Urriaren 8an, Txotxongilo taldearen *Zergatik bizi da basoan Txanogorritxoren amona?* umeentzako antzezlan, 18:00etan, Kultur Etxean.

» Urriaren 15ean, Teatro Paraisoren *Txirulari magikoa* umeentzako lana, 18:00etan, Kultur Etxean.

ERMUA

» Urriaren 15ean, Mostrenko Kolektiboaren *Tenemos que*

hablar antzezlan, gaueko 22:15ean Lobiano kultur-gunean.

BERBALDIA

DURANGO

» Urriaren 20an, Saroa Bikandik *Amatasunari, aitasunari eta literaturari buruz* eskainiko dituen hiru tertulietan bigarrena (erditze osteari eta edozkitzeari buruzkoa), Udal Liburutegian, 19:00etan.

BESTEAK

ABADIÑO

» Urriaren 10ean *Urrijena* ospatuko dute Urkiolako Santute-

gian. Bilboko Gotzaina buru izango duen Meza Nagusia eguerdiko 12:00etan, Gau Txori abesbatzaren emanaldia, bertsolariak, datzariak, eta amaitzeko luntxa.

IURRETA

» Urriaren 15ean Saroa Bikandi *ipuin-kontalariaren* saioak Ibarretxe kultur etxean (0 eta 2 urte bitartekoentzako arratsaldeko 17:00etan, eta 3 eta 4 urte bitartekoentzako arratsaldeko 17:30ean).

ERAKUSKETA

DURANGO

» Irailaren 10etik urriaren 20ra *Begoña Urresti* margolari iurretarraren koadroak egongo dira Durangoko Zeharkalea kaleko 9. zenbakian dagoen Artleku aretoan ikusgai.

» Urriaren 3tik 13ra, *Durango Uria* margo lehiaketara aurkezturiko lanen erakusketa, Ezkurdiko udal erakusketa aretoan.

» Urriaren 8tik 31ra, *Durangoko dantza taldeak XX. mendean zehar* erakusketa, Durangoko Arte eta Historia museoan.

» Urriaren 8tik 24ra, *San Fausto jaietako kartel lehiaketan* parte hartu duten lanen erakusketa, Durangoko Arte eta Historia museoan.

ERMUA

» Urriaren 4tik 31ra, *CNT: Anarko-sindikalismoaren 100 urte* erakusketa Lobiano kultur-gunean.

MUSIKA

DURANGO

» Urriaren 8an, *XIII. Gau elektroniko*a 22:00etan, Plateruena kafe antzokian.

» Urriaren 14an, *Popgun* eta *The Quibbles* taldeen kontzertuak gaueko 21:00etan, Plateruena Kafe Antzokian.

ERMUA

» Urriaren 16an, *Boney Fields Project* taldearen blues kontzertua, arratsaldeko 20:00etan, Lobiano kultur etxean.

IKASTAROAK

BERRIZ

» Urriaren 15era arteko epea dago Udalak eta Zabalitzen-Sartu elkarteak, **23 eta 45 urte arteko emakumeei zuzenduta** antolatut duten **lanbide-heziketarako ikastaroan** izena emateko. Azarotik otsailera artekoa izango da ikastaroa. Udaletxean bertan eman daiteke izena.

ELORRIO

» Urriaren 13ra arte eman daiteke Elorrioko Argazki Taldeak **argazki digitalaren** inguruan antolatut duen 30 orduko **ikastaroan** izena. Erreserba, eat@kzgunea.net helbide elektronikora idatzita egin daiteke.

IURRETA

» Urriaren 13ra arte eman daitezkeen gazteei zuzenduriko **Making komiki digital eta ikusentzunezkoen ikastaroa** biblioteka@iurreta.net edo liburutegia@durango-udala.net helbide elektronikotara idatzita edo 946812726 edo 946030041 telefonoetara deituta eman daiteke izena.

ZINEKLUBA

ABADIÑO

» Urriaren 8an *Polleke* umeentzako filmaren emanaldia, arratsaldeko 18:30ean, 'Ikusi Makusi' ekimenaren barruan, Errota kultur etxean.

» Urriaren 15ean *Ikasgela hegalaria* umeentzako filmaren emanaldia, arratsaldeko 18:30ean, 'Ikusi Makusi' ekimenaren barruan, Errota kultur etxean.

BERRIZ

» Urriaren 10ean *El aprendiz de brujo* filmaren emanaldia, arratsaldeko 17:00etan Berrizko Kultur Etxean.

ELORRIO

» Urriaren 14an *Pax Americana eta espazioaren konkista militarra* dokumentalaren emanaldia, arratsaldeko 19:30ean Iturri kultur etxean (Hilean Behin dokumental emanaldien zikloaren barnean).

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Gru, mi villano favorito 3D

Zuzendaria:

Chris Renaud, Pierre Coffin

barikua 8: 19:00/22:00

zapatua 9: 17:00/19:30 eta 20:00

22:30

domeka 10: 17:00 eta 20:00

astelehena 11: 17:00 eta 20:00

martitzena 12 (ikuslearen

eguna): 17:00/20:00

eguaztena 13: 17:00

Opera (High Definition)

Bizet-en Carmen

eguaztena 13: 20:00

Zinekluba

La nana

Zuzendaria: Sebastian Silva

eguna 14: 20:30

ELORRIO

Arriola

Conocerás al hombre de tus sueños

Zuzendaria: Woody Allen

zapatua 9: 22:30

domeka 10: 20:00

astelehena 11: 20:00

martitzena 12: 20:00

Umeendako zinema

The Karate Kid

Zuzendaria: Harald Zwart

zapatua 10: 17:00

martitzena 12: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

The blind side

Zuzendaria: John Lee Hancock

zapatua 9: 22:30

domeka 10: 20:00

astelehena 11: 20:00

Umeendako zinema

Como entrenar a tu dragón

Zuzendaria: Dean DeBlois

domeka 10: 17:00



Urriaren 9tik 23ra, Durangoko San Agustinen

'MALAIRE, KINSHASHARA BIDAIA': TXELU ANGOITIAREN ARGAZKI ERAKUSKETA

Medicus Mundi GKEak eta Durangoko Udaleko Gizarte Ekintza Sailak ekarri dute Txelu Angoitia argazkilari durangarraren argazkien bilduma, Durangoko jaiek irauten duten bitartean, Durangoko San Agustin Kulturgunera. 'Stop malaria now' kanpainaren barruan jasotako ekimena da Txelu Angoitia Kongoko Errepublika Demokratikoan argazkiak egitera eraman zuena. Malaria gaixotasunak pobreziagaz daukan lotura erakusten du ekimenak.

DENBORAPASAK

	Araudiak	▼	Segi	▼	Pl., suari dariona
	Gaixoak		Nahi bizia		
		►		▼	▼
	Kolore mota	►			
	Modu hartan				
Zerbaiten jabe berak		►	▼		
Basak					
		▼			
Jakingo balu	►				
Egile atzizkia					Jardun
		►			Bokala
	Ofizial turkiarra				Lehorta
	Hitz egiteko eratzasun				
Ahalerak bera du	►	▼	1	►	Iridioa
Mintzaldi			Ez erraza		52
			▼		▼
Hari, doa	►				
Galdetzaile bat					Gipuzkoako herria
			Bizkaieraz, iratzea	►	▼
			Alkohol bukaera		
Sail	►		▼	Titanioa	►
Sortaldea				500	
				▼	

ZORION AGURRAK >

zorionak@anboto.org • Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Zorionak Hello Kitty polit honi! Joan den barikuan, urriak 1ean, 9 urte egin zituen Irati Areitio. Lagun denen partez musu potolo-potolo bat.



Zorionak Izar! Gure etxeko printsezak bihar, urriaren 9an, bi urtetxo egingo ditu. Musu handi bat eta oso ondo pasatu, etxeko guztien partez.



Paule Ortiz de Apodakak 2 urtetxo egin zituen ostegunean, urriaren 7an. Zorionak gure printzesari. Musu handi bat, aita, ama eta Maialenen partez.



Zorionak bikote: Olatz eta Jon! Urriaren 13an ezkondu ziren, orain dela hiru urte. Oso zoriontsuak izan zaitezte betirako!



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dugu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia emotea.



Durangoko talde honek Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidea amaitu duela-eta, argazkia bidali digu.

1	9			2		1	8
				8	4		3
	3	6		5			
2						4	7
7	1			4	9		
4	6					3	2
5		1	6			4	
	9	8					
			7			8	6
						5	

2				6		5	1
	2	4	5		3	7	
		7	4		9	8	
4	3				2		6
8	9			1			
			6		1		
3				7	8		2
	6			3	5		
1	2						

ESKELAK >

anboto@anboto.org • Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Maria Dolores Madariaga

Egun hauetan zuen elkartasuna eta adiskidetasuna erakutsi diguzuen guztioi, besarkada goxo bat.

BOTIKAK >

Barikua, 8
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
Zapatua, 9
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
09:00-13:30
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 -Durango)
• Unamunzaga (Murrueta Torre 2C - Durango)
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-14:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
Domeka, 10
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 -Durango)
Astelehena, 11
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
09:00-22:00
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
Martitzena, 12
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
Eguaztena, 13
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
Eguena, 14
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
• Eguren, Isabel (Trañabarren 15 - Abadiño)

TELEFONO INTERESGARRIAK >

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren902 54 32 10
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690
UDALAK
Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00

Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
UDALTZAINGOA
Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88

EGURALDIA >

17° 24° BARIKUA ☁
16° 23° ZAPATUA ☁
13° 19° DOMEKA ☁
15° 17° ASTELEHENA ☁
12° 17° MARTITZENA ☁

ARIES (marxoak 21 - apirilak 20)
Gaztea izatearen defektua urteekin zuzentzen da. Esperientzia hartu ahal ikasiko duzu.
TAURUS (apirilak 21 - maiatzak 20)
Haserreak laburrak lirateke errua bi aldeetako batena balitz. Denok dugu, ordea, erru zati bat.
GEMINI (maiatzak 21 - ekainak 20)
Normalean albiste txarrak hegaz eta onak errenka etortzen dira. Izan pazientzia. Helduko da.
CANCER (ekainak 21 - uztailak 20)
Pobrea ez da gutxi daukana, asko gura duena baino. Ikasi daukazuna estimatzen.
LEO (uztailak 21 - abuztuak 23)
Atzokoaren esklabu eta biharkoaren jabe gara. Egin ahalegina orain artekoa hobetzeko.
VIRGO (abuztuak 24 - irailak 23)
Gustura biziko zinategi irla txiki batean zeu baka-rik, ardurarik barik. Itzartu, ametsetan zabilta!
LIBRA (irailak 24 - urriak 23)
Behingoa osasun arazoak ahaztu dituzu, eta berriro irribarrea ageri zaizu aurpegian.
SCORPIUS (urriak 24 - azaroak 23)
Nahitaez zeurea egin behar izaten dute besteek. Besteena entzuten ikasi behar zenuke.
SAGITARIUS (azaroak 24 - abenduak 23)
Urte biko ikasten da berba egiten. Isilik egoten ikas- teak bizi osoa eraman dezake.
CAPRICORNUS (abenduak 24 - urtarrilak 20)
Bizitza osoa aukera horren zain egon zara, eta orain ezin duzu atzera egin. Beraz, aurrera!
AQUARIUS (urtarrilak 21 - otsailak 21)
Zoriturak guztiak zeure kontra datozkizun sentsa- zioa duzu. Lasai, laster aldatuko da zure zoria.
PISCIS (otsailak 22 - martiak 20)
Hamaika gauza dituzu buruan, eta azkenean ez duzu erdirik egiten. Hobe da banan-banan egitea.

SOLUZIOAK

5	9	8	1	6	7	2	4	3
7	4	1	2	5	8	9	6	3
6	4	2	8	9	1	7	5	3
2	6	5	7	1	8	5	9	4
9	8	5	6	4	2	5	1	7
1	7	4	5	9	5	6	8	2
4	2	6	5	7	1	9	5	8
5	9	4	8	6	7	2	1	3
8	1	7	9	2	4	5	6	3

5	9	8	1	6	7	2	4	3
7	4	1	2	5	8	9	6	3
6	4	2	8	9	1	7	5	3
2	6	5	7	1	8	5	9	4
9	8	5	6	4	2	5	1	7
1	7	4	5	9	5	6	8	2
4	2	6	5	7	1	9	5	8
5	9	4	8	6	7	2	1	3
8	1	7	9	2	4	5	6	3

A	E	D	T	V	I	K	E
I	T	•	O	T	R	V	•
V	R	I	•	I	R	E	Z
•	O	I	K	V	O	D	•
I	D	T	V	Z	T	I	H
R	I	•	I	•	E	K	•
V	•	V	G	V	•	E	T
•	I	K	E	T	V	B	•
K	V	I	T	V	S	V	B
V	R	R	U	H	•	J	•
E	R	R	V	•			
K	V	I	R	E			
•	J	•	V	•			

"Bitxigintzan hasi aurretik bidaiatu eta alanbrezko eskulanak saldu gura nituen"

Zilarragaz eta harriekin egiten du behar Nekane Airak. Bitxigintzan orain dela hamalau urte hasi zen

Artisautzagaz Mexikon liluratu zen Nekane Aira. Duela hamalau urte bidatzeko lana utzi zuenean, ez zuen imajinatzen zein izango zen bere afizio eta ofizio berria. Azokarik azoka dabil azken urteotan Nekane, eta, Berrizen lehen eta orain Durangon, bere bitxiak saltzen dabil Karan dendan.

Zelan sartu zinen bitxigintzaren munduan?

1996an beharra utzi eta Ertamerikara joatea pentsatzen nuen. Nire lankide bat ere animatu zen, eta Guatemalako komunitate indigenetara joan ginen. Han bidaitzen zuen jendea ezagutu genuen, eta Mexikon, Taxcon, arte eskola zegoela kontatu ziguten. Gure ideia, hasieran, zeredo zertxukasi, eta alanbreagaz-eta gure artisautzatxoa egitea zen, eta bidaiari Mexikotik Suaren Lurraldeko ibilbidea egitea. Eskolan hasi ginen, baina, alanbrezko eskulanak albo batera utzi eta bitxiak egiten ikastea erabaki genuen.

Zelakoa zen zuen bizimodua?

Eskolan ikasi eta bidaiara asko egin genuen. Pazifikokoan hondartza batean, adibidez, denboratxoa egin genuen gure lanak saltzen. Eskolan egon ginenean, etxeak alokatzen genituen eta goizeko laurak arte egoten ginen behar-rean. Badakizu, "bohemioren bizitza", zer estresa! Oso esperientzia polita izan zen, eta lau-bost urte egin genituen kanpoan. Gero hona etorri eta azokarik azoka ibiltzeko asmoa geneukan. Han egin-dako materialagaz etorri ginen, artisauen erregistroan alta eman eta azokaz azoka hasi ginen: Bilboko azokara, Pontevedara, Eivissara... oso pozik.

Gero, Berrizen ipini zenuen zeure denda.

Bai, hona etorri eta denbora bate-

ra banatu egin ginen nire laguna eta ni, eta bakarrik hasi nintzen Berrizen tailerragaz eta dendagaz. Esperientzia ona izan zen. Gero Durangora etorri nintzen, eta bertan enpresen sorkuntzarako ikastaro baten Txaro, nire lankidea, ezagutu nuen.

Bitxizalea izan zara beti?

Ni 80ko hamarkadako jaiak bizitakoa naiz, eta bai, beti oparitu egiten zizkidaten, gainera, eta gustatzen zitzaidan belarritako handiak erabiltzea eta larruzko pultserekin ibiltzea.

Tailerra eta denda edukitzeak ez dirudi erraza.

Ez. Berrizen gaitza egiten zitzaidan bakarrik egonda bitxiak egin eta dendajagotea. Tailerrean lan egiteko, azken finean, denbora eta kontzentrazioa behar dira. Nik nire bitxiak egin eta komertzializatu gura nituen.

Bisuteriaren alboan, zelan zabaldu dezake bideazurea lako bitxigintzak?

Artisauok burukomin asko edukitzen ditugu. Jendeak ohitura dau-

ka denek soinean dutena erosteko, eta egia da jendeak pentsatzen duela bitxi hauek garestiak direla. Baina bisuterian erabiltzen diren materialak ere horre-

lakoak dira; ez dute zilarra erabiltzen. Modak eta tendentziek eragiten dute.

Zuk jarraitzen dituzu?

Koloreei begira bai. Harri naturalagaz eta zilarragaz egiten dut lan, eta larrosa kolorea modan badago, harri natural larrosa bat biltzen dut. Lehen ez, oso burugorria nintzen eta niri gustatzen zitzaidana baino ez nuela egiten esaten nuen. Baina gauzak ez dira horrela.

Zelakoa izaten da sormen prozesua?

Lehen gehiago margotzen nuen, baina orain gero eta gehiago gertatzen zait zerbait egiten hasi eta moldaketak egiten joatea. Telekin formak egiten hasi naiz orain, adibidez. Dena birziklatzen dut. Azoketarako-eta erabiltzen ditudan tela guztiak gorde eta esperimentatzeko edo poltsak egiteko erabiltzen nituen. Orain, azoketan gutxiago ibili arren, denda ere nire sormena ateratzeko modua da. Azoketan geroago eta gaitzagoa da saltzea, batzuetan artisautza bisuteriagaz nahasten dutelako eta jendeak ez duelako ulertzen saltzen duzuna zergatik den garestiagoa. Gabonetan Bilboko azokan eta Durangon Arbasok antolatzen duen azokan jende oso ona egoten da.

Nekane Aira •

Bitxigilea

Jaiotzez basauriarra da



Julen Orbegoza
Kazetaria

Sokamuturra

Sanfaustoetako egun hartan burutik pasatu zitzaidana bota nuen, bat-batean: "Zezen gizajoa, sufritu egiten du sokamuturrean!". Iaz zen, Andra Marian nengoen gizon eta emakumez inguratuta. Behia edo zezena datorrenean pilatu egiten gara animalia saihesteko, eta urrutiko dagoenean aldamenekoekin berba egiten dugu, itxaronaldia atsegin bihurtzeko. Halako batean, norbaitek ostikada bat eman zion behiari, eta horrelako zerbait esatea otu zitzaidan: "Agerikoa da zezenak ez duela Durangoko kaleetan ondo pasatzen; hau be, ahari topeken antzera, lehenago edo geroago, gure ohituretatik desagertuko da".

Esan nuen bi aldiz egia dela uste dut (bat, behiak ez duela sokamuturrean disfrutatzen; eta bi, animaliak horrela erabiltzeko ohiturak desagertu egingo direla). Hala ere, komentarioa polemikoa iruditu zitzaizen albokoei: "Ikusi besterik ez dago Durangoko jaietako ekitaldirik jendetsuenetakoa dela". Eta egia da. Durangon badago sokamutur zale asko; tartean ni. Zerbait emozionala izango da, txikitatik bizi eta errotu den sustraia.

Debekurik nahi ez duen gizartean debekuak ezartzea, ordea, ez da bidea. Sokamuturrekiko gustua emozioaren alorrekoa dela uste dut, eta emozioaren alorreko alternatibak ematea izan daiteke bidea. Iurretan, iazko Sanmigeletan, esaterako, antolatu zen ekimen emozionala eta erakargarria: astoaren, makina baten eta gazte talde baten arteko desafioa. Hurrengo belau-naldien esku geratuko da erabakia, baina daborduko gure artean da eta izango da eztabaida.

ELORRIO

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Hurrengoa Durangon
Fco. Ibarra, 11an

IURRETA

Bixente Kapanaga 19, behea • 48215 IURRETA • Tel.: 94 681 66 73 • www.zarateylexpe.biz